# Goienkaria

2009ko irailaren 4a > Egubakoitza > IX. urtea > 387. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Arrasateko alkate izatea da nire amets nagusia, eta egia bihur daiteke"

**Aritz Arrieta**
PSE-EEko zinegotzia
Arrasaten > 08-09

**G2a** Jam berritua hilaren 12an irekiko dute > 39

**BERGARA** Zapatuetan ere egingo dute bisita gidatua Seminarioko indusketan > 19

**ARETXABALETA** Datorren astean hasiko dira kirol etxea eraikitzeko lanak > 26

**ESKORIATZA** Ura aurrezteko araudi berria egin du Udalak, eta ikusgai dago > 28

**EKONOMIA** > MERKATARITZA

# Dendak eta Udala pozik daude Oñatiko udako kanpainarekin

**DIRULAGUNTZAK** Abuztuan denda zabaltzeko laguntzen 2. kanpainan, iaz baino 31 denda gehiagok parte hartu dute

**GREMIOKA** Jarduera batzuk bereziki pozik daude: arropa eta zapata-dendak, ile-apaindegiak, mertzeriak, bazarrak...

**JENDE GUTXIAGO** Espero baino herritar gutxiago geratu da, eta gauza bera igarri dute Arrasaten eta Bergaran > 13

**LEINTZ GATZAGA** > JAIAK

## Jai nagusiak Leintz Gatzagan

Gaur hasi eta hilaren 8ra arte Andramaixak ospatuko dituzte gatzagarrek > 34-35



**100 URTE** Realeko atzelari Mikel Gonzalez eta 1966tik 1981era Realeko elastikoa jantzi zuen Agustin Arantzabal Bergaran, atzo. XABIER URTZELAI

## "Urteurrenak balio izan du jokalariok zaleak gertuago sentiarazteko"

Mikel Gonzalez eta Agustin Arantzabal batu ditu GOIENKARIAk, Realaren iragana eta oraina. *Gontxa*-k gustura hartuko luke *Gaztelu*-ren palmaresa, lehenengo mailara igoera (1967) eta ligako txapeldun (1981). Dena dela, Realeko urte onenak oraindik etortzeko dauden esperantza du Arrasatekoak. > 36-37


**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Iritzia** > 10
**Elkarrizketa** > 08-09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-35
**Kirola** > 36-38
**Kultura** > 40
**Sailkatuak** > 41
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47


**ARAMAIO** > INGURUMENA

## Aramaio, energia berrien alde

Ibarrako etxebizitza guztiak egurra erreta berotzeko aurreproiektua egin du Udalak > 32

**LANA** > KRISIA

## Gaua eman dute INEM aurrean

Ia 300 lagun joan ziren martitzenean INEMera, 900 euroko kontratua ematen duen tailer baten izena ematera. Lehenengo 75 eskaerak onartuko zituztela zioten hasierako oinarriek; hala, hainbatek gaua eman zuen han. > 04




Debagoiena industrialdea, 11. pab.
Uribarri auzoa (Markulete ondoan)
ARRASATE Tel.: 943 79 11 35

Olaguibel 51
01003 GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 26 71 73

**ERLIJIOA** > ARANTZAZUKO AMA BIRJINAREN EGUNA

# Arantzazuko Amaren berora batzen hasi dira fededunak

**BEDERATZIURRENA** Ama Birjinaren eguna ospatzeko zain, abuztuaren 31 ezkero daude elizkizunak Arantzazun

**GRINA, BIZIRIK** Ohitura aldaketa igartzen den arren, eliza beteta egoten da eta Euskal Herri osoko eliztarrek hartzen dute parte


Fededunak, Arantzazuko Ama Birjina gurtzen, haren egunean erromes igo ondoren.

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Arantzazuko Ama Birjina da egunotan Gipuzkoako eta Euskal Herri osoko hainbat fededunek bereziki gogoan dutena, haren bederatziurrena ospatzen dabileta Eliza Katolikoa abuztuaren 31z geroztik, Ama Birjinaren egunera arte, hilaren 9an, datorren eguaztenean. Gipuzkoako zaindariarekin batera, aurten Arantzazuko fraideen ordenaren sortzailea, Asisko San Frantzisko, da ospakizunotako beste izarra, izan ere, aurten 800 urte dira ordena sortu zela, eta hori omentzen dihardute bederatziurrenean.

Egunotan, giroa berotzen eta fedea indartzen joaten dira hainbat gipuzkoar, Ama Birjinaren egunera arte. Datu bitxi bat badago, jende askok –batez ere, adin batetik beherakoek– jakingo ez dutena: Ama Birjinaren eguna irailaren 8a da, izatez. "Ama Birjina gehienen festa eguna 8a da, baina Donostiako Gotzainak esan zuen ezin zuela egon Donostiako Koruko Amaren eta Arantzazuko Amaren ospakizunetan aldi berean, eta horregatik, Arantzazukoa 9ra atzeratzea erabaki zen. Dena dela, irudia aurkitu zen hilabetea ekaina zen", azaltzen du Iñaki Beristain Arantzazuko frantziskotarrak, egunotan ospakizunetan buru belarri sartuta dabilenak.

Eguaztenean, erromesaldi handia izango da, eta ehunka oñatiar zein gipuzkoar eta euskaldun fededunek oinez egingo dute santutegira bidea. Gauza ezohiko moduan, anaia frantziskotarrak Oñatira jaitsiko dira 08:00etarako, bidean erromesei lagun egiteko; Donostiako gotzaina, Joan Maria Uriarte, ere han izango da, buruan. Ohi bezala, kantuan, gogoetan, bertsotan, isilean… egingo dute bidea. Santutegian, meza nagusia entzungo dute 12:00etan, "urteko nagusiena", Beristainen esanetan. Arratsaldean, jaiegunetako meza esango dute, eta 17:00ak aldera etxera joango dira erromesak.

Oñatitik joan gura dutenek autobus zerbitzu indartua izango dute hilaren 9an: 07:30etik 20:00etara.

### HIRU ERROMESALDI HANDI

Baina bederatziurrena ere emozioz betetako ospakizuna da, egun handirako prestatzeko. "Aste Santuaz gain, guretako sasoi garrantzitsuena da hau. Eliza beteta edo itxura onean egoten da. Fede esperientzia ederra da jendearendako", esaten du Iñaki Beristainek. Izan ere, Euskal Herri osoko jendea joaten da Arantzazura otoitz edo gogoeta egitera egun hauetan. Herri bakoitzak bere eguna daukala gauza jakina da –erromesaldi egutegia maiatzean hasten da eta urrian bukatu–, baina ohitura hori nondik datorren zaila da jakiten. Batzuek diote Arantzazura errepidea egiten lagundu zuten herrien arabera dela, horiek egun bereziak dituztelako. Baina, Beristainen esanetan, "ez dakigu zergatik dauden egun horiek zehaztuta. Hori bai, erromesaldi handien garaia badugu gogoan: hala, 1881ean horietako bat izan zen, Leon XIII.a Aita Santuak dei berezia egin zuelako; eta 1918an, Ama Birjina Gipuzkoako zaindari aitortu zutenean; hirugarren bat 1956an, eliza berria inauguratu zenean". 50eko eta 60ko hamarkadetan, Euskal Herri osoko gazte eta helduek erromesaldi handiak egin zituzten; besteak beste, 1952tik 1968ra, gizonezkoek gauez egiten zituzten erromesaldiak, eta 1959tik 1967ra, emakumezkoenak, hauek egunez.

**Ama Birjina gehienen eguna irailaren 8a da, izatez, baina Gotzaindegiak Arantzazukoa atzeratzea erabaki zuen, arrazoi praktikoengatik**

**Herri bakoitzak erromes joateko bere eguna du, eta askok errespetatzen dute oraindik; maiatzean hasten da egutegia, eta urri amaieran bukatzen da**

### ORAIN, AUTOZ

Oraindik ehunka fededunek bidaiatzen dute Arantzazura –bederatziurrena hasteko, Nafarroatik etorritako bederatzi autobus bete etorri ziren–; baina garaiak aldatu egin direla uka ezinekoa da. Batetik, hainbeste urteetan erabili den eta oraindik bizi irauten duen autobusezko bidaiak laster bukatuko dira, frantziskotarren esanetan: "Lehen, urtean festa handi bat egiten zen, eta autobusez bidaia luzeak egiten zituzten; hala, Erramu Egun bezperan, Gipuzkoatik 6.000 lagun etortzen ziren autobusez. Orain, autoz etortzen dira, eta ulertzekoa da, erosoagoa da-eta". Bestetik, funtsean, erromes kopurua jaitsi egin da; batez ere, adin bateko jendea da, eta errelebururik ez dago. Hala ere, oraindik eliza bete edo ia bete egiten da, eta eliztarren grina ez da itzaltzen: "Nafarroako 500 lagunekin, eliza betebeteta egon zen, eta parte hartzeko gogoa dago; Oñatitik ere jendea etortzen da, ospatzera, kantatzera…".

### HOTELA, BETETA

Dagoeneko han daudenendako zein ailegatzeko daudenendako, Arantzazuko harrera eta ostalaritza zerbitzuak bete-betean dabiltza lanean, eta dagoeneko bisitari asko dago. Batzuek lehenengo aldiz ikusiko dute Arantzazuko hotel berria. Hango 46 gelak bete-


Nesken erromesaldia egin zen 1959tik 1967ra arte. GOIENKARIA

## Herri bakoitzak, igotzeko egun bat

Euskal Herriko herrien erromesaldi egutegia maiatzean hasten da, kostaldeko herriekin, eta urri amaieran bukatzen da. Herri bakoitzak badaki zein den bere eguna, eta herrian gogorarazi eta "ardura handiz" zaintzen duela dio Iñaki Beristain frantziskotarrak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Abuztuaren 31** | Nafarroako Arkupe erretiratuen elkartea; hainbat herritatik datoz | **Irailaren 4a** | Foru |
| **Irailaren 1a** | Elgeta, Osintxu | **Irailaren 5a** | Irun |
| **Irailaren 2a** | Oiartzun | **Irailaren 6a** | Segura eta Idiazabal |
| **Irailaren 3a** | Errezil, Bidania, Goiatz eta Albiztur | **Irailaren 7a** | Aretxabaleta |
| | | **Irailaren 8a** | Legazpi |
| | | **Irailaren 9a** | Oñati |
| | | **Irailaren 13a** | Arrasate |



JOSETXO ARANTZABAL

Iñaki Beristain > Arantzazuko frantziskotarra

## "Garai baten, jendearen urte osoko oporrak ziren hauek"

ARRITXU BARRUSO/L.K. > ARRASATE

**GOITBko platoan egon zen martitzenean Iñaki Beristain Arantzazuko fraidea. Erromesaldien, garai aldaketen eta frantziskotarren etorkizunaren berri eman digu.**

**San Frantzisko da bederatziurreneko protagonista berezia.**

Kutsu hori eman nahi izan diogu, oraintxe modan-edo dagoelako, gizabalio garrantzitsuak erakusten dituelako. Erakusten gabiltza ze prozesu bizi izan zuen gazte arrunt izatetik San Frantzisko bihurtu arte. Egunero gai bat lantzen gabiltza: San Frantzisko pobreekin, lepradunekin, anaiekin, ingurumenarekin... gaurko ikuspuntutik.



LEIRE KORTABARRIA

**Ostalariek diote erromesen erreleburik ez dagoela, zer diozu?**

Behera doala egia da, gehiena jende nagusia delako, eta langileek ez dutelako etortzerik; eta belaunaldi berriek ez dute jarraitzen. Bestalde, ospederia itxita egon da bi bederatziurren, eta hori errekuperatzea kosta egiten da; Sindikak aldapa handia du nagusiendako... Horrez gain, jendartea aldatu egin da; hala, gure ama 30 urtez jarraian etorri zen bederatziurrenera, eta harendako, urteko oporrak horiek ziren.

**Eusko Jaurlaritza berriko ordezkariak egongo dira Ama Birjinaren egunean?**

Ez digute konfirmatu izango diren edo ez; gonbidatuta, behintzat, badaude. Batzar Nagusietako presidente Rafaela Romerok baieztatu digu etorriko dela; eta, urtero bezala, Foru Aldundi osoa eta Oñatiko Udala etorriko dira.

**Frantziskotarren 8. mendeurrenean, zelan dago anaidia Debagoienean?**

Gipuzkoan 300 fraide gaude, eta Arantzazun, 34. Zaharrak gara, baina tente eta lanean jarraitzen dugu. Ondorengorik ez dator, baina gu bukatzen bagara ere, Arantzazuk jarraitu egin behar du, Arantzazu berri bat egin behar dugu, herria zerbitzatzen eta San Frantziskoren baloreak zabaltzen jarraituko duena: gizakiaren duintasuna, adiskidetasuna, ingurumena... Hor daude Baketik, kultura proiektuak eta beste batzuk. Arantzazu etorkizunerako prestatzeko modua dira.

ta dituzte. "Erreserbak denboraz egin ditu jende gehienak. Adineko jendea da, Arantzazura etortzeko ohitura dutenak", esaten du Miren Eluak, hoteleko arduradunak. Egonaldi mota desberdinak egingo dituzte: batzuek hiruzpalau egunerako hartu dute gela; beste batzuek, bederatziurren osorako; eta badira egun nagusirako bakarrik etorriko direnak.

Goiko Bentan ere lanpetuta dabiltza; hala ere, arduradunak, Miren Maiztegik, aldaketa igarri du: "Lehen askoz jende gehiago etortzen zen, eta Arantzazu beteago ikusten zen". Hala ere, Goiko Bentako hamar gelak ere bete egingo dira, nahiz eta egonaldiak laburragoak izan: lehen bederatziurren osorako etortzen zen jendea, eta orain, "hiruzpalau egunerako", dio Maiztegik. Hala ere, alde ona ere badago: urte osoan zehar, Arantzazuko ostatuek lan handiagoa dute orain, izan ere, lehen bisitak Ama Birjinaren egunaren bueltan izaten ziren, eta orain, turismoa dibertsifikatu egin da.

Autobusez, autoz edo oinez, egun bakarrerako zein bederatzirako, moduak aldatu dira, baina euskal fedearen topaleku izaten jarraitzen du Arantzazuk.

## San Frantziskoren ikasgaiak gaur egunera ekartzen dihardute bederatziurrenean

Asisko San Frantzisko modu berezian omentzen dihardute Arantzazun, ordenaren sorreraren 800. urteurrenean. Asis hirian jaio zen 1182an, Pietro di Bernardone merkatari aberatsaren seme, eta gaztaroan berak ere bizimodu hori egin zuen. 1202an kartzelara bidali zuten, eta gaixotu egin zen. Bere lehengo bizimoduak gogait eginda, aberastasunei uko egitea eta pobreei zerbitzatzea erabaki zuen. Jainkoarenganako bihurtze horretan, hainbat topaketa edo urrats izan zituen, eta berebiziko garrantzia izan zuen lepradunekin bizi izanak.

Arantzazun, San Frantziskoren konbertsioa edo topaketak eguneratzen dabiltza, gaur egun ze ikasgai atera daitezkeen aztertzen: giza balioak, barrutik norbere burua aldatzea...



Murillok margotuta. GOIENKARIA



**LANA** > ENPLEGU TAILERRA

# Enplegu tailerrerako eskaera guztiak aztertuko dituzte

Ia 300 lagun joan ziren INEMera, 900 euroko kontratua ematen duen tailer baten izena ematera; eskaera guztiak aintzat hartuko dituzte aukeraketan

**G. ARANA/L. KORTABARRIA** > ARRASATE

Hirurehun lagun ingururen eskaerak jaso zituzten martitzen goizean Arrasateko INEMeko bulegoan. Denok Mankomunitateak eta INEMek antolatutako enplegu tailerrean izena eman nahi zuten. Oinarriek zioten lehenengo 75 eskaerak onartuko zituztela hasieran, eta, horregatik, jende askok gaua hantxe ematea erabaki zuen; han egon ziren hainbat, hondartzako jesarlekua eramanda, eta, hala eta guztiz ere, askok ez zuten lortu lehenengo 75 eskatzaileen artean egotea.

Bada, hori ikusita, hasierako muga kentzea eta eskaera guztiak onartzea erabaki dute antolatzaileek. Horrek ez du esan nahi denek parte hartuko dutenik enplegu tailerrean; aukeraketa bat egingo dute, hasieran 75 horiekin egingo zena. Lehen hautaketa bat egingo dute, eta horiei gutuna bidaliko diete etxera, irailaren 14a baino lehen. Azkeneraino iristen diren 35 lagunek urriaren 5ean hasiko dute enplegu tailerra.

**"EDOZERTAN LAN EGINGO NUKE"**

Mankomunitateak bultzatu eta INEMek diruz lagundutako programa horrek formazioa eta lana eskaintzen ditu, energia berriztagarrietan, eraikinen eta hirialtzarien mantenuan edo sukaldaritzan. Urte beteko egun erdiko lan kontratuarekin doa, 900 euro ingurukoa. Kontratu mota horrekin ez da Gizarte Segurantzan kotizatzen, baina gustura sinatuko lukete askok gaur egun, langabezian daudelako. Hala, ilaran zegoen emakume batek hauxe esan zuen: "Semea langabezian dago, aita pentsio minimoa kobratzen dabil, eta etxean ez dugu beste diru-sarrerarik". Beste emakume batek bi eskaera-orri hartu zituen, berarendako eta senarrarendako; eurek lanik ez, eta umezainari oporrak eman dizkiote. Gizon batek laburtu zuen askok duten iritzia: "Lan egitea da kontua; edozertan".

ESANAK

"Semea langabezian, aita pentsio minimoarekin... etxean ez dugu beste diru-sarrerarik"

**Enplegu-tailerreko hautagaia**

**420 EURO**

Langabezian daudenendako 420 euroko dirulaguntza langabezia subsidioa urtarrilaren 1ean bukatu zitzaienei luzatzea erabaki du Espainiako Gobernuak. Orain arte, abuztuaren 1a zen data; eta, INEMeko arduradunek dioskutenez, neurria onartu zenetik "bospasei lagun" bakarrik joan ziren laguntzak eskatzera, hasierako nahasmena argituta. Horietatik lauk betetzen zituzten baldintzak.




Nola edo hala, eskaera-orria bete eta lehenengo 75en artean sartzea zen kontua irailaren 1ean INEMen. GOIATZ ARANA

**KRISIA**

## Fagor Etxetresnek 8,57 milioi galdu zuten

**L.K.** > HERRIA

Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldeak 8,57 milioi euroko galerak izan ditu lehen seihilekoan. Iaz, epe berean, 164.000 euroko irabazi gordinak izan zituen kooperatibak. Taldeak Balio Merkatuen Batzorde Nazionalari bidalitako kontuen arabera, negozio-zifra 724 milioi eurokoa izan da lehen seihilekoan, urtebete lehenago baino %16 gutxiago.

**ITXAROPENTSU**

Taldearen itxaropena da emaitza horiek hobetzen joatea bigarren seihilekoan, erakuntzaren atzeraldiak eragindako deskontuaren zati handi bat egin ondoren.

> EUSKARA

### Euskarari laguntzeko, 109.962 euro etorri dira Jaurlaritzatik

Debagoieneko eta Aramaioko udalek 109.962,13 euro jaso dituzte Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan egindako ekintzak finantzatzeko. Uztailaren 8an ebatzi zituen laguntzok Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Bergarako Udalak jaso du dirulaguntza handiena: 43.089 euro. Beste udalek kopuru hauek jaso dituzte: Aramaioko Udalak, 4.775 euro; Aretxabaletakoak, 25.013,75; Arrasatekoak, 25.674,57; Elgetakoak, 3.000; eta Eskoriatzakoak, 8.409,81. Ikastaroak, ospakizunak, informazio kanpainak… lagundu dira diruz.

**IKERKETA** > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

# MU, garapen bioteknologikoa sustatzeko bi proiektutan lanean

Bi ikerketa-taldek Gurutzetako Ospitalearekin dihardute lankidetzan 2008. urte hasiera ezkero

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko ikertzaileek Euskal Herrian garapen bioteknologikoa sustatzeko bi proiektutan dihardute lanean: hain zuzen ere, Gurutzetako Ospitaleko ikertzaileekin dihardute lanean 2008. urte hasiera ezkero. Epeak betetzen badituzte, 2010eko udarako bukatuko dute lana.

Ikerketa-taldeek bi esparrutan dihardute lanean: alde batetik, lokomozio-aparatuak ehunak birsortzeko zelula amen hazkuntzan; eta beste alde batetik, bularreko minbizia eta osasun etxeetan hartzen dituzten infekzioen diagnosia egiteko erabiltzen dituzten web semantikoko teknologien esparruan.

**KARTILAGOAK BIRSORTU**

Lehen proiektuan MUko ikertzaileek euskarri metalikoak eta pilomerikoak garatzen dihardute, ondoren zelula amen hazkuntzarako egokiak diren zehazteko. Ikerketaren ardatza kartilago artikularra laborategian birsortzea da, ondoren pazienteari jartzeko. Hala, kartilagoen lesioetarako beste prozedura terapeutiko batzuk garatu ahalko dituzte, eta ebakuntza arinagoak egin ahalko dizkiete. Proiektu horren helburua da zelula amen hazkuntzaren bitartez lokomozio-aparatuko ehunak birsortzea.

Bigarren esparruan bi proiektutan dihardute lanean. Alde batetik, bularreko minbizia garaiz antzemateko sistema informatikoa garatzen dihardute, esperientzia faltagatik edo beste arrazoi batzuengatik sor daitezkeen giza akatsak saihesteko. Euskal emakumeen artean bularreko minbizia da tumore gaizto ohikoena eta urtero 100.000 emakumeko 40 kasu antzematen dituzte.

DATUA

**40**

**KASU**

Euskal emakumeen artean bularreko minbizia da tumore gaizto ohikoena. Urtero egiten dituzten azterketetan, 100.000 emakumeko 40 kasu diagnostikatzen dituzte.

**INFEKZIO NOSOKOMIALA**

Beste alde batetik, ospitalean hartzen diren infekzioak –infekzio nosokomialak– antzemateko proiektuan lantzen dabiltza. Horretarako Web Semantikoa erabiliko dute, infekazioa hartu dutela antzemateko. Gainera, ze mikro-organismo den, non dagoen eta beste gaixo batzuk kutsatzeko duen ahalmena antzeman ahalko dute, ondoren babes neurriak hartu ahal izateko.


Iñaki Peña mediku bizkaitarrak Debagoieneko ospitalean egiten du lan. MIRIAN BITERI

**Iñaki Peña** > Debagoieneko ospitaleko medikua

# "Arrisku taldeetan egon ezean, A gripea hartuz gero ez da ezer pasatzen"

**U. AGIRRE - M. BITERI** > ARRASATE

**Iñaki Peña medikuak Debagoieneko ospitalean egiten du lan. Datozen lerroetan A gripeaz egin du berba. Besteak beste, "lasaitasunerako" dei egin du.**

**Zenbateraino arduratu behar gaitu A gripeak?**

Adi egon behar dugu. Gripe mota berria da eta ematen duenez, datozen hilabeteotan gure inguruan zabalduko da. Zalantza zientifikoak daude horren gainean, ez dakigulako ondo zer-nolako bilakaera izango duen. Hortaz, ardura eduki behar dugu.

**Ze berezitasun dauka gripe normalarekiko?**

Talde zabala da eta oraingoa azpitalde bat da: A/H1N1. Kontua da birus berria dela. Gizakietatik txerrietara eta berriro gizakiengana bueltatu da. Mutazioa egon da eta, hortaz, horren bilakaera aurreikustea ezinezkoa da, hala nola izango duen hilkortasun tasa edo noraino den kutsakorra.

**Ze sintoma ditu?**

Gripe normalak eragiten dituenak ditu: sukarra, normalean nahiko altua; neke handia eta gorputz mina. Jipoi bat jasoko bagenu bezala gaude.

**Zein da oraingo errealitatea?**

Nahiko geldi dago orain. Ez dago batere hedatuta; beste toki batzuetan ez bezala, ez da ezer larririk egon. Debagoieneko ospitalean, A gripea izan duen pertsona bakarra egon da ospitaleratuta orain arte; arnas gaixotasun kronikoa duen pertsona gaztea eta bilakaera ona izan duena, hain zuzen. Dena den, esandako gripearen puntu goiena udazkenerako eta negurako espero dugu.

**Komunikabideetan minutu eta orri asko eskaini zaio. Alarma handiegia sortu da?**

Bai. Arduraz jokatu behar dugu eta ondo informatuta egon. Baina gertatzen ari dena gehiegizkoa da. Egun, komunikabide askotan morboa eragiteko joera dute; bereziki, telebistako goizetako programetan arinkeria handiegiarekin egiten dute berba horren harira. Horrelako gaiak seriotasunez eta profesionaltasunez tratatu behar dira.

**Botiken auzia ere hor dago. Zurrumurruak daude zenbait medikamentu promozionatzeko balio duela. Ze diozu?**

Nire iritzi pertsonala da zerbait egon daitekeela. Orain arte ez ditugu gripeak tratatu. Normalean, horrelako prozesuak etxean pasatzen dira ohean egonda, amamaren erremedioekin eta Couldina bezalako botikekin. Tamiflu farmakoa berria ez bada ere, orain arte ez dugu erabili gripe normalerako. Orain zergatik bai?

**Ze kolektibo dute A gripea hartzeko arrisku handien?**

Badago zerrendatxo bat arrisku taldeekin eta ospitaleetan hori ondo azaldu behar da, jendea lasaitzeko. Arrisku talde horietan egon ezean A gripea harrapatuz gero, ez da ezer pasatzen. Beste edozein gripek bezala eragiten du.

Hainbat talde daude: batetik, arnas gaixotasun kronikoak dituztenak daude: asma eta bronkitis kronikoa eta enfisemak. Maila moderatua eta larria dituztenek adi egon behar dute; bestetik, loditasuna dutenak daude; eta hirugarrenik, umeak eta haurdun dauden emakumeak. Ume txikiek eta normalean sortzetiko gaixotasunak dituztenek arriskua dute. Haurdun dauden emakumeek, bestalde, defentsa gutxiago dituzte.

**Umeak datozen egunotan itzuliko dira ikastetxera. Zer neurri hartu behar dira?**

Ume txikienen kasuan, ahal izanez gero, udazkenean eta neguan, behintzat, umea haurreskolara ez eramaten saiatu beharko genuke. Hortik aurrera, ez dago horren argi zelan jokatu behar den. Horren harira, lasaitasunerako deia egin nahi dut. Etorri behar duena etorriko da. Umea osasuntsu egonez gero, lasai egon daitezke gurasoak.

**"Debagoieneko ospitalean A gripea izan duen pertsona bakarra egon da ospitaleratuta orain arte; bilakaera ona izan da"**

**"Horrelako gaiak seriotasunez eta profesionaltasunez tratatu behar dira"**

**"Beste edozein gripek bezala eragiten du"**

**POLITIKA** > UDALAK

# Udalek jaso dituzte irudi eta pintadak kentzeko aginduak

Gainontzeko tokietan bezala, bailarako udalek 24 ordu izan dituzte presoekin lotutako elementuak kaleetatik kentzeko

**M.B.** > BERGARA

Hilabeteak pasa dira Jaurlaritzako Barne Sailak presoekin zerikusia zuten elementuak Euskal Autonomia Erkidegoko kaleetatik kentzeko agindua eman zuenetik; tartean, Debagoieneko kaleetatik. Auzitegi Nazionalak Arrasateko Portaloiko presoen argazkiak kendu zituenetik, mugimendua egon da horren harira bailarako herrietan.

Udal gehienek presoen argazkiak edo paretetako pintadak kentzeko agindua jaso dute udan zehar. Bergarako alkate Agurne Barrusoren esanetan: "Abuztuan, lau agindu jaso genituen. Denak jarraian". Besteak beste, Osintxuko hainbat pintada 24 ordutan kentzeko agindua eman zuten. Erantzukizunen eta lan horien gaineko dirulaguntzen berri ere ematen zuten.

Arrasaten eta Eskoriatzan ere antzeko eskaerak jaso dituzte. Azken herri horretako alkate Pedro Lasagabasterrek azaldu digu Udalari Huhezi ondoan zegoen pintada kentzeko agindua eman ziotela.

**HELEGITEA**

Arrasateko alkate Ino Galparsorok esan digu azken hilabeteotan hainbat agindu iritsi direla: "Edozein kasutan, horien kontra errekurtsoak aurkeztu ditugu. Mehatxupean egindako eskaerak dira eta bete egin baditugu ere, ez gaude ados planteamenduarekin eta helegiteak aurkeztu ditugu". Oñatira eta Aretxabaletara ere iritsi dira aginduak. Salbuespena Elgeta da. Oxel Erostarbe alkateak esan digu oraingoz ez dutela ezer jaso.

Bestalde, elementu horiek kaleetako hormetatik kentzeko udal bakoitzak ahal dituen baliabideak erabiltzen ditu: batzuek, udal langileak; beste batzuek, kanpoko enpresak.

ESANAK

**"Bete baditugu ere, ez gaude ados planteamenduarekin eta helegiteak aurkeztu ditugu"**

**Ino Galparsoro** > Arrasateko alkatea

> GARRAIO PUBLIKOA

### Lurraldebusek zerbitzu berria du, etxetik mugitu barik autobusa noiz iritsiko den jakiteko

Hemendik aurrera ez dugu denbora luzerik eman beharko geltokian, autobusa noiz etorriko den zain. Joan den abuztuaren 1ean, Lurraldebusek zerbitzu berria jarri zuen martxan, etxetik mugitu barik autobusa noiz iritsiko den jakiteko. Interesatuak *www.lurralde.net* webgunera sartu eta eskuinaldean *Noiz iritsiko den kontsultatzea* atalera joan behar du. Edozein geraleku aukeratu ostean, jakinaraziko zaio zenbat denbora barru iritsiko diren geraleku horretan gelditzen diren Lurraldebuseko autobusak. Informazio gehiago nahi izanez gero, esandako ataleko erabilera jarraibideetara joan eta galde ikurraren gainean klik egin behar da.

**Pamiela** argitaletxeak, **Kulturaren aldeko Euskal Fundazioa**ren babesarekin

**JUAN ZELAIA**
**IX. Saiakera saria**

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

**Irailaren 30a arte**

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauak: www.pamiela.com





Etxebizitza batzuk eraikitzeko obrak. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > ETXEBIZITZA

# Etxebizitzak egitea bultzatuko du Gesdas-ek

## Kooperatiba erregimeneko promozioak babesteko elkartea sortu dute Mondragonek eta LKSk

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Mondragon Korporazioko Eraikuntza Taldeak eta LKS Ingeniaritzak sortu duten Gesdas etxebizitza arloko elkarteak "Taldeko kideak zein ez direnak, guztiak" animatuko ditu eurek bultzatutako etxebizitza promozio proiektuetako bazkide egitera. Ekainean sortuta, Gesdas elkartearen "bokazioa" da "etxebizitza promozioak kooperatiba erregimenean kudeatzea; eta horietako bazkide egitea ez dugu mugatzen Korporazioko bazkideetara", azaltzen du Gesdas-eko zuzendariak, Jose Felix Ruizek. Bestalde, babestutako etxebizitzak bultzatuko dituzte, tasatuak edo babes ofizialekoak.

Elkartea hasi da lanean, poliki-poliki, baina martxa onean doa: Etxebizitza Sailak adjudikatu dizkio bi lursail, 94 eta 84 etxebizitza egiteko; eta Gasteizko Udalak, beste eremu bat, 82 etxebizitza egiteko.

Egoitza Gasteizen dute, Dato kaleko 14-16an; 902 10 43 12 da euren telefonoa.

**ESTATU OSOAN**

Gesdas ez da promotorea; promozioak bultzatu egiten ditu. Lehenengo, lursail egokiak bilatzen ditu, "egokiak direnak ezaugarri aldetik, eta eskaera dagoen leku baten daudelako", dio Ruizek. "Gero, begiratzen dugu ea leku horretan babestutako etxebizitzen eskaerarik dagoen. Segidan, kooperatiba sortzea bultzatzen dugu, eta bazkide egiteko gertu dagoen jendea bilatzen dugu. Gure babesa ematen diegu". Gesdasen jarduera Estatu osora zabaltzen da, "eskaera egon daitekeen lekuetara", dio zuzendariak.

Elkartea berez berria den arren, horrelako jardueran esperientzia luzea dute Mondragon Eraikuntzek eta LKS Ingeniaritzak.

**ESKAERA BADAGO**

Krisiaz galdetuta, Jose Felix Ruizek hauxe dio: "Egoera orain lau urte baino txarragoa izan arren, oraindik lehenengo etxebizitzaren premia eta eskaera duen jende asko dago; pertsona horiek premia dute, baina zailtasunak ere bai, eta finantzaketa bilatzen ere laguntzen diegu".

etxeko leihotik



**Goiatz Arana** > 'goarana@goiena.com'

## Plastiko gutxiago gure bizitzetan

Plastikozko poltsak gero eta urriagoak izango dira aurrerantzean: halakoak banatzeari utzi diote hainbat saltokitan eta neurri bera indarrean jartzeko asmoa dute beste hainbat tokitan. Ondo egina; plastiko gehiegi dago gure bizitzetan! Orain, plastikozko poltsa horiek ez-eta, nola moldatu pentsatu beharko dugu: gure etxean bada 50 zentimotan saltzen dituzten poltsa berrerabilgarri horietako bat, baina ez da nahikoa, noski. Besteren bat edo beste inguratu beharko dugu, edo kapazuarekin joan, edo gurpildun karrotxoa amortizatzen hasi. Baina nola? Horiek hartuta joango gara saltokira? Ez, hoberena autoan uztea izango da, eta antolatuko dugu guztia irteeran... Ikusiko dugu, denborarekin hartuko ditugu ohitura berriak. A, eta zakar poltsak erosteari ekin beharko diogu; ekin edo orain arte baino gehiago erosi, behintzat, saltokietan ematen zizkigutenek bete dute-eta, maiz, funtzio hori.

> **"Birziklatzea ondo dago, baina zabor gutxiago sortu behar dugu"**

Birziklatzea ondo dago, baina zabor gutxiago sortzetik hasi behar dugu: alferrikako makina bat kartoi eta plastikotan bilduta etortzen dira, gaur egun, hamaika produktu! Ondo etortzen da, esaterako, dozena bat madalenako poltsan, bakoitzak bere zorrotxoa izatea; alferrikakoa iruditzen zait, aldiz, jogurtak kartoietan biltzea. Produktuak hozkailuan eta armairuan sartuta betetzen da gure zakarrontzia bilgarri horiekin. Horiekin bai ez dagoela zer egin.

**> Dia eta Lidl supermerkatuetan, aspalditik kobratzen dituzte plastikozko poltsak. Seguru, horietan, jendeak ez dituela hartzen Eroskin edo Carrefourren besteko poltsa sailak.**

**> Zenbat aldiz ikusi ditugun itsaso eta erreka bazterrak plastiko zuriz zikinduta! Zenbat arrain hil diren horiek irentsita! Ea neurriok horrelako gertakariekin bukatzen laguntzen duten.**

**AHT** > UDAKO MARTXA

# Domekan helduko da Debagoienera AHTren aurkako Udako Martxa

## Aramaiotik Arrasatera helduko da domekan eta astelehenean Bergara-Angiozar tartea egingo dute

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

AHTren aurkako herri taldeek antolatuta Udako Martxa egingo dute Gasteizetik Bilbora, bihartik hilaren 13ra arte. Antolatzaileek "ingurumenaren aurkako azpikeria horrek jarraitzekotan txikitu eta desagertuko liratekeen inguruak" ezagutarazi gura dituzte. Horretarako, egunero ibilbide ezberdina egingo dute.

Udako Martxa domekan 20:00etan helduko da Arrasatera Urbinatik abiatu ondoren. Parte-hartzaileek gaztetxean afaldu eta lo egingo dute. Aurretik, 14:00 aldera Aramaiora helduko dira. 15:00etan bazkaria egingo dute trikitilarien laguntzarekin. 18:00etan antzerki emanaldia egingo dute, eta ondoren Arrasate aldera hartuko dute.

Astelehenean Bergara eta Angiozar arteko bidea egingo dute. Udako Martxa irekia da parte hartu nahi duten guztiendako, eta hilaren 13an, domekan, bukatuko dute Santurtzin. Hain zuzen ere, Serantesera igoera egingo dute

**HELBURUAK**

Udako Martxaren helburuetako bat da AHTko lanek sorturiko kalte izugarriak bertatik bertara ezagutzera ematea. Gainera, ibilaldia egiten duten artean salaketa mota ezberdinak egingo dituzte. Antolatzaileen esanetan "ezinbesteko eginbeharra jendarteari hau guztiau helaraztea eta kontzientziak piztea da. Hausnarketan eta ekintzan batu behar dugu munstro hau gelditzeko. Inoiz baino gehiago borroka zabaltzen jarraitu behar dugu".

> IKERKETA

### Autoetan 1 Formulako autoen segurtasuna ezartzeko lanean MU

Mondragon Unibertsitateko ikertzaileek autoetan 1 Formulako autoen segurtasuna erabiltzeko lanean dihardute. Hain zuzen ere, talken aurrean kalteari tolerantzia handiagoa dioten autoetarako konposatuak, 1 Formulan erabiltzen diren antzekoak garatzen dihardute.

Duela bi urte hasi ziren lanean eta lortu nahi duten helburuetako bat automobilgintza alorreko talka egituren kalkulua eta modelizazioa egitea da. Ikerketa 2011rako bukatu gura dute. Orduan egingo dute kaleko auto batekin talka proba, eta lau urtean egindako lanaren emaitza jasoko dute.

> IKASTAROA

### Merkatari txikiendako jardunaldia egingo du Mankomunitateak

Ingurumena babesteko neurriek enpresari ekar diezazkioketen onurei buruzko gogoeta egiteko jardunaldia antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak hilaren 16rako. Bailarako merkatari txikiendako eta zerbitzuen sektoreko enpresariendako jardunaldia egingo dute. Bi orduko saio egingo du ENEA enpresako Susana Torregaraik mankomunitateko egoitzaren bigarren solairuan.

Izena emateko edo informazioa eskatzeko bi bide dituzte interesatuek: 943 79 30 90 telefonora dei dezakete edo *enpresa@debagoiena.net* helbidera idatz dezakete.


ETXERA ITZULTZEAN
GEHIEN AURREZTUko
DUZUN TOKIA
Irabazi
6000 €
baino gehiago saritan
IRABAZI 6000 € BAINO GEHIAGO SARITAN
ETXERA ITZULTZEAN GEHIEN AURREZTUKO DUZUN TOKIA
Lortu ezazu parte hartzeko txartela (Merkataritza Parkean edo GB-n), 20€-tik gorako erosketa bat egin eta hurrengo sarien zozketan parte hartu ahal izango duzu:
1. saria 3.000 €
erosketa txarteletan
+ "eskolarako itzulera" pack bat
(motxila, ordenagailua eta txandala)
2. saria 2.000 €
erosketa txarteletan
+ "eskolarako itzulera" pack bat
(motxila, ordenagailua eta txandala)
3. saria 1.000 €
erosketa txarteletan
+ "eskolarako itzulera" pack bat
(motxila, ordenagailua eta txandala)
2009-ko abuztuak 28tik, irailak 26ra balio duen promozioa.
Oinarri guztiak, gure bulegoetan eskura daitezke.
IMAGEN21
Kontratuzkoak ez diren argazkiak
GORBEIA
ESKORIATZA 10 minutuan
ARRASATE 13 minutuan.
BERGARA 16 minutuan.
SORALUZE 21 minutuan.
EIBAR 23 minutuan.
GORBEIA
gehien aurrezten duzun tokia
Etxabarri Ibiña IRTEERA
AP - 1 EIBAR -GORBEIA (GASTEIZ)
LUXUS SPORT CARS - ISKIA - ULANKA - ZAPARRASTRILLO - CORTEFIEL - WOMEN'SECRET - DOUGLAS - CHARO DUARTE - SPRINGFIELD - PROMOD EL BROCHE - AUTOS GP - UNITEC MOVISTAR - ATENCIÓN AL CLIENTE CARREFOUR - VEGA - PRENSA - ESPACE COIFFURE - INMOBILIARIA GORBEIA WANAKA - ORO VIVO - GODO'S – SLIDE - TRIP BISUTERIA - KAVA - SPORTWELL - REC - LOS TELARES - PACO MARTINEZ - PIMKIE - GAME - SUN PLANET SWATCH - NATURA - VODAFONE - BIJOU BRIGITTE - ORANGE - ADMINISTRACION LOTERIA – ONCE - BARCELO VIAJES - ASERPLATA - VITAL KUTXA GRECIA - AMAZONAS - LA RAPA - CEYLAN CAFÉ Y TE - LAHORE - OSCAR G - MODAS ATENEA - EOLO 23 - FARMACIA - TRIP - FOOT LOCKER - SEPHORA M2 CAFETERIA - M2 - KURRUSKO - GAMBRINUS- OKETA - KEBAB - KIOSKO GOXOA - TÚNEL DE LAVADO - CARREFOUR - DECATHLON - BRICO DEPÔT MCDONALD'S - YELMO CINES GORBEIA 3D - NORAUTO - KING JOUET – MUEBLES MAX DESCUENTO – MERKAL CALZADOS - SPLAFF! - SAMIRA - CIMER

Terrorismoaren biktimen talde bat Bruselan izan da abuztuan; bisitaren helburua Euskadin mehatxatuta bizi diren pertsonen errealitatea Europan ezagutzera ematea izan da. Aritz Arrieta eta Miren Lana zinegotzi arrasatearrak izan dira tartean. Belgikako esperientziaz jardun dugu Aritz Arrietarekin.

**Aritz Arrieta** > PSE-EEko bozeramailea Arrasateko Udalean

# "Arrasateko alkate izatea da nire amets nagusia eta egia bihur daiteke"



Aritz Arrieta, Arrasateko udaletxean daukan bulegoan.

**ENEKO AZKARATE** > ARRASATE

**Aritz Arrieta PSE-EEko bozeramailea da Arrasateko Udalean, bi urteko esperientzia bakarrik izan arren zinegotzi moduan. 32 urte egingo ditu abenduan eta orain dela bost urte afiliatu zen PSE-EEra. Musakolarra da.**

**Zer moduz Bruselako esperientzia?**

Ondo. Oihartzun handia izan du gure bisitak hango hedabideetan. Hemen bizi dugun egoeraren berri emateaz gain, konpromisoa lortu dugu Europako erakundeen aldetik eta agindu digute gure benetako egoera zein den gertutik ezagutzeko handik hona etorriko direla ordezkari politikoak. PSE-EEko zinegotziak eta zinegotzi izandakoak joan gara, 13 lagun guztira. Bertako hiritar arrunten etxeetan egon gara bizi izaten, bisitatu ditugu Europako Parlamentua, Bruselako udaletxea, Espainiako enbaxada…

**Zer mezu zabaldu nahi izan duzue?**

Terrorismoari dagokionez, bi kontzeptu ezberdindu behar dira: batetik, ekintza terrorista bat izaten denean, biktimak izaten dira eta uste da hortxe amaitzen dela dena. Baina bada beste biolentzia edo terrorismo mota bat: jazarpenekoa. Eta hori existitzen dela aditzera eman nahi izan dugu. Mehatxatuta bizi garen milaka herritarrek jasaten dugu terrorismo mota hau. Gure eguneroko bizitzan eragina dauka, ez bakarrik gugan, baizik eta baita gure ingurunean ere. Europan jakinarazi nahi izan dugu Europako toki bakarra dela hau jazarpeneko biolentzia existitzen dena. Beste inon ez dauka bizkartzainik horrenbeste jendek.

**Zertan aldatu da Euskadi Patxi Lopez lehendakari denetik?**

Ajuria Eneko eta Lakuako ateak jendarteko eragile guztiei zabaldu dizkie. Ibarretxek egin ez zuena. Ekonomiari begira, ikusi da gauzak ez zeudela aurreko gobernukoek ziotena bezain ondo. Sozialistok ekonomia soziala garatu nahi dugu. Lehengoek ez. Eta, gero, kaleetan sinbologia terroristarik ez egoteko egin den ahalegina ere nabarmentzekoa da.

**Aurtengo udako kontua izan da: presoen kartelak kaletik kentzeko Jaurlaritzaren ahalegina…**

Demokrazian ezin dugu onartu kaleetan sinbologia terrorista egotea. Denok protesta egingo genuke sinbologia nazia egongo balitz kaleetan. Oso mingarria da guretako kaleak ikustea mehatxuzko pintadez edo terroristen argazkiz josita. Eta, gainera, demokraziaren aurkakoa izateaz gain, zikina da. Arrasateko kaleak, esaterako, oso zikin daude: ez dago ordenantzarik, ez da ezer egiten… Beharrezkoa da hori erregulatzea. Guk proposatu dugu ordenantza bat, alderdi guztion artean eztabaidatu eta onartzeko.

**Eta zure eguneroko bizimoduan zerbait aldatu da sozialistak Lakuan daudenetik?**

Patxi dagoenetik sinbologia terrorista gutxitu egin da kaleetan, baina kaleko presioa berdina da. Hori ez da aldatu. Bizkartzainekin bizi gara…

**Ze poztasun eta ze eragozpen sorrarazi dizu politikan sartzeak?**

Lau urte daroatzat bizkartzainekin, zinegotzi izan aurretik ere baneraman. Hori eragozpen handia da, segurtasunaren mesedetan errutina apurtu behar izan dudalako; beste herri edo hiri batzuetara joan behar dudalako aisialdian; txikitako lagunak galdu dituzulako; eztabaidak izan ditudalako etxean gurasoekineta, hauek abertzaleak direlako… Poztasunak, bestalde, asko: lagun berriak egin ditut beste toki batzuetan Euskaditik kanpo… Eta, onena: Arrasateren alde lan egitea; poztasun handia da, oso aberasgarria.

**2011. urtean izango dira udal hauteskundeak. Ze espero duzue?**

Sozialistok egotea Udal Gobernuan. Gustatuko litzaidake zerrendaburu izatea eta Arrasateko alkate izatea. Horixe da nire ametsa. Posible da PSE-EEk irabaztea hurrengo udal hauteskundeak Arrasaten. Azken hauteskundeetan, Europakoetan, lehen indarra izan gara Arrasaten, ezker abertzalekoen gainetik. Hori historikoa da. Udal hauteskundeetan eta Espainiako Gorteetarakoetan, azken honetan lehen indarra izanda, EAJri irabazi genion. Gainera, Arrasaten ondo gobernatuko genukeela uste dut. Ez dezagun ahaztu, 2011. urtean sozialistak egongo garela Madrilen eta Gasteizen gobernatzen, eta hori ona izan daiteke Arrasaterendako ere.

**Arrasateko alkate izango bazina zer egingo zenuke lehenbizi?**

Arrasate Debagoieneko hiriburua dela uste dut eta, alde horretatik, indartu egin beharko litzateke Arrasateren eragina eskualdean. Bestalde, Arrasateren irudia aldatzen saiatuko nintzateke. Orain liskarrekin lotzen da batez ere. Turismoari eta bertakoei begira, kaleak-eta garbi edukitzeko ekimenak bultzatuko nituzke, oraingo grisetik eta zikinkeriatik koloretako Arrasatera pasatzeko.

**Litekeena da legez kanporatutako ezker abertzalea legezko alderdi baten siglapean aurkeztea hurrengo udal hauteskundeetara.**

Ez dut posible ikusten. Estrasburgoko epaitegiak aintzat hartu du Espainiako Alderdien Legea eta lege marko horren barruan jokatu behar dugu. Hortik kanpo dagoenak ezin dezake hauteskundeetan parte hartu. ANVkoek azken atentatuetan

MEHATXUAK

**"Mehatxatuta bizi garen milaka herritarrek jasaten dugu jazarpeneko terrorismoa edo biolentzia"**

PRESOEN ARGAZKIAK

**"Ezin da onartu kaleetan sinbologia terrorista egotea; protesta egingo genuke sinbologia nazia egongo balitz kaleetan"**

ARRASATEN GOBERNATZEN

**"Arrasaten ondo gobernatuko genukeela uste dut; 2011. urtean sozialistak egongo gara Madrilen eta Gasteizen"**

ALDERDIEN LEGEA

**"ANVkoek azken atentatuetan izan duten jarrera ikusita, ez dut ikusten ezker abertzalea legezkoa izatea 2011n"**



ENEKO AZKARATE

izan duten jarrera ikusita, duten borondatea ikusita, ez dut posible ikusten ezker abertzalea legezkoa izatea bi urte barru.

**Rubalcabak esan du legez kanporatutako ezker abertzalekoak ezingo liratekeela aurkeztu ETAren ekintzak gaitzetsita ere. Zer diozu?**

Legeak esaten duena errespetatu behar da eta, bestalde, Rubalcabak hori esan badu zerbaitegatik izango da. Bi urte dute ETArengandik aldentzeko, atentatuak gaitzesteko, jarrerak aldatzeko... ikusi egin behar... Azkeneko San Juan jaietan, esaterako, danborrada udaletxeko plazara ailegatu zenean, presoen aldeko pankartatzarra zabaldu zuten gure muturren aurrean eta alkateak eta ANVko zinegotziek ez zuten ezer egin. Kentzen dituzte presoen argazkiak Portaloitik eta jartzen dituzte plazaren erdian, noiz eta San Juan jaietako danborradan, herritar guztiak bertan direnean. Oso mingarria da.

**EA ezker abertzalekoekin polo subiranoa sortzearen aldekoa da.**

Pello Urizar saltzen ari den ekimen hori utopia hutsa iruditzen zait. EAJk ezetz esan du, Aralarrek ezberdintasun handiak ditu horrekiko... EAk bakarrik egiten du horren alde apustu eta, gainera, berau zatitu egin berri da...

**Oker ez banago, ertzain izandakoa ere bazara politikan sartu aurretik. Zelan?**

Ertzain izateko hasierako oposizioak gainditu nituen eta Arkauten egon nintzen astebete. Uniformerako neurriak ere hartu zizkidaten, baina laga egin nuen, inoiz ertzain jantzi barik. Ikusi nuen ez zela gura nuena.

**Isaias Carrasco alderdikidea besoetan hiltzen ikusi zenuen. Bizitzako unerik gogorrenetakoa izango zen hura, ezta?**

Bai. Inoiz ez duzu imajinatzen atentatu batek hain hurbil ukituko zaituenik, horretarako *txartelak* izan arren. Grabatuta daukat egun hura. Normaltasunetik tragediara pasatu ginen bat-batean. 100 metrora geunden bazkaltzen, hauteskunde amaierako ekitaldi batean, arrosak banatzen kalean jardun ostean. Atentatutik gertu-gertu egon arren ez genuen tiro hotsik entzun, ezta bizkartzainek ere, haiek kalean zeuden arren. Horrek amorrua eman zidan. Atentatu haren ostean indar handiagoarekin eta gogotsuago sentitu nintzen politikan jarraitzeko.

**Arrasate ezberdina da Isaias Carraso hil zutenetik?**

Uste dut ez dela askorik aldatu. Saminak ematera ez zen guganа ia inor hurbildu. Kalean pertsona batek eman zizkidan eta udaletxean 300etik gora funtzionario daude, baina lauzpabost bakarrik gerturatu zitzaizkidan. Beldurra dago giroan. Beti esan izan dugu gure boto emaileak mamuak direla, ez ditugu ezagutzen. Ez gara kalean egoten gure boto emaileekin. Gurea bai dela boto sekretua! Eta hori karta ezberdinekin jokatzea dela uste dut. Ezin dugu egin mitinik hemen... Hala ere, Isaias Carrascorena gertatu zenetik, gora egin dugu botoтan. Orain ez gaituzte ikusten Martekoak izango bagina bezala. EAJko boto emaile askok guri eman digu botoa. Arrasaten, benetako alternatiba moduan ikusten gaituzte.

**Nahiago zenuke EAJrekin gobernatu PPren babesarekin baino?**

Uste dut gobernu koaliziorik eraginkorrena sozialiston eta jeltzaleen artekoa dela, batez ere udaletan; Arrasaten, esaterako.

**Zaila da ulertzea Espainian PP eta PSOE elkarri mokoka aritzea eta hemen akordiotara iristea gobernatzeko.**

Normaltasunez gabiltza lanean eta, gainera, Alderdi Sozialistaren programa gabiltza betetzen. Euskadin egoera berezian gaude, terrorismoaren gaiak batzen gaitu. Bestalde, 40 urtean egon da EAJ boterean eta uste dut momentua zela aldatzeko. Edozelan ere, beharrezkoa da EAJk babestea gure aurrekontua, aurreko agintaldian guk eurena babestu genuen bezala. Arduraz jokatzea izango litzateke.

**Zeinengandik dago hurbilago PSE-EE, PP ala EAJrengandik?**

Burujabetasunaren kontua alde batera uzten badugu, EAJ eta PPren programek antzekotasun handiak dituzte. Menditik jaitsiko balira, sanoagoa izango litzateke EAJrekin akordiotara iristea. Edozelan ere, lau urterako akordioa egin dugu PPrekin Gasteizen.

**Arabako Diputazioan EAJ kargutik kentzearen aldekoa zara?**

EAJ hirugarren alderdia da Araban. Hortaz, normaltasunez ikusiko nuke EAJri Araban diputazioa kentzea PPren mesedetan, hark irabazi zituen-eta hauteskundeak. Alderantziz izango balitz, EAJk ez luke edukiko eskrupulorik zentsura mozioa aurkezteko. Gainera, entzun dudanez, EAJ ez dabil ondo Arabako Diputazioan.

**ETAren amaiera gertuago ikusten duzu?**

Iaz esan nuen bospasei urteko iraupena ikusten diodala eta, egia den arren ordutik hona gauzak okertu egin direla, pentsatzen dut gertu dagoela ETAren amaiera. Egia da, hala ere, ETAkoen eskuetan dagoela hori. Gero eta baztertuago daude jendartean eta gero eta gutxiago dira terrorismoa babesten dutenak. Ezker abertzalekoen lana ezinbestekoa da ETAren amaiera gerta dadin.

**ETA desagertzearekin batera, normaltasun politiko eta soziala lortuko litzateke?**

Ez. Normaltasunera heltzeko, bazterketa sozialik ez jasateko, heziketa beharrezkoa da. Bestalde, ez dut uste arazo politikorik dagoenik. Hemen daukagun arazo bakarra da batzuk ezberdin pentsatzearren erailtzen gaituztela, Isaias Carrascori geratu zitzaion moduan.

**Zela baloratzen duzu Arrasateko oraingo Udal Gobernuaren lana?**

Ez dute ezer egin. Ez dute iniziatibarik. Aurreko agintaldiko proiektuak gauzatzen dihardute eta horietako asko, gainera, Zapateroren planeko laguntzekin gauzatzen dihardute. Berdin jarraitzen badute, lau urte galduak izango dira. Bestalde, tranbiaren proiektuak geldirik jarraitzen du eta badirudi Udal Gobernu honek ez duela tranbiaren aldeko apusturik egiten. Eta proiektu estrategikoa da bailararendako.

**Arrasateko eta Bergarako alkateak elkarrizketatzeko aukera izan dut eta diote tranbia nahi dutela, baina Jaurlaritzak jartzen dituela trabak.**

Aurreko Jaurlaritzak ez zeukan ezer aurreratuta tranbiaren gainean, proiektua moteldu ta zeukan. Eta, bestalde, Arrasateko eta baita Bergarako alkateek ez dute nahi tranbiarik. Ostera, Alderdi Sozialistak tranbia bultzatu nahi du Debagoienean.

**Iñaki Arriolak aipatu ditu Donostiarako metroa, AHT, Euskotren... baina Debagoienerako tranbiarik ez.**

Horren aldeko apustua egiten dugu eta, gainera, uste dugu Madrildik ere etor daitekeela dirua horretarako.

POLO SUBIRANISTA

**"Pello Urizar saltzen ari den ekimen hori utopia hutsa da; EAk bakarrik egiten du horren alde eta berau zatituta dago"**

ISAIAS CARRASCO

**"Atentatu haren ostean indar handiagoarekin eta gogotsuago sentitu nintzen politikan jarraitzeko"**

BELDURRA

**"Beldurra dago giroan; beti esan izan dugu gure boto emaileak mamuak direla, ez ditugu ezagutzen"**

GOBERNU KOALIZIOAK

**"Koaliziorik onena sozialiston eta jeltzaleen artekoa da, batez ere udaletan; Arrasaten, esaterako"**

ETA-REN AMAIERA

**"Iaz esan nuen bospasei urteko iraupena ikusten diodala ETAri eta uste dut gertu dagoela haren amaiera"**

TRANBIA

**"Arrasateko eta Bergarako alkateek ez dute nahi tranbiarik eta aurreko Jauraritzak albora utzita zeukan"**



zabalik

Manu Arregi

# Marte, Ilargia bezala

Bi ilargi ikusi omen behar ziren abuztuaren 27an. Horrela zioen posta elektronikoz eta sare sozialetatik azken hilabeteetan hainbeste zabaldu den istorio batek. Marte Ilargia bezain handi ikusi behar zen. Ez da inoiz gertatuko, ezinezkoa baita.

Birziklatutako e-maila da berez, 2003an zabaldu zelako lehen aldiz. Urte hartan, abuztuaren 27an, Marte azkeneko 60.000 urteotako distantzia minimora aurkitzen zen, 55 milioi kilometrora, zenbaki borobiletan. Marte bi urtetik behin jartzen da Lurraren parean bere orbitan eta e-mail hau ere artistaren batek dantzan jartzen du maiztasun berarekin.

Bale, orain ez, baina posible al da horrelakorik gertatzea? Martek eta Lurrak orbita eliptikoa dute eta orbita hauen arteko distantziarik laburrena aipatutako 55 milioi kilometro inguru da. Ilargia 400.000 kilometro ingurura dago. Marteren diametroa Ilargiarenaren bikoitza izanik, zuek uste duzue posible izango dela inoiz Marte Ilargia bezain handi ikustea? Gauza ona ere ez zen izango. Marte honantz etorriko balitz, itsasoko mareak hankaz gora jarri eta Lurra eta Ilargiaren orbitak aldatuko zituelako. Ezinezkoa da ondorioak aurresatea, baina ziur aldaketak izugarriak izango zirela.

**"Marte Ilargia bezain handi ikusi behar zen; ezinezkoa da"**

Antzinako kontua da buloena. Biblia da askoren iturri, ez liburuagatik beragatik, han jartzen duenari emandako interpretazioagatik baizik. Andreas Vesalius-ek (1514-1564), anatomia modernoaren aita, gizon eta emakumeak saihets kopuru bera dugula frogatu zuen. Jainkoak Adanen saihets bat hartuta Eva sortu zuenez, gizonok bat gutxiago genuela uste zen!

Hala ere, badaki astronomiak, noizean behin, ikuskizun zoragarriak ematen. Gutxitan gozatu dut aurtengo abuztuko Perseidekin beste. Familiarekin belarrean etzanda, polita izan zen nire seme txikiei zenbat izar *erortzen* ziren zenbatzen ikustea. Ikusi zenituzten?

usteak uste

Larraitz Zeberio

# Murrizketa larregi Osakidetzan

Formak dira gustatu ez zaizkidanak. Uda aprobetxatuz Osakidetzak ume txikien hainbat kontrol kentzea erabaki du –txertorik gabekoak–, eta hitzordua genuen hainbat lagunek kontsultan bertan izan dugu horren berri. "Ez dizue inork ez etortzeko abisurik eman?", entzun behar gainera. Ba ez!

Azkenaldian murrizketa larregi antzeman ditut Osakidetzan. Nire esperientziaren arabera, ginekologia eta pediatria zerbitzuetan. Atzo berebiziko garrantzia zuena gaur soberan dago.

marrazkiz

Unai Busturia




blog-top

# ETA, ETA eta ETA

Juan Luis Zabala
www.berria.info/blogak/zabala

Ez dakit zehazki noiztik / naizen ETAkoa, / ez dakit zehazki noiztik / nagoen ETAren aurka.

Baina ETAkoa naiz / eta ETAren aurka nago.

Ez dakit zehazki zergatik / naizen ETAkoa, / ez dakit zehazki zergatik / nagoen ETAren aurka.

(Baina ETAkoa...)

Ez dakit zehazki noiz arte / izango naizen ETAkoa, / ez dakit zehazki noiz arte / egongo naizen ETAren aurka.

(Baina ETAkoa...)

Ez dakit zehazki zertarako / naizen ETAkoa, / ez dakit zehazki zertarako / nagoen ETAren aurka.

(Baina ETAkoa...)

Ez dakit zehazki zer den / ETAkoa izatea, / ez dakit zehazki zer den / ETAren aurka egotea.

(Baina ETAkoa...)

Ez dut ETAkoa / izateko batere gogorik, / ez dut ETAren aurka / egoteko batere gogorik.

(Baina ETAkoa...)

# Seme-alabekin euskaraz hitz egiten

Joxe Aranzabal
www.goiena.net/blogak/faroa

Gure seme-alabak laster itzuliko dira eskolara. Eskolara bueltatu bai, baina gero gutxi hitz egiten dugu eurekin zelan doazkien gauzak eskolan. Askotan eurek ez dutelako gogo handirik izaten, eta beste askotan gurasook ez dakigulako nondik hasi. Hori gogoan, Will Richardson pedagogoak hainbat galdera prestatu ditu ikasturte honetan bere semealabekin erabiltzeko. Hona ekarri ditut (...):

Ezer esanguratsurik egin duzu gaur? Zer ikasi duzu gaur munduaren gainean? Zeinekin diharduzu lanean? Zerk harritu zaitu? Zer egin dute irakasleek zurekin? Baduzu galderarik erantzun barik oraindik? Zelan aldatu duzu mundua?Zer ikasi dute gaur zure irakasleek? Zer partekatu duzu munduarekin? Zertaz jakin nahi duzu gehiago? Zer gustatu zaizu gaur? Zerk eragin dizu barrea?

koplak

Eñaut Uriarte

# Lagun bati

Tarte hau hartu nahi /
neuke bada
norbaitez akordatzeko
ondo ez dagon lagun bateri
animuak emateko.

Guri askotan hasi jaku bai
asko egonda pentsatzen
gure lagunak bere barnian
noraiño daben sufritzen.

Operaziño batzuk ein dotze
bera hobetze aldera
baina gauza da oraintxe
bertan
aurkitzen dala antzera.

Muletarekin gora ta bera
dabil kalian barrena
zoritxarrian tokatu jako
bizitza nahiko herrena.

Mutil hau oindik nola daguan
jentiak balu jakingo
estetikako operaziorik
zihur ez leukela eingo.

Euri malkotan dago zerua
zuen bizitzan gañian
baina eguzkia aterako da
bera sendatzen danian.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria


2009ko abuztuaren 27tik irailaren 2ra arte produktu freskoetan. Irailaren 5era arte gainerako eskaintzetan.
www.eroski.es
Zuk esandakoa entzun egingo dugu:
902 54 03 40
EROSKI
40 urte zurekin
3×2
ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2
Mantekado batek (38g) dauka
KALORIAK 171 %9
AZUKREAK 10,1 g %11
KOIPEA 9,1 g %13
KOIPE SATURATU 1,5 g %7
GATZA 0,3 g %4
pertsona heldu batentzako
Eguneko Gutxi Gorabeherako Kopurua (EGK)*
3×2
ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2
UNITATE
UNITATE 1 EROSTEAN
1,75€
1,17€
Mantekadoak EROSKI, 600 g
10 puntu gehiago
Timotei
IGUALES O COMBINADOS
3×2
ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2
UNITATE
UNITATE 1 EROSTEAN
2,95€
1,97€
TIMOTEI, xamua, askotarikoa, 400 ml
merkeena
Aurreztu %30eraino adierazitako produktuekin
EROSKI eskaintzak hilaren bukaerara heltzeko: Ehunka produktu eskaintzan
3×2
Orain honako txartelarekin
ordaindu epe honetan
honakoan egindako zure erosketa guztiak EROSKI
3 HILABETEAN INTERESIK* GABE
TAE: %8,19 komisioa %1
* Santander Consumer Finance S.A.k finantzatu eta onetsi beharreko EROSKI re Visa txartelaren bitartez. Finantzaketa 3 hilabetean. Urteko interes-tasa nominala %0. %45€tik gorako erosketetarako. Ordainketa geroratzeagatik lehenengo kuotan ordaindutako komisioa %1. Ordainketak kitatzeko data hil bakoitzaren 5ean. UTB aldatu egin daiteke kontratazio-egunaren arabera. 2009ko irailaren 30era arte balio du. RBE: 2864/09.
EROSKIk diruz lagundutako interesak.

# Konponbidea Debagoieneko eskualdeko ospitalearen sarreretarako

**Juan Carlos Garitano**
Arrasateko EAJ-PNVren
Uri Buru Batzarra)
Arrasate

Arrasateko anbulatoriora eta Eskualdeko Ospitalera ezinduak edo adinean aurrera doazenak eramaterakoan, nekeza gertatzen da norberaren automobilarekin joatea. Benetako odisea da pertsona hauei bi zentro horietara laguntzea.

Ez da posible gaixoak bertaraino automobilean eramatea, ospitalean sartzeko aldi baterako aparkatzea eta, gero, gertu dagoen aparkalekuku batean aparkatzea.

Izan ere, ez baitago horretarako prestatutako tokirik gaur egun dauden beharrei erantzuteko. Egoera hau are eta zailagoa da euria egiten duenean, kaosa izateraino inguru horretan.

Eskualdeko Ospitaleak zerbitzu ematen die Debagoienako herrietako bizilagun guztiei eta motordun garraioa (publikoa eta pribatua) beharrezkoa da herritarrak bertaratzeko.

Zer aurreikuspen egin ditu Arrasateko Udaleko gobernu batzordeak arazo hauek ez sortzeko? Ez al du aurreikusi Eskualdeko Ospitale berria eta sarrerak urbanizatzen ziren bitartean egoera honetara iritsiko ginela?

Arazoari eman zaion erantzuna ulergaitza gertatzen da egingarriak diren zenbait konponbide daudelako:

1. Zergatik ez dira egokitu Zerrajera eremuko E eta F partzelak (890 m2 eta 2.300 m2) aparkalekuak egiteko, harik eta urbanizazio lanak bukatu arte?

2. Zergatik ez dira egokitzen aldamenean VIVESAk eraiki zituen babes ofizialeko etxebizitzetako lurpeko 134 aparkalekuak txandaka erabiltzeko moduan?

3. Zergatik ari da atzeratzen aldamenean ezkerretara dagoen Zalduspeko barne-eraberritzeko plan berezia idaztea?

4. Are gehiago, Kutxaren Etxegi XXI programarako utzitako D partzelaren zati bat (5.307 m2) gaur egun libre dagoen lurzorua da.

Konponbide horietako edozeinek egokiera emango zuen Eskualdeko Ospitalera ezindu bati laguntzeko organizatu beharrak dakarren trauma ekiditeko. Bi lagun behar dira horretarako, bata automobila eramateko eta, bertaratu ondoren, ahal den tokian aparkatzeko, eta, bestea gaixoari laguntzeko sendagilearengana..., eta beste horrenbeste bukatu ondoren.

Batzuek, halako zailtasunak ikusita, anbulantziari deitzen diote, aukera hori ere hor baitago. Baina anbulantzia gehiegitan erabiltzen bada muga asko ez dituzten gaixoekin, arriskua dugu behar larriei egoki ez erantzuteko, eta hori onartezina izango litzateke.

Hori guztia dela eta, EAJ-PNV-k Arrasateko Udal gobernu-batzordeari exijitzen dio mobilizatzeko eta urgentziaz erabaki dezala arazo honi konponbide arin eta azkarra ematea.

# Aretxabaletako bolatokixa

**Anjel Bergaretxe**
(Udal hautetsia)
Aretxabaleta

Azken Andramaixetan, pertsona batek esaten zidan bola txapelketa botatzen duela faltan jaietan. Egia da, bolatokia egin zenetik, ez duela aktibitate handirik izan. Baina ez da beti horrela izan. Duela 20 bat urte, bolatokiak susperraldi bat ezagutu zuen: lehiaketak, Gipuzkoako txapelketako saioak, haurrekin ikastaroak... Ia astero zegoen zerbait bertan.

Hau guztia, jakina, ez zen berez sortu. Atzetik pertsona talde bat ibili zen, euren denbora (eta dirua kasu askotan), hutsaren truk eskaintzen. Talde horren motorra hiru pertsona izan ziren: Iñaki Berasaluze, Andres Etxebarriarteun eta Kepa Urra. Lehen biak heriotzak eraman zituen, eta hirugarrena Estatuaren hatzaparretan dago, Almeriako espetxean, hain zuzen ere.

Urteetan, Keparen marrazki bat egon da bolatokiaren horman, bere militantziaz at (honi buruz, argi dauden arrazoiengatik ez dut ezer esango), toki horrekiko eta, orokorrean, Atxabaltarekiko zuen konpromisoa irudikatuz eta Euskal Herrian egoteko duen eskubidea aldarrikatuz.

Baina marrazki horrek traba egiten zion PSOEri, ez baitator bat euskal militanteez saldu nahi duten irudiarekin. Eta abuztuaren 24an, irudi hori grisez (esanguratsua eta egokia kolorearen hautaketa) estalita aurkitu dugu. Goebbels maisu hartuta, hor dabiltza azken hilabeteetan, gezurrak errepikatuz edota errealitatea ezkutatuz, errealitate hori aldatuko delakoan. Ez dute oraindik ikasi errealitatea tematia dela... eta baita euskaldunok ere.

Ez dakidana da irudia ezabatzeak aseko duen "demokraten" mendeku nahia ala haratago joan gura izango duten. Kepa torturatu zuten guardia zibilei Atxabaltako kale bat eskaintzeko eskaria eginez, adibidez. Torturatzaile horien indultuaz hasitako bidea politto borobilduko lukete horrela.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Telefonoa:
943 25 05 05
Faxa:
943 25 05 12
Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



iKER
**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

# Herriak

**Arrasate** > 14-18 **Bergara** > 19-22 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
**Eskoriatza** > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33



**> ARRASATE**
Garibai etorbidea berriz itxi dute automobilendako, lehen bezala **> 14**



**> ESKORIATZA**
Igerileku eta dutxetatik jasotako ura lorategietarako erabiliko da **> 28**



**> ANTZUOLA**
Zabor mordoa kendu dute errekatik, gazteen eskutik **> 30**



**> LEINTZ GATZAGA**
Gatzez egindako jakiak emango dituzte etzi herriko jaietan **> 35**

**OÑATI** > MERKATARITZA

# Dendariak eta Udala pozik daude udako kanpaina zelan joan den

**IAZ BAINO GEHIAGO**
Abuztuan komertzioa zabalik izateko dirulaguntza kanpainan 113 dendak parte hartu dute aurten; iaz, 82k

**BITXIKERIA**
Krisia eta guzti, aurreikusi baino jende gutxiago geratu da herrian; Arrasaten eta Bergaran ere halaxe gertatu da



Txantxiku, Haritza, Arregi (*Juanitosa*), Urtaza (*Kirrin*), Olalde (*Sillero*) eta Chic dendetako arduradunak; denok abuztuan zabalik izan dute denda. LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI
Merkatariek abuztuan dendak zabalik izan ditzaten animatzeko, bigarren urtez dirulaguntzak eman ditu Oñatiko Udalak, eta balorazio zehatzak herriko jaien ostean egingo dituzte Txandak, merkatarien elkarteak, eta Oñatiko Udalak, baina lehenengo inpresioa ona da biondako. Hala, Txandako presidenteak, Jesus Odriozola harakinak, esaten du neurria "positiboa" dela eta, oro har, Txandakook pozik daudela aurtengo kanpaina zelan joan den.

Aurten, 113 merkatarik hartu dute parte, iaz baino 31 gehiagok; gremio aldetik, nabarmentzen da taberna, jatetxe eta hotelena (32 egon dira zabalik); arropa-denda, oinetako-denda eta mertzeriak (12); eta ile-apaindegi eta estetika zentroak (10). Bestalde, berritasun moduan, emandako zerbitzuaren araberako dirulaguntzak banatu dira aurten: abuztu osoa, egun osoz ireki dutenei (58 izan dira), 625 euro eman die Udalak; bi aste jarraian ireki dutenei, egun osoz (21), 350 euro; eta abuztu osoa, goizez ireki dutenei (34), 300 euro.

**HERRITARREN ESKAERAK**
Zenbait herritarren kexua izan da, hain zuzen, hainbat komertzio zabalik egon direla abuztuko lehen astean eta azkenekoan, hau da, lehen ere askok egiten zutena, hil erdian zerbitzua eman barik, baina artean dirulaguntza jasota. Horren harira, alkateak, Lurdes Idoiagak, azpimarratu du bi aste jarraian irekitzea zela baldintza: "Abuztuko lehenengo eta azkeneko asteetan ireki duten komertzioek ez dute dirulaguntzarik jasoko", esan du.

Bestalde, arratsaldez gabezia sumatu dutenak ere badaude, goizez bakarrik irekitzeko aukera egin baitute dendari askok. Alkateak azaltzen duenez, "beti falta izango da zerbait"; eta gogorarazi du supermerkatu gehienak zabalik egon direla arratsaldez.

**SEKTORE BATZUK, BEREZIKI ONDO**
Oñatiko Udalak ere iritzi ona dauka: "Bigarren urtea izanda, oñatiarrok bazuten honen ohitura, eta erosketak polito joan dira. Horrez gain, bost lanpostu sortu dira, merkatariok ordezkoak edo laguntzaileak hartu dituztelako", esan du alkateak. "Hala ere, guk espero baino jende gutxiago geratu da herrian".

Odriozolaren iritziz, "abuztua lau astekoa izanak eragin du: jendea lehenago joan da eta lehenago etorri da; harakinok iaz baino jende gutxiago izan dugu". Arropa-dendek, mertzeriek, ile-apaindegiek… horiek, ordea, bezero asko izan dituzte; Chic arropa-dendako Irma Juaristik esan duenez, "egun osoz ireki dut, eta jende asko etorri zait; oso pozik nago". Paper-dendek, bazarrek, zapata-dendek… ere lan handia izan dute.

Bestetik, dirulaguntza "ondo" datorrela, baina "ekarpen txikia" dela esaten du abuztu osoan zabaldu duen Ongi taberna eta hoteleko Mikel Bolinagak: "Guk 600 euro jaso dugu; ez da asko, baina behin zabalik izanda, ondo dator, jakina". Erdialdeko taberna gehienak zabalik izan dira, baina jatetxeei dagokienez, ireki duten gehienak Arantzazura bidekoak dira.

ESANAK

## "Abuztuko lehenengo eta azkeneko asteetan ireki duten komertzioek ez dute dirulaguntzarik jasoko"

**Lurdes Idoiaga** > Alkatea

## "Jende gutxiago ibili da, eta akaso, lau asteko abuztua izateak eragin du: lehenago joan eta lehenago etorri da"

**Jesus Odriozola** > Txanda elkartea

DEBAGOIENA

## Beste herrietan, urtero bezala

Ohitura da abuztuko lehen eta azken astean izatea denda gehienak zabalik, eta erdiko asteetan ixtea, supermerkatuek edo lehen premiazko denda batzuek izan ezik, eta hori gertatu da Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan. Arrasateko Ibai Arte merkatarien elkarteko Arantza Arantzabalek dioenez, "jakina, geratzen direnek gura dituzte denda guztiak zabalik, baina hori da ere gure garaia oporrak hartzeko". Oñatiko Udalaren ekimena ondo iruditzen zaio: "Hemen ere laguntzak izanda, seguru dendari gehiagok irekiko luketeela".

Bergarako Raizabal gozotegiko Marian Rodrigok lan egin du, eta esan du "goizean, zerbait, baina beste urte batzuetan baino jende gutxiago" ibili dela herrian.



Automobilendako sarrera itxita izan arren, oraindik askok ez dute kasurik egiten. .U.M.

**ZERBITZUAK** > IGOGAILU PUBLIKOAK

# Garibai etorbidea itxita ibilgailu orokorrendako

## Ezustekorik ezean, Otalora Lizentziaduna kalea ez dute berriro itxiko igogailuen obrengatik

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Oraingo astean aldatu dituzte seinaleak, Garibai etorbiderako sarrera baimentzen zutenak. Bestela esanda, oraingo asteaz geroztik berriro ere debekatuta dago Garibai etorbidea zeharkatzea automobilarekin. Bakarrik sartu ahal dira autobusak, uztailera arte moduan.

Era berean, Garibai etorbidea lehengora bueltatzeak esan gura du Otalora Lizentziaduna kalea (uztailean itxi egin zuten 1. zenbakitik 7. zenbakirainoko zatia) zabalik dagoela automobilendako. Beraz, hortik bideratuko da Arrasate barruko zirkulazioa.

**LANIK HANDIENAK, EGINDA**

Aldaketa horien arrazoia Ferixalekuko igogailua eraikitzeko lanak izan da. Besteak beste, garabi berezia erabili behar izan dute obrako lanik handienak egiteko, eta, hori ipintzeko, itxi egin behar izan dute Otalora kalea

Kontuak kontu, igogailu horri dagozkion "obrarik handienak" bukatu dituzte. Hori horrela, obrak "bide onetik" doazela kontatu du Udalak; ikusi ere, nahiko aurreratuta ikusten dira obrak; adibidez, igogailuaren bigarren zatiaren kutxaren kristalak dagoeneko ipinita daude.

**URTE AMAIERAN, EZ LEHENAGO**

Edozelan ere, udal ordezkariek argi utzi gura dute Ferixalekutik Altamirarainoko igogailuak ez direla erabilgarri egongo urtea bukatu arte: "Asko aurreratu dira lanak abuztuan, hori egia da, eta baliteke obrak irailaren amaierarako bukatuta izatea; edozelan ere, aurreikuspena zen igogailuak urte bukaera inguruan ipintzea martxan, eta data horietan oinarritzea egokiagoa da, bestela, herritarrak egongo lirateke zain, eta oso erraza izaten da atzerapenak gertatzea", azaldu dute Hirigintza Sailetik.

Are gehiago, Udaleko Obra eta Zerbitzu Sailetik dagoeneko abisatu dute, lan handienak eginda egon arren, bestelako asko falta direla egiteko: "Bizkaia etorbideko igogailuarekin pasa zitzaigun moduan, beste honetan ere xehetasun asko ipintzea falta da oraindik".

**BI ZATI DITUEN IGOGAILUA**

Ferixalekua-Altamira igogailu publikoa Otalora Lizentziaduna kaletik ateratzen da, Uarkape frontoiaren ondotik, dagoeneko ikusten den moduan. Gernika oinezkoen pasealekuraino iritsiko da igogailuaren lehen zatia. Hori horrela, gaur egun han dagoen igogailua, Emakume Txokoan dagoena, kendu eta igogailu bakarra utziko dute erabiltzaile guztiendako.

Igogailuaren bigarren zatia, berriz, Gernika Oinezkoen Zumarditik atera eta Jose Luis Iñarra kalearen 32. zenbakiraino iritsiko da.

Igogailu erabat bertikala izango da eta zortzi lagunendako lekua izango du.

**OBRAK** > EAJ-REN ESKAERA

# Ospitaleko egoerarendako konponbidea eskatu du EAJk

## Aparkalekuak egokitzeko irtenbideak proposatu dituzte; Udal Gobernua aztertzen ari da

**U.M.** > ARRASATE

Arrasateko Udaleko EAJ taldeak "konponbidea" eskatzen du "Debagoieneko Eskualdeko Ospitalearen sarreretarako". Salatu dute anbulatoriora edo ospitalera "ezinduak edo adineán aurrera doazenak eramaterakoan, nekeza" gertatzen dela "norberaren automobilarekin joatea". EAJren esanetan, "benetako odisea da pertsona horiei bi zentro horietara laguntzea". Azpimarratu dute ez dela posible "gaixoak bertaraino automobilean eramatea edo ospitalean sartzeko aldi baterako aparkatzea"; eta egoera zaildu egiten dela "euria egiten duenean, kaosa izateraino".

Horren aurrean, EAJk hainbat irtenbide proposatu ditu; oro har, inguruan dauden gune batzuk egokituta aparkalekuak ipintzea. Eta Udal Gobernuari "exijitzen" dio "mobilizatzeko eta urgentziaz erabaki dezala arazo honi konponbide arin eta azkarra ematea".

Udal Gobernuari galdetuta, jakinarazi dute EAJren proposamena aztertzen dihardutela.



Aparkaleku arazo handia eragin dute ospitaleko obrek. U.M.

MEHER

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.
Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**INGURUMENA** > ORTU EKOLOGIKOAK

# Gaur banatuko dira Garagartzako 80 ortu ekologikoak

Zozketa 13:30ean da udaletxeko osoko bilkuren aretoan; ortuak urri hasieran banatuko dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Gaur bertan izango dute jabea Garagartzako ortu ekologikoek, 13:30ean egingo baita zozketa udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 80 ortu zozketatuko dira, 177 herritarren artean. Hasieran ortuak bi multzotan zozketatzekoak ziren: 40 ortu lehenago Arrasaten ortua bazutenen artean eta gainerako 40ak eskakizuna bidali zuten herritarren artean. Baldintzak bete ez dituzten 14 eskaera ere jaso dira.

Hala ere, aurrez ortua dutenetatik lauk edo bostek bakarrik eman zuten izena. Hala, Ingurumen Sailak jakinarazi duenez, "horiek zuzenean adjudikatuta" izango dituzte ortuak. Eta multzo horretan soberan geratu diren ortuak beste herritarren artean zozketatuko dira. Hau da, 75 ortu zozketatuko dira gaur 177 eskatzaileren artean.

**JABEEK, IKASTAROA LEHENAGO**

Zozketan ortua irabazteko zortea dutenek urri hasieran jasoko dute euren ortua. Ortuetako bat eskuratzen dutenek asko jota 20 urtean erabili ahal izango dute. Hori bai, ortuak erabiltzen hasi aurretik ikastaroa egin beharko dute ortu horiek modu ekologikoan lantzen ikasteko. Bada, ikastaroa nork eman, noiz, non eta bestelakoak lotzen dihardute Udalean.

DATUA

**183**

ESKATZAILE GUZTIRA

183 lagunek eskatu dute ortua. Horietatik seik aurrez zuten ortua, eta, beraz, zuzenean emango zaie. Gainontzeko 177ek zozketari itxaron beharko diote.

**JENDARTEA** > GAZTETXEA

# Abuztuan lan, ikasturte berriari aurre egiteko

**J.B.** > ARRASATE

Urtero moduan Arrasateko gaztetxeak ez du oporrik izan abuztuan, eta gaztetxean dihardüen gazte talde batek abuztua aprobetxatu du obrak egiteko. Lanon artean garrantzitsuenak agertokia aldatzea eta margo lanak izan dira. Hala, agertokia guztiz aldatu dute, jakinarazi dutenez, "duela bost urte egurrak aldatu barik eta usteldutа" zeudelako. Horrez gain, beltzez margotu dute agertoki osoa eta oihal beltza ere jarri diote.

Bestalde, hainbat margolan egin dituzte. Horien artean nabarmentzekoa da gaztetxearen atarian Biona taberna mitikoari egin dioten omenaldia.



Abuztuan lanean aritu diren gazteak, gaztetxeko atari itxuraldatuan. J.B.

**BIHAR, IKASTURTEARI HASIERA**

Abuztuan ibili den taldea pozik agertu da, diotenez, "bi helburu nagusiak bete direlako: agertokia aldatzea eta ataria txukuntzea".

AGAKOk bihar emango dio hasiera ikasturte berriari. Horretarako, Never Surrender taldeak 108. kontzertua eskainiko du. Kontzertu berezia izango da, sorpresa eta garagardoz betea –120 litro garagardo doan banatuko dira.

**EKONOMIA** > ENPLEGUA

# Abian da enpresa ekintzaile langabeendako ekimena

**J.B.** > ARRASATE

Arrasateko CEI-Saiolanek eta Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailak enpleguari buruzko ekimena jarri dute martxan: Sustapen Aktiboaren Plana, hain zuzen ere. Programa Arrasate eta inguruko herrietako langabeen artean egon daitezkeen enpresa ekintzaile potentzialei dago zuzenduta.

**IRAILAREN 11RA ARTE**

Informazio gehiago gura duenak Saiolanera edo Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailera jo behar du. Izenemate epea irailaren 11n amaitzen da eta partehartzea doakoa da.



nire bidaia hura

## Iago Gascon

Japonia > 2009ko udan

# "Tokioko ostatutik kalera irten aurretik, arnasa hartu eta oihanera nindoala sentitzen nuen"

**U.M./JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Japonian egon da abuztuan Iago Gascon arrasatearra. 16 egun egin ditu Asiako herrialdean eta oso gustura ibili dela esan digu.**

Japoniak aspalditik erakarri du Iago Gascon gazte arrasatearra. Handik datorren kultura oso gustuko du –komikia eta zinema batez ere– eta interes handia zuen herrialdea ezagutzeko. Eta adierazi duenez, "uda honetan animatu naiz".

Hortaz, lehen aldia izan da Japonian egon dena. Eta ez hori bakarrik; jakinarazi duenez, "lehen aldia izan da Europatik irten naizela eta bakarrik bidaiatu dudala". Ezin bidaia aberasgarriagoa izan da, beraz.

**BERTAN MUGITZEA, ERRAZA**

Japonian igaro dituen 16 egunetan Gascon ez da geldi egon. Astebete egin zuen Tokion eta gainontzeko egunak beste hiri batzuk ezagutzen pasa zituen; Kioto –lehengo hiriburua– eta Osaka, besteak beste. Gasconek Japoniako garraio publikoa oso garatuta dagoela nabarmendu du: "Garraio publikoak oso ondo funtzionatzen du eta oso erraza eta bizkorra da barruan mugitzea".

**KONTRASTEA ETA TOKIOKO 'OIHANA'**

Gazte arrasatearrak aditzera eman duenez, "Japonia kontrastez beteriko herrialdea da. Kioton, adibidez, leku berean tenplu zahar bat eta kristalezko izugarrizko eraikin bat aurki daitezke". Gaineratu duenez, "kalera irtetea abentura hutsa da". Tokion pasa zuen astean, bestalde, Gasconek esan digunez, "ostatutik irten aurretik arnasa hartu eta oihanera nindoala sentitzen nuen". Hala ere, auzotik auzora egoera aldatu egiten dela dio: "Erdialdean dena da eraikin handia, New Yorkeko Bosgarren etorbidearen antzekoa da oso. Baina bertatik irtenez gero, eraikinak txikiagoak dira, eta lasaiagoa da".



Iago Gascon.

**EZBERDINAK, BAINA JATORRAK**

Japoniarrak oso ezberdinak direla dio Gasconek. Gu baino indibidualistagoak dira, baina baita askoz garbiagoak ere. Eta gainera, laguntza beharrean aurkitzen den kanpotarrari laguntzeko gertu daude. Azkenik, segurtasun handia dagoela dio Gasconek.



Tokioko eraikin zahar eta berrien arteko kontrastea.

txutxu-mutxua



GOIENKARIA

## Arrasateko Fagor Ederlaneko langileek agur esango diote Maribel Etxeberriaren plater goxoei

**32 urtez Fagor Ederlaneko sukaldari lanetan aritu ostean, joan den uztailean erretiratu zen Maribel Etxeberria arrasatearra. Jangelan jaten duten lankideek jakinarazi dutenez, plater goxoez gain, faltan igarriko dute haren "umore ona eta zirikatzeko gaitasuna".**

oharrak

ERLIJIOA

**> Arantzazura erromesaldia**

Aspaldiko ohiturari eutsiz, datorren irailaren 13an, Gipuzkoako Ama Birginaren egunaren hurrengo igandea denez, Arrasateko eliztarrek erromesaldia egingo dute Arantzazura. Ibilaldi osoa oinez egingo dutenak 06:30ean abiatuko dira Kontzezino kaletik. Bestalde, autobusez joateko aukera ere badago, Garibaitik 09:00etan irtenda –Gesaltzaraino–. Bidaia txartelak salgai daude Ecuador Bidaiak dendan. Bi espedizioek Gesaltzan egingo dute bat, Arantzazurainoko bidea elkarrekin egiteko.

OSPAKIZUNAK

**> 1959an jaiotakoen bazkaria**

1959an jaiotako arrasatearrek bazkaria egingo dute datorren azaroaren 14an. Bazkaria 14:30ean izango da Sara merenderoan. Izena eman nahi dutenek 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako 2101 0055 65 0127019156 kontu korrontean irailaren 24a baino lehen, izena eta abizena adierazita.

IKASTAROA

**> Tai txi ikastaroa**

Irailaren 8tik aurrera tai txi ikastaroa Rafael de la Mazaren eskutik. Informazio gehiagorako deitu 679 64 24 91ra.




ARITZ
erreformak
sukaldeak
Tel.: 943 03 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 ARRASATE
www.kuchenworld.es
- Sukaldeen zaharberritzeak
- Gremioen koordinazioa
- Orma-armairuak, zoruak, ateak eta leihoak.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**MUSIKA** > HEZKUNTZA

# Haurrei zuzendutako musika tailerra Goikobaluren eskutik

4 eta 5 urteko haurrei zuzendutako musika tailerra irail erdialdean hasiko da

Iaz, 70 neska-mutikok hartu zuten parte; musika-zaletasuna piztea da helburua


Goikobaluko taldeek ikasturte berriari ekingo diote datozen egunotan. GOIENKARIA

**A. ARANBURUZABALA/E.M.** > ARRASATE
Joan den ikasturteko arrakasta ikusita, 4 eta 5 urteko umeei zuzendutako musika tailerra antolatu du Goikobaluk aurten ere. Iaz, 70 haur ibili ziren martxotik aurrera, bi taldetan banatuta, eta ikasturte amaieran, ekainean, emanaldia egin zuten Maialen Gonzalez irakaslearekin jardundako neska-mutikoek.

Izenematea zabalik dago eta interesatuek Goikobaluk Zaldibarren, Saiolango eraikinean duen lokalera jo dezakete. Oraindik eskolak hartzeko eguna erabakitzeko dago, baina ziurrenik eguazten arratsaldean izango dira. Astero hiru ordu laurdeneko saioa egingo dute, eta, prezioari dagokionez, abendura bitartean 20 euro eta urtarriletik ekainaren beste 20 euro ordaindu beharko dute.

Helburu nagusia musika-zaletasuna piztea da eta, horretarako, ahots-teknika, espresibitatea eta melodia landuko dituzte, jolasen bitartez askotan. Argibide gehiago 615 76 02 89 telefono zenbakian jaso daiteke.

**KONTZERTUA** > PUNKA

# Hard Voor Weinig eta Never Surrender

Garagardo jaia eta punk doinuak bihar Arrasateko gaztetxean, 18:00etan hasita

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
Hard Voor Weinig orain dela bi urte Leidenen sortutako taldea da. Ruben bateria-jotzailea eta Marloe gitarrista protesta-performanceak egiten zituen Heisa perkusio taldean ibili ziren lehenago. Ondoren, Mistake punk taldeko Jurre batu zitzaien baxua jotzen eta abesten. Orduan sortu zuten Hard Voor Weinig. Izenak "lan egin gutxi lortzeko" esan nahi du. Letra politikoak dituen punk energetikoa egiten dutela diote holandarrek. Hardcorea eta ildo melodikoagoak ere antzeman daitezke kantuetan. Aurretik Never Surrender arrasatearrek joko dute. Garagardo jaia eta bestelako sorpresak, 18:00etan hasita.


Europan barrena bira egiten dabiltza holandarrak. GOIENKARIA

> MUSIKA

### Kulturate akustikoa, irailaren 11tik aurrera

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, musika emanaldi akustikoak izango dira datorren egubakoitzetik, hilaren 11tik aurrera, Kulturateko areto nagusian.

Lehen hitzordua Elurretan taldearekin izango da hilaren 11n, esan bezala. Ondoren honako hauek iragarri dituzte antolatzaileek: Garret Wall Band (irailaren 12an); Saioa eta Mursego (hilaren 18an); eta, azkenik, Anni B. Sweet (hilaren 19an).

Emanaldi guztiak 20:00 etan izango dira, doan.

> LEHIAKETA

### Santamas irudi lehiaketako lanak, urriaren 16ra arte

Santamas irudi lehiaketarako deialdia egin du Santamas Komisiñuek. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada; hain zuzen, egileek kartelaz gain eskuorrirako eta kartel bateraturako proposamena egin ahal izango dute.

Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16 baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen. Argibideak *santamasirudilehiaketa@gmail.com* helbidean.

> ZIRKUA

### 'Filamento farolaria' ikuskizuna izango da zapatuan plazan

Udazabal programazioaren barruan, bereziki haurrei zuzendutako *Filamento farolaria* zirku ikuskizuna eskainiko du Xabi Larreak bihar, zapatua, plazan, 19:30ean. *Clown* eta mimoaren artean sortutako pertsonaia da filamento, farolari xume eta atsegina.

Hurrengo zapatuan, hilaren 12an, toki eta ordu berean, Trio Zindare taldearen *La vuelta* ikusteko aukera izango da.

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
GARANTIA DE ALQUILER
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
• Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
• Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
• Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

tipi tapa
Umeentzako oinetakoak eta abar...
Otalora Lizentziatua 21- ARRASATE
Tel.: 943 79 67 78
BILDUMA BERRIA
%10eko deskontua
Bonua aurkeztu ezkero aplikagarria.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Iraileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
Kuota: 20 euro

ZIRA

Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA

Bidali AG AQUARIUM
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA

Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

PENDRIVE BAT
Goiena

Bidali AG PENDRIVE
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA


**AHTEC NETBOOK LUG N011**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*


Berriz taldearen kontra berdinduta (0-0) eta Bergara mendean hartuta (2-3), Mondrarendako izan da Bergara Hiria. G.A.

**FUTBOLA** > ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

# Liga hasi aurreko azken jarduna domekan, Arrasate Hiria torneoan

Ohorezko erregional mailan lehiatuko diren Aloñak, Bergarak eta Mondrak jokatuko dute domekan Arrasate Hiria torneoan, Mojategin

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Irailaren 12ko eta 13ko astebururuan hasiko dute ohorezko erregional maila –lehengo preferentea–, eta denboradi-aurreko azken torneoa izango dute Debagoieneko hiru ordezkariek domekan, Arrasate Hirian.

Zuri-moreek Jesus Morenoren omenez egingo dute domekako txapelketa, urte askoan Arrasateko taldeko atezain eta ondoren entrenatzaile izan zena oroitzeko.

**HIRU PARTIDU, 16:30EAN HASITA**

Egun bakarrean jokatuko dute Arrasate Hiria torneoa. 16:30ean Bergara eta Aloña Mendi izango dira aurrez aurre, 17:30ean Mondrak eta Bergarak jokatuko dute, eta arratsaldeko azken partiduan, 18:30ean, Mondra eta Aloña izango dira aurrez aurre.

Aurtengo denboraldiari begira, Azkargortak iaz baino talde osoagoa izango du aurten, eta udan egindako fitxaketek asko lagun diezaiokete taldeari; besteak beste, Andres Castillejo eta Enrique Tena arrasatearrek.

**BAZKIDE, 20 EUROREN TRUKE**

Gazte arrasatearrak Mojategira gerturatzeko asmoarekin zuzendaritzak egitasmo berria jarri du abian. Hala, 35 urtetik beherakoak 20 euroren truke Mondrako bazkide egin ahal izango dira.

**MENDIA** > BESAIDE

# Besaideko Oroimen Egunaz gain, beste bi hitzordu irailerako

Hilaren 26an mendiko bizikleta irteera egingo dute Aralar aldera

Hilaren 27an mendi zeharkaldia egingo dute, Nafarroan

**X.U.** > ARRASATE
Irailaren 20an egingo duten Besaideko Oroimen Egunarekin batera, Besaidek beste bi hitzordu antolatu ditu irailerako.

Batetik, irailaren 26an mendiko bizikleta sailak irteera egingo du. Uztailean Araozko kanalean barrena ibili ziren eta irailerako Aralarko zelaiak aukeratu dituzte. Hala, 08:30ean elkartuko dira Garibaiko geltokian eta irteera horretarako izena eman gura duten bizikletazaleek *besaidemtb@hotmail.com* helbidean eman dezakete izena. Antolatzaileen asmoa da Aralar aldean 30 kilometro inguruko zeharkaldia egitea, zailtasun ertainekoa izango dena. Urrian, berriz, Arrasateko mendiko bizikleta martxa antolatuko du Besaidek, Mendi Astearen barruan.

Oinez egiteko, irailaren 27an beste irteera bat izango da Besaidek antolatuta. Lizarraga, Baisa, Urbasa mendi zeharkaldia egingo dute, egun osorako. Izena emateko egunak dira irailaren 21a, 22a eta 23a, 19:30etik 20:30era.

**ONDAREA** > SEMINARIOKO ELIZA

# Beste pareta bat azaldu da Seminarioko elizako lur azpian

Zoru zaharra, jatorrizkoa, erabat azaleratu dute abuztuan barrena eta Jesuiten hilobi bat ere ireki dute asteon



Jasogailuaren laguntzarekin jaso zuten atzo Madariagaren plaka oroigarria. M.B.

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Irailaren 1etik eskuz dihardute lanean Seminarioko elizan Zehazten enpresako arkeologoek. Abuztuan zorua jaso dute, eta horrekin ia bukatu dute indusketa mekanikoa. Hain justu, elizaren zorua jaso dute makinaz eta ikusi dute azpian zegoen zoru zaharrak, jatorrizkoak, uste zutena baino azalera handiagoa hartzen duela.

Aldarean hasi eta sarrera nagusiraino iristen da. Marmolezko, kareharrizko eta hareharrizko hiru koloretako lauzaz osatuta dago eta gurutze forma du, nahiz eta ezkerreko besoa falta zaion. Gurutzearen erdian On Andres de Madariaga, Calatravako Zaldun eta Peruko Kontuen Auzitegiko kontatzaile nagusia izan zenaren mausoleoa dago. Hilobi horri dagokionez, oraindik zabaldu ez dutela aurreratu du Xabier Alberdi indusketako zuzendariordeak; enpresa espezialduen zain daude horretarako.

Hilobien harira, Alberdik azpimarratu du abuztuan egiaztatu dutela Madariagaren mausoleoa inguratzen jesuiten hilobiak daudela. Hain justu, atzo, eguena, kendu zuten mausoleoaren gainean dagoen Madariagaren omenezko plaka handia Petra enpresako zaharberritzaileen laguntzarekin. Plaka kenduta, jesuitetako baten hilobia zabalduko dute.

**BESTE PARETA BAT**

2007an egindako zundaketan, lur azpian azaldutako pareta zatia ere erabat azaleratu dutela aurreratu du Alberdik abuztuan barrena, eta baita zeregin horretan ezustea hartu dutela ere, "betelan guztia kentzean bigarren pareta bat" azaldu delako. 2007an azaldutakoaren ezberdina da: "Lehenengoak 1,80 metro zabal du eta azaldu berriak metro inguru. Bestalde, harri arruntagoz eginda dago".

Horrez guztiaz gain, hainbat material ere azaldu da abuztuan; besteak beste, Seminarioko ikasleen uniformeko botoiak eta zeramikazko tresna zatiak.

**BISITA GIDATUAK**

Xabier Alberdi pozik azaldu da indusketek abuztuan jaso duten bisita kopuruarekin. 131 lagun hurbildu direla aipatu du, gehienak Bergarakoak, baina baita kataluniarrak eta andaluziarrak ere.

Horrekin batera gogora ekarri du irailaren 12tik aurrera zapatuetan ere egin ahal izango direla bisita gidatuak. Ordutegia izango da: astelehenetik egubakoitzera, 11:30 eta 16:30ean eta zapatuetan, 11:00etan. Turismo bulegoan izena ematea komeni da.

**JAIAK** > SANMARTINAK

# Etxean kontserba egiteko ikastaroa

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Kultura Sailak berdura kontserben gaineko ikastaroa antolatu du San Martin jaien atarian. Aurreko urteetan gazta eta ezti ikastaroak antolatu izan ditu eta aurten aldatzea erabaki du. Irailaren 8an eta 10ean izango da, doan, kultura etxean, 19:00etan.

Jakion enpresako ordezkariek gidatuko dute ikastaroa: eguaztenean ikastaroaren atal teorikoa egingo dute; eguenean, berriz, praktikoa.

Izenematea da irailaren 7ra arte, doan. Horretarako deitu 943 77 91 59 zenbakira. Gehienez 20 lagunendako lekua dago eta Bergarakoek lehentasuna izango dute. Plaza kopurua baino jende gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da izena emandakoen artean.

**DANBORRADA**

Danborradarako haur zein nagusien entseguak ere aurrea doaz. Martitzenean hasi ziren eta, udal iturrien arabera, 150 bat haurrek dihardute entseguetan eta 80 bat nagusik. Datorren astean jarraitu egingo dute entseguok; hain justu, astelehenetik eguenera izango dira, 19:00etan umeena eta 20:00etan nagusiena.

Udaletik aurreratu dutenez, azken urteetan indarra hartzen dihardu nagusien danborradak. Aurten ere, ohikoez gain, 40 bat lagunek erakutsi dute gogoa danborradan parte hartzeko. Gainera, elkarte gastronomikoekin loturarik ez duten herritarrak direla azpimarratu dute. Litekeena da konpainia berria sortzea.




Umeak eguazteneko entseguan. M.B.

**bere ustez**



Iñigo Garitano

## Bide berriak frogatzen

Duela urtebete garai honetan krisiaren atean baginen, aurtengoan barru barruan gaude. Pentsa nahi dut egoera hain larritik aterako garela. Hala ere, bada garaia neoliberalismo ekonomikoa sortzen ari den desorekak gainditzeko. Horretarako errezetarik ez dut, baina datu gutxi batzuk aztertzerik besterik ez dago oraingo bide honek inora ez garamatzala baieztatzeko, gure planetako gizaki gehienen miseria ekonomikora eta ingurumenaren suntsiketara baino. Eredua

**"Ezkerreko mugimenduak ez dira gai izaten ari herritarrengan ilusioa pizteko"**

aldatzen hasi beharra dago. Eta bidea oraingoan ez da izango XX. mendean izan ziren iraultza sozialistena. Ezkerreko mugimenduak ez dira gai izaten ari proposamen berriak aurkeztu eta herritarrengan ilusioa pizteko. Errezeta ez da egun batetik bestera asmatuko, eta itxaroten ezin gara egon. Amesten dugun mundu berri horretan oinarrizko baloreak izango liratekeenak gure inguruan eta gutariko bakoitzaren esku dauden jardueretan erabili beharko genituzke. Printzipio jakin batzuetan sinesten badugu, ez genuke, adibidez, espekulazio inmobiliarioaren partaide izan behar, "ahal duenak egiten du" aitzakiarekin gure jokaera justifikatu nahian. Zergatik ez hasi bide horretatik?

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

**ZERBITZUAK** > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

# Izenematea zabalik dago Agorrosingo ekintzetan

Hilaren 9an bukatuko da izenematea; zozketa egingo dute hilaren 21ean. Bestetik, ekintza gunea itxita egongo da 14tik 20ra garbiketa egiteko

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Agorrosinek eskaintzen dituen lehorreko zein uretako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago abuztuaren 24a ezkero, eta hilaren 9an itxiko dute. Zozketa, berriz, hilaren 21ean egingo dute.

Hamabostetik gora ekintza ezberdin eta ordutegi zabala eskainiko ditu aurten ere Agorrosinek. Lehorreko ekintzei dagokienez, egongo dira, besteak beste, areto txirrindua, pilatesa, yoga, emakumeen atletismoa, fitnessa, tai txia eta sasoian egoteko gimnasia. Uretako ekintzen kasuan, egongo dira, besteak beste, helduendako igeriketa (hasiera eta hobekuntza), umeendako igeriketa eta igeriketa egokitua.

Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman dezake izena. Bestetik, ikastaroek 17 euroko matrikula izango dute, 3. adineko gimnasiak eta igeriketa ikastaroek izan ezik.

**PREZIOA**

Prezioari dagokionez, astean bi saioko jardueren prezioa izango da 15 euro bazkideendako eta 33 ez bazkideendako; hiru saiokoena, berriz, 22,50 bazkideendako eta 49,50 ez bazkideendako. Erabiltzaileak bestelakorik adierazi ezean, ikastaroko plaza hilero automatikoki berrituko zaio. Baja emateko azken eguna da hil bakoitzeko 25a.

Informazio gehiagorako, deitu 943 77 70 95 telefono zenbakira edo idatzi *agorrosin@bergara.net* helbidera.

**NEGUKO ORDUTEGIA**

Dagoeneko neguko ordutegiari ekin dio ekintza guneak: astelehenetik egubakoitzera, 07:00-22:00 ordutegian; zapatuetan, 09:00-14:00 eta 16:00-20:00 ordutegian eta jai egunetan, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00 ordutegian.

**ITXI EGINGO DUTE GARBITZEKO**

Kirol arduradunek jakinarazi dute Agorrosin ekintza gunea itxita egongo dela irailaren 14an hasi eta 20ra arte garbiketa lanak egiteko.

## Seminarioko fraideen etxe gisa ezagutzen dena bota egin dute

Abuztuan bota zuten. Seminarioaren eraikinari gehitutako eraikina zen eta egoera txarrean zegoen. Hala, oporraldia aprobetxatu du Udalak hura botatzeko, eragozpen txikiena sortu nahian. Seminarioan jesuitek zeuden garaian sukaldea zuten han. Domingotarrak izan ziren erabili zuten azkenak: 60ko hamarkadan solairu bat gehitu eta han bizi izan ziren.




MONIKA BELASTEGI

### oharrak

HEZKUNTZA

**> Ikasturte hasiera Aranzadin**

Hilaren 10ean hasiko dira Haur Hezkuntza (09:30) eta Lehen Hezkuntza (09:00) eta hilaren 11n, DBHko 1. maila (10:30), 2., 3. eta 4.a (11:00) eta Batxilergoa (11:00).

HEZKUNTZA

**> Kurtso hasiera San Martinen**

3 urtetik 6. mailara arteko ikasleak hasiko dira hilaren 8an, 09:00etan, eta iazko gelara joan beharko dute. 2 urtekoak, hilaren 10ean.

HEZKUNTZA

**> Hilaren 8an hasiko dute ikasturtea Miguel Altunan**

Harrera egingo diete Heziketa Zikloetako 2. mailako ikasleei, 10:00etan, areto nagusian; lehen mailakoei, 11:00etan; eta Eskaintza Partzialekoei, 18:00etan.

MUSIKA ESKOLA

**> Irailaren 9an hasiko du ikasturtea Musika Eskolak**

2009/2010 ikasturteko zerrendak eskolako sarrerako taulan egongo dira ikusgai hilaren 7ra arte, 09:00-13:00 ordutegian eta hilaren 8tik aurrera arratsaldez. Instrumentu eskoletarako ordua hartzeko irailaren 8an joan beharko dute ikasleek eskolara.

KINTADA

**> 1944an jaiotakoen irteera**

Irailaren 12an egingo dute, Enkarterrietara eta Bizkaiko kostaldera. Izenematea bukatuko da bihar, Hernandez Bodegoian (943 76 20 43) eta Sanchez ile-apaindegian (943 76 23 70). Irtengo dira geltokitik (09:00).

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
**Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!**
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
**TRINMER 20 urte antenetan**
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

*Mujika*
*gozotegia*
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

# SHOTOKAN KARATE-DO

15 urte karatea irakasten

## KARATE, KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO

Karatea kirolik berebiziko eta osoenetarikoa da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratuta.





**Umeek** atarramentu handiagoa lor dezakete ikasketetan eta gizarte harremanetan.



**Karatea kirol lehiakorra** dela onarturik, geure ikasleak lehiatzera ere bultzatzen ditugu pixkanaka, betiere era positiboan eta motibazioa handitzeko asmotan.



**Kirolariek**, banaka edo taldean, erabat kontziente izan behar dute euren lorpenez eta euren helburuez



**Lagunartekotasuna**, adeitasuna eta sexuen arteko berdintasunean erreparatuz .



**IKASLEEN GARAPENA NEURTZEKO PROGRAMA BERRI BAT JARRIKO DUGU ABIAN**
Programa honekin ikasle bakoitzaren egoera fisikoa eta garapena neurtuko dugu. Bakoitzak ikus dezan ze aukera dituen.



**IRAKASLEAK**
Irakasle aditu eta gaituak ditugu edozein talderekin jarduteko. Guztiak tituludunak.



**Konfiantza eta segurtasuna** hartzen dira eta osasuna eta sasoi ona.



**Kontzentrazioa lantzen da**, Errespetua eta gizatasuna bultzatzen dira,

## Karate eskolak IRAILAREN 9an hasiko dira:

**Umeak:** 1. txanda, 17:30etik 18:30era
2. txanda, 18:30etik 19:30era

**Nagusiak:** 19:30etik 20:30era

**Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasiora entrenamendu orduetan.**

**ERAKUSKETA** > ESKULTURAK

# Xabier de Zerioren lanak ikusgai Aroztegin irailaren 13ra arte

Estelak egurrarekin egin eta nekazaritzako lanabesekin osatzen ditu eskultoreak

De Zerioren esanetan, Bergaran gutxitan izaten dira eskultura erakusketak



Xabier de Zerio, Aroztegi aretoan, bere lanetako batzuekin. IRATI AGIRREAZALDEGI

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Xabier de Zerio eskultore bergararrak lanak ipini ditu ikusgai Aroztegi aretoan eta irailaren 13ra bitartean egongo da erakusketa. Martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era bisitatu ahal izango da; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

**EGURRA, BURDINA ETA ALTZAIRUA**

Pare bat urteko lana laburbildu du erakusketan, 40 lanekin. Sarreran tamaina handiko lanak ipini ditu; aretoko beste gune batean, estelak. Egurrezko lanak dira, euskal etnografiako burdinarekin osatuak, horretarako nekazaritzako lanabesak erabiliz. "Estela horietan batu nahi izan ditut zerua eta lurra, gizakia eta unibertsoa", azaldu digu Xabier de Zeriok.

Altzairuzko eskulturak ere ikusi ahal izango dira erakusketan, azkenaldian hori baita De Zeriok lantzen diharduen gaia. Laser bidez moztutako altzairuzko piezak dira, gero elkarrekin muntatuz diseinatuak.

Harrerarekin gustura dago: "Inaugurazioan jende asko izan zen eta lanak gustatu egin zitzaizkien. Oraindik joan ez denari esango nioke gutxitan izaten dela eskultura erakusketak ikusteko aukera, eta joan dadila Aroztegira".

> OIHULARI CLOWN

### 'De película' lanaren euskarazko bertsioa estreinatuko dute

Gaur egubakoitza, irailak 4, Oihulari Clown taldeak *De película* helduendako *clown* ikuskizuna eskainiko du 22:30ean Zabalotegin, eta sarrerak 5 euro balio du. Emanaldi hori antzezlanaren euskarazko bertsioaren estreinaldia izango da. Zinemako pertsonaia ezagunetan oinarrituz euren irrikak eta frustrazioak adierazi eta autoestimua, rolak... eta halako gaiak emakumeen ikuspegitik landuko dituzte.

> ANTZEZKIZUNA

### 'Ipuin lapurra' txotxongilo saioa Domingo Iralan

Jardun elkarteak irailaren 11rako Antzezkizuna taldearen *Ipuin lapurra* txotxongilo emanaldia antolatu du. Domingo Irala kalean izango da, 18:30ean. Emanaldian Toni La Salen istorioa kontatuko dute. Lapurreta batean liburutegiko ipuinen kutxa eraman go du eta umeen ipuinetako pertsonaiak nahastuko ditu istorio zoroan. Ipuinetako pertsonaia ezagunek ez ezik, ikusleek ere hartuko dute parte saioan, hori baita ikuskizunaren nahia, elkar eragitea.

**ANTZERKIA** > 'CLOWN' IKUSKIZUNA

# Zurrunka taldeak kartzela gai hartuta egingo du antzezlana

San Martin plazan egingo dute 'Karakolaren gaua: eskale baten istorioa' antzerkia

**I.A.** > BERGARA

Gasteizko Zurrunka taldeak *Karakolaren gaua: eskale baten istorioa* antzezlana eskainiko du zapatuan, irailaren 5ean, San Martin plazan, 20:00etan. *Clown* ikuskizunean, izenburuak berak adierazten duen moduan, eskale baten bizimodua oinarri hartuta kartzelen gaia landuko dute.

**ADIN GUZTIENDAKO EGOKIA**

Helduendako gertatutako antzerkia izan arren, adin guztiendako egokia dela diote Zurrunkakoek: "Haurrak ere gustura egoten dira". Gainera, kale antzerkia izanik, momentu batzuetan ikusleek ere antzerkian parte hartu ko dutela jakinarazi digute.

San Martin plazan Eñaut Gorbea eta Ander Arrieta aktoreek jardungo dute: batek kalean bizi den eskalearen papera egingo du eta kartzelazainarena besteak.

Emanaldi berezia izango dela esan digu Eñaut Gorbea taldekideak: "Jende gehiena ez dago ohituta horrelako saioak ikustera, eta kartzela moduko gaia era horretan landuta egoteak berezi egiten du".




Eskale bat eta kartzelazain bat dira antzerkiko protagonistak. ZURRUNKA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

UGARRIXA
MERENDEROA
Zabalik!
943 76 55 12

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

**PIRAGUISMOA** > ESPAINIAKO KOPA

# Podiumetik jaitsi ezinda ibili da Beñat Lizarralde Espainiako Kopan

Bergarakoa lehenengoa izan zen Galizian eta bigarren eta hirugarren Murtziako probetan



Mikel Lizarralde, iruditan, Calasparras herrian egindako txapelketan. UGALDE

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Beti Busti taldeko Beñat Lizarralde batetik bestera ibili da abuztuan, Espainiako Kopako bigarren eta hirugarren probetan lehian, eta Bergarakoak lan borobila egin du, podiumeko postu guztiak bete ditu-eta.

Abuztuaren 8ko eta 9ko asteburuan Galiziako Dumbria herrian (Coruña) lehiatu zen Beti Bustikoa, Kopako bigarren proban. K1 modalitatean Bergarakoak bikain bete zuen ibilbidea, lehenengo postuan sailkatuz.

**HIRUGARREN PROBA, MURTZIAN**

Joan den asteburuan, berriz, Lizarralde Murtzian izan zen, Calasparras herrian, kopako hirugarren eta azken saioan eta hor ere Bergarako palista gazteak lan ona egin zuen. Bi modalitatetan lehiatu zen Lizarralde, K1 modalitatean (kayak) bigarren sailkatu zen, eta C1 (kanoa) modalitatean hirugarren. Hala, abuztuan zehar Lizarraldek podiumeko postu guztiak bete ditu. Hala, lan horri esker sailkapen orokorrean bigarren sailkatu da bergararra. Ez da Beti Bustiko ordezkariek udan egiten duten lan aipagarri bakarra, uztailean ere maila onean izan zirelako, taldeka, Lleidan.



Agorrosin eta Ipintza futbol zelaien artean jarri dituzte aldagela berriak. X.U.

**AGORROSIN** > LANAK

## Futboleko ligak hasten direnerako gertu izan nahi dituzte aldagela berriak

**X.U** > BERGARA

Datorren astean hasiko dituzte Bergarako futbol taldeek liga txapelketa gehienak, eta ordurako gertu izan nahi dituzte Agorrosingo aldagela berriak. Izan ere, kategoria guztietako futbol jokalariak kiroldegi barruko aldagelak erabiltzen dabiltza, gainontzeko erabiltzaileekin batera, "eta ez da batere erosoa, txiki geratzen delako dena", adierazi du Kirol teknikari Unai Asurmendik.

Joan den astelehenean 1.800 pertsona izan ziren kiroldegian, "eta bazirudien gainezka egin behar zuela denak".

Aldageletako lanak bide onetik doaz, baina oraindik badago zeregina. Argindarra eta ura jartzea falta da, eta ondoren probak egitea. Guztira 250 metro koadro izango dituzte aldagela berriek, eta sei talderendako gelak –20 lagunendako tokia gela bakoitzean–, dutxak, epaileendako bi gela, kontrol gela –argizketatarako, besteak beste–, kopun publikoak eta Bergarako klubarendako ofizia izango dira bertan.

arizNoa elkartea

ERRITMIKOA arizNoa elkartea bergara www.ariznoaelkartea.com

2009-2010eko ordutegia
Agorrosin eta Labegaraietan dago



KURTSO HASIERA
**Irailak 4:** Alebinak, Infantilak, Kadeteak eta Jubenilak. (LABEGARAIETAN)
**Irailak10:** Prebenjaminak eta benjaminak. (IPINTZA DBHko ANFITEATROAN)

ANDRAMAIXAK

# Loquillok elkartu zuen jende gehien jaietan


Udalbatzako kideak, jai hasieran, ikurrinari agurra egin bitartean. MIRARI ALTUBE

**Loquillok eta herri bazkariak bete zuten plaza; errekortadore eskolak eta antzerkiak ikusle asko izan zituzten**

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Azken urteotan legez, jendea poliki-poliki hurreratu zen jaietara, eta bertaratutakoek gustura hartu zuten parte. Jende gehien erakarri zuen ikuskizuna, zalantza barik, Loquilloren kontzertua izan zen; plaza bete-beteta. Kantaria, bera ere, gustura izan zen gure artean eta ia bi orduko ikuskizun bikaina eskaini zien kanpotik etorritako zaleei eta herritarrei. Bestalde, Bielorrusiako Talaka taldeko dantzari profesionalek ere ekitaldi ezin politagoa egin zuten. Errekortadore eskolak gaztetxo asko elkartu zituen bigantxa txikien aurrean.

Koadrilen eguneko paella dastatzera gero eta herritar gehiago etortzen da eta, aurten, 650 arroz plater banatu arren, 15 bat lagun ezer barik geratu ziren. Horrek, baina, ez zuen jaia ilundu eta umore ona izan zen nagusi bazkalostean koadrilen artean egindako jokoetan. Koadrilarik onenaren saria Eingou taldeak (300 euro) eta Aretxak (16 urtetik behera, 100 euro) jaso zuten.


Gose taldeko Ines Osinaga jende artera jaitsi zen kantatzera. M.A.


Herriko pilotariek margotu berri zegoen pilotalekua estreinatu zuten. M.A.


Ama Birjina aldean hartuta plazara igo ziren udalbatza, banda eta herritarrak. M.A.




Garbittu
• Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
• Obra bukaerako garbiketak
• Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
• Kristalen garbiketak
• Arropa garbiketak

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net



Plaza bete egin zuen Loquillok; zaleak eta herritarrak, gustura ikuskizunarekin. M.A.



Trapu Zaharra antzerki taldeak barrea eragin zuen Durana kalean elkartutakoen artean. M.A.



Paella jatera jende mordoa etorri zen -650 plater banatuta- eta bazkalostea jokoek girotu zuten. M.A.



Errekortadore eskolako bigantxa txikiek airean ibili zituzten gaztetxoak. M.A.



**LANAK** > KIROL ETXEA

# Kirol etxearen eraikitze lanak datorren astean hasiko dituzte

Lanak behar bezala egin eta epeak betetzen dabiltzala ziurtatuko du LKS enpresak

Kirol etxe aurreko berdegunean zer egin iritziak jasotzeko parte-hartze prozesua zabalduko da

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Datorren astean hasiko dituzte kirol etxe berriaren eraikitze lanak. Hala adostu zuten abuztuan, Inaxio Garro alkateak eta Galdiano eraikuntza enpresaren kontseilari delegatu den Joseba Azkarragak.

**LANEN JARRAIPENA LKS-K**

Abuztuaren 18an sinatu zuten alkateak eta Joseba Azkarragak kirol etxearen lanen behin betiko esleipena, eta orduan hitzartu zuten iraileko bigarren astean lanak hastea. Hortaz, ezustekorik ez bada, laster izango dira Galdiano enpresako langileak Markole auzoan dagoen orubean.

Kirol etxearen eraikitze lanak egiteko, lehiaketa deitu zuen Udalak. 19 enpresa aurkeztu ziren eta epaimahaiak –proiektua egindako arkitektoak eta LKS enpresa– egindako hautaketa prozesu ostean, Galdianok jaso zituen puntu gehien. Horrek proposatu zuen 11.393.288 euroko aurrekontua eta 20 hilabetetan eraikitzea. Bestalde, lan horiei jarraipena egiteko, LKS enpresa hartu du Udalak.

Lan horiek ordaintzeko Kutxak eman dio mailegua Udalari, 8.265.000 eurokoa, hain zuzen, eta 12 urtetan itzuli beharko du diru hori. Aldundiko Gizartekintza departamentuaren bitartez, ostera, 942.000 euroko dirulaguntza jasoko du.


Inaxio Garro eta Joseba Azkarraga, lanen esleipena sinatzen, abuztuan. A. BARRUSO

**BERDEGUNEA, EZTABAIDAGAI**

Asier Akuriola eta Fernando Bajo arkitektoek egindako kirol etxearen proiektuak hainbat berezitasun ditu: igerilekua hirugarren solairuan egongo da eta, pilotalekua beharrean, trinketa izango du. Bestalde, kirol etxe aurrean dagoen zelaian hainbat kantxa egitea aurreikusita dago proiektuan. Hainbat herritarrek, baina, kanpoko igerilekuak egiteko eskatu dute. Kontuak kontu, parte-hartze prozesu bat zabalduko du Udalak herritarren artean, Kudeatuz egitasmoaren bitartez berdegune horretan zer egin daitekeen iritziak jasotzeko. Irailean bertan izango da hori.

**POLITIKA** > PRESOEN ALDEKO IRUDIAK

## Kepa Urraren irudia margo zuriarekin estali du Udalak

Ertzaintzaren eskaera izan da, eta Mitarte kaleko horma-irudiak ere kendu ditu

**M.A.** > ARETXABALETA

Abuztuko lehen astean jaso zuten Udalean Ertzaintzaren izenean zetorren errekerimendua. Kurtzebarri eskolako kantxan zegoen Kepa Urraren irudia eta Mitarte kaleko horma-irudiak ezabatzeko eskatzen zuten bertan. 24 orduko epea eman zien, gainera, eskaera betetzeko, baina alkateak ez zuen halako presarik ikusi eta, "10 urtean egon dira inolako kalterik egin barik" esanaz, Andramari jaiak pasatu arte itxarotea erabaki zuen.

Terrorismoa deslegitimatzeko Jaurlaritzak abian jarritako ekintzen artean dago presoen aldeko irudiak ezabatzea. Hori horrela, errekerimendua bete ezean ertzainek egingo zutela lana iragarri zioten alkateari, eta haren kostua Udalari pasatu. Horren aurrean, Udalak berak estali ditu irudiok margo zuriarekin.


Kepa Urra presoaren irudia, zuriz margotuta. MIRARI ALTUBE


*Baso sorgindua* antzezlana, Patata Tropikal taldeak eskainita. KULTURA SAILA

**ARKUPE** > IRAILEKO EGITARAUA

## Umeendako ikuskizun asko, musika eta hainbat diaporama

Domeka arratsaldetan dituzte ikuskizunak umeek, eta zapatuetan, helduek, musika

**M.A.** > ARETXABALETA

Irailean sartzearekin batera abian dira Arkupeko ekitaldiak. Erakusketa aretoan pintura ikastaroko ikasleen lanak daude ikusgai. Eta umeek hiru ikuskizun izango dituzte, domeketan (17:00): Txalo taldearen *Kanpanilla eta Peter Panen itzala* –irailak 6–, Dar Dar taldearen *Egizu lo Tartalo* –irailak 13– eta, Patata Tropikal taldeak aurkeztua, *Baso sorgindua* –irailak 20. Sarrera 3 euro da.

Helduek musika izango dute 8 euroren truke: Masa Coral del Ensanche de Bilbao taldeak zarzuelaren antologia eskainiko du –irailak 12, 22:00–, eta Miren Fernandezek, kontzertua –irailak 19, 22:00. Diaporama emanaldiak ere izango dira: Patxi Usobiagarekin *Psikoblock: ur sakonetako bakardadea* –irailak 17, 19:30– eta Juanjo Garbizurekin *Kilimanjaro y volcan Meru* –irailak 24, 19:30.

> ERROMESALDIA

### Udal ordezkariak Arantzazura doaz, herritarrak lagun

Astelehenean, hilak 7, erromes joango dira udal ordezkariak eta hainbat herritar Arantzazura. Aspaldiko ohitura da aretxabaletarrak Arantzazuko Ama Birjinaren bederatziurrena ospatu bitarteko lehen astelehenean santutegira joatea. Meza entzungo dute lehenengo (12:00), eta gero, bazkaltzera geratuko dira. Udal ordezkariek, parrokiako ordezkariekin batera, Zelai Zabalen dute bazkaria.

Herritarrei dagokienean, Basotxo erretiratuen elkarteak autobusa antolatu du, eta bazkalostean Oñatin geratuko dira arratsalde pasa.

### oharrak

ERRETIRATUAK
**> Abesbatzaren lehen entsegua**
Basotxo erretiratuen elkarteak sortutako abesbatzak lehen entsegua egingo du hilaren 9an, eguaztena, lokalean bertan (18:00). Interesa duen edonor hurrera daiteke.

ERRETIRATUAK
**> Loaren gaineko berbaldia**
Irailaren 15ean, martitzena, loaren gaineko berbaldia egingo dute Basotxoko egoitzan (17:00). Loak duen garrantzia, zelan hartu lo eta beste hainbat kontu azalduko dituzte.

AURKEZPENA
**> 'La historia del Valle de Leniz (1260-1750)' liburuaren aurkezpena**
Rosa Ayerbe irakasleak Leintz bailararen gainean idatzi duen liburua aurkeztuko dute irailaren 12an, zapatua, Arkupe kultura etxean (12:00). Dokumentu historikoekin –juridikoki garrantzia handia dutenak– eta argazkiekin osatu du liburua.

IKASTAROAK
**> Pintura, bainika, eskulan eta zeramika ikastaroak**
Ikastaro horiek guztiak jarriko dituzte abian irailean Arkupen.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Nagore Ojanguren > Ludotetako hezitzailea

# "Txaloka proiektu hezitzailea da, baina ez da umeendako eskola"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Txaloka ludotekak ikasturtea hasi zuen irailaren 1ean. Egunotan ate irekiak egiten dihardute eta dagoeneko zabalik dute izenemate epea. Hainbat berrikuntza dituzte ikasturte berriari begira. Nagore Ojanguren hezitzailearekin egin dugu berba zerbitzuaren eta ikasturte berriaren gainean.**



Nagore Ojanguren, Txaloka ludotekan. MIREIA BIKUÑA

**Zer egiten duzue Txaloka ludotekan?**

Txaloka proiektu hezitzailea da, baina ez da eskola. Bertan egiten diren ekintzek izaera hezitzailea dute, baina erabiltzen dugun tresna jolasa da. Jolas hezitzailea bultzatzen dugu, haurrek gustuko dituzten jolasak eskainiz, haur bakoitzak dituen behar eta trebeziak kontuan hartuta. Besteak beste, jolas sinbolikoak, musika tresnak, eraikuntzak, marrazketa, panpinak, puzzleak eta ipuinak erabiliko ditugu.

Gainera, funtsezko balioak lantzen ditugu; besteak beste, berdintasuna, errespetua, elkarbizitza eta kulturartekotasuna.

Bestalde, guregana datozen neska-mutikoek dituzten beharren arabera, bakoitzari arreta eta jarraipen pertsonalizatua eskainiko diogu.

**Ikasturte berrirako izenemate epea zabalik duzue.**

Bai, hala da. Egunotan ate irekiak egiten dihardugu ludoteka ezagutzera emateko. 4 eta 10 urte arteko neska-mutiko guztiak etor daitezke zerbitzua barrutik ezagutzera. Gurasoak ere gonbidatu gura ditugu. Ate irekien egunetan, gurasoek eta neska-mutikoek dituzten zalantzak argitu ahalko ditugu. Bestalde, ikasturte berrirako izenematea zabalik dugu. Matrikula moduan 20 euro ordaindu beharko dute, eta ondoren, 18 euro hilero. Dena den, garbi utzi gura dugu egoera ekonomiko bereziak dituzten familiek badutela aukera euren seme-alabak ludotekara bidaltzeko, tratamendu berezia izango dute-eta. Kasu bakoitza bakarka aztertuko da, eta dirulaguntzak jasoko dituzte zerbitzua doan izateraino.

**Berrikuntzarik izango duzue?**

Bai. Hain zuzen, berrikuntza nagusia da Txaloka ludotekako ikasturtea irailaren 1ean hastea. Baina badira beste bi: alde batetik, eskoletan oporretan daudenean ludoteka zabalik edukiko dugu; besteak beste, Gabonetako eta Pazko asteko oporretan. Beste alde batetik, guraso batzuek egindako eskaerari erantzun nahian, zapatu goizetan ludoteka zabaltzeko aukerak aztertzen gabiltza. Oraindik ez dugu erantzunik jaso udal arduradunen aldetik.

**Lehen urtean ume gutxi ibili ziren arren, etorkizuna positibo ikusten duzue?**

Bai, duda barik. Lehen urtean, akaso berandu ibili ginelako, neska-mutiko gutxi egon ziren, baina ibilitakoak oso gustura egon ziren. Gainera, gurasoekin egindako bileretan balorazio positiboa egin ziguten. Hezitzaileok oso garbi dugu ludotekak etorkizuna baduela. Lokalak bi espazio ditu, eta dugun material didaktikoa oso ona da.

**Umeak adinaren arabera banatuko dituzue taldetan?**

Izenematea bukatu ondoren erabakiko dugu umeak nola banatu. Lehen esan bezala, ludotekak bi espazio ditu, eta hori abantaila da guretako, umeak adinaren arabera banatzeko aukera ematen digu-eta.

---

**MUSIKA** > KALEAN'09 EGITARAUA

# Malenkonia taldeak bigarren diskoa aurkeztuko du bihar

## Aurora Beltran nafarrarekin batera egingo dute kontzertua Atzeko kalean, 22:30ean


Malenkonia taldeko kideak. MALENKONIA

M.B. > OÑATI

Gaztelekuak antolatzen duen Kalean'09 egitarauaren barruan kontzertua egingo dute bihar Malenkonia oñatiarrek eta Aurora Beltran nafarrak Atzeko kalean, 22:30ean. Oñatiarrendako, gainera, *Hegazkadak dakar ekaitza* diskoa aukezteko kontzertua izango da.

**KANTU BERRIAK**

Rober, Iñaki, Iñigo, Aitor, Andoni eta Erik dira Malenkonia taldeko kideak, eta haiek igoko dira lehen-lehenik oholtza gainera. Dagoeneko zehaztu dute joko dituzten kantuen zerrenda. "Kontzertuaren helburua da diskoa aurkeztea. Hortaz, kantu berri guztiak joko ditugu. Emanaldia borobiltzeko beste kantu batzuk joko ditugu", esan digu taldeko kide Iñigo Ugartek.

Etxean jotzeak erantzukizun handia sorrarazten diela esan digute: "Badakigu lagunak eta etxekoak guri begira egongo direla, eta horrek urduritu egiten gaitu, baina dagoeneko ez dago atzera bueltarik. Bestalde, nork bere herrian diskoa aurkeztea polita da. Hortaz, gogotsu gaude eta kontzertu borobila egiteko asmotan", esan digute.

Malenkonia taldea 2002an sortu zuten Aritzek, Roberrek ea Iñakik. Musika gogorragoa alde batera utzita doinu lasaiagoetan murgildu ziren. Ordutik hona hainbat aldaketa izan ditu taldeak. Lehen kontzertua Zamorako Toro herrian eman zuten, eta azkena, 2007ko sanferminetan. Danbaka Debagoieneko musika lehiaketako bigarren edizioan finalera heldu ziren, Aby Kem eta Belceblues taldeekin batera.

**AURORA BELTRAN**

Aurora Beltran musikari nafarrak, berriz, ez du aurkezpenik behar. 1980ko hamarkadan neskaz osatutako Belladona taldea sortu zuen. Ondoren, anaiarekin batera, Tahures Zurdos talde arrakastatsua sortu zuen, 1987. urtean. Hamar disko grabatu zituzten, eta, tartean, ospe handia lortu zuten kantuak; besteak beste *Una noche de amor*. Taldean hainbat aldaketa egin ondoren, 2004an jotzeari utzi zioten. Ordutik hona, bakarkako bidean dabil buru-belarri Beltran.

---

> MATRIKULAZIOA

### Musika eskolako izenematea zabalik, hilaren 18ra arte

Jose de Azpiazu musika eskolak astelehenean hasiko du ikasturtea, baina izena eman daiteke hilaren 18ra arte. Informazio gehiago gura duenak eskolara dei dezake (943 78 31 74) bulego orduetan –astelehenetik eguenera 17:00etatik 20:00etara eta egubakoitzetan 16:00etatik 19:00etara– edo webgunean begira dezake.

4 urtetik gorako neska-mutikoek har dezakete parte musika eskolan. Txikienek Tailer Musikalean dihardute.

> MUSIKA

### Ganbarako talde guztiak prest daude ikasturtea hasteko

Ganbarako taldeek gertu dute ikasturte hasiera. Kantu Tailerra I eta II, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte taldekoek hasi dituzte entseguak. Ikasturte berriko berrikuntza Ganbara Gazte taldea da. *Oh happy day* saiorako sortu zuten taldeak bide berria egingo du. Ganbara Txikiren jarraipena izango da eta errepertorioa zabaldu egingo du.

### oharrak

DEIALDIA

**> Danborradako entseguak hasi dituzte**

Asteon hasi dituzte haurren danborradako eta helduen danborradako entseguak. Errekaldeko lokaletan dihardute 19:00etatik 20:00etara. Haurren danborrada hilaren 19an egingo dute eta helduena hilaren 28an.

IKASTAROA

**> Yoga eskolak hasierako ikastaroa egingo du irailean**

Sanatana Dharma yoga eskolak hasierako ikastaroa egingo du hilaren 14tik 24ra. Eskolak astelehenetik eguenera emango dituzte, 19:00etatik 20:30era. Informazioa eskatzeko edo izena emateko 610 953 794 telefonora dei dezakete interesatuek.

ODOL ATERATZEA

**> Odol ateratzea egingo dute hilaren 11n**

Uztailean eta abuztuan odol ateratzerik egin gabe egon ondoren, herriko odol emaileen taldeak beste ateratze bat egingo du hilaren 12an. Txantxiku ikastolan bilduko dira 18:00etatik 20:00etara arte. Era berean, urriaren 9an, azaroaren 13an eta abenduaren 11n ateratzeak egingo dituzte.

GOIENKARIA
2009ko irailaren 4a



Euri, igerileku eta dutxetatik jasotako ura, besteak beste, herriko lorategiak ureztatzeko erabiliko da. MIRIAN BITERI

**INGURUMENA** > ARAUDIA

# Ura aurrezteko araudia ikus daiteke urriaren 13ra arte

Ordenantza berriari uztailaren amaieran egindako osoko bilkuran eman zion Eskoriatzako udalbatzak hasierako onarpena, aho batez

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Udalak ura aurrezteari buruzko ordenantza egin du. Uztailaren amaieran egindako osoko bilkuran aho batez adostu zuen udalbatzak araudi horri hasierako onarpena ematea. Horren gaineko iragarkia abuztuaren 11n argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Egun horren biharamunetik hasita (abuztuak 12), bi hilabeteko epea zabaldu zen ingurumen edo alkatetza arloan ordenantza aztertu eta egoki iritzitako iradokizunak egin ahal izateko. Hori kontuan izanda, urriaren 13ra arte dago alegazioak aurkezteko aukera. Pedro Lasagabaster alkateak jakinarazi digu udalbatzaren asmoa dela urrirako behin betiko onartzea.

Eskoriatzako Udala ingurumenarekin sentsibilizatuta dago. Jasangarritasunaren bidean administrazioa "eredugarri" izan behar dela eta hortaz, hainbat neurri hartu ditu azkenaldian. Azkena, aipatutako araudia.

**ERAIKIN BERRI ETA BERRITUETAN**

Ordenantza indarrean jartzen denean, udalerrian berritzen edo egiten diren eraikinetan uraren kontsumoa murrizteko eta zarrastelkeria ekiditeko hainbat neurri jarri beharko dira derrigorrez. Esandako araudiak ura aurrezteko erabili beharreko gailuak zehazten ditu. Horretaz gain, uraren kalitatearen egokitzapenaren gainean ere jarduten du araudiak.

Gailuak derrigorrezkoak izango dira uraren kontsumoa duen toki guztietan, hala nola, etxe partikularretan, hotel eta antzeko zerbitzuetan, osasun etxeetan, ikastetxeetan, aisialdi eta merkataritza guneetan, kiroldegietan edo nekazaritzarekin lotutako instalazioetan. Herritarren artean eredua emateko, udal eraikinetan aurrezteko sistemak ere jartzea aurreikusita dago.

Araudia, besteak beste, honako arlo hauei dago bereziki zuzenduta: ura hornitzen duten enpresa eta entitateei, ura hornitzeko instalazioak jartzen dituzten iturgin eta antzeko lanbideetako arduradunei, eraikuntza enpresa eta sustatzaileei, eraikuntza arloan lan egiten duten teknikoei, eta eraikinen jabeei.

**SISTEMA MOTAK**

Araudi berriak, esan bezala, hainbat sistema aurreikusten ditu. Batetik, ura aurrezteko sistemak instalatu beharko dira; esaterako, uraren kontsumo eraginkorra bermatzen duten mekanismoak jartzea edo dagoeneko erabilita dagoen ura berriz ere erabiltzea.

Bestetik, euria eta igerilekuetako eta dutxetako ur grisak jasotzeko sistemak abian jarri beharko dira. Txorrotetan eta dutxetan uraren emaria gutxitzeko gailuak ere erabiltzera behartuta egongo dira. Araudiak dio, gainera, teknologia aurreratuenak erabiltzera derrigortuta egongo direla.

Bestalde, besteak beste, lorategi berriak nolakoak izan behar diren zehazten du ordenantzak; eta udalerriko igerilekuei dagokienez, esaterako, maiatzaren 31tik urriaren 31ra ezin izango direla hustu ere dio.

**3.000 EURO ARTEKO ISUNAK**

Hirigintza-lizentzia eskatzerakoan, araudian jasotzen direnen gaineko proiektua aurkeztu beharko dute interesatuek. Eskoriatzako Udalak ez du obra-lizentziarik emango proiektuek ura aurrezteko sistemak aurreikusi arte. Arauak hausten dituztenendako isunak ere aurreikusten ditu ordenantza berriak. Arau-haustea arina bada, isuna 750 eurokoa izatera hel daiteke; larria bada, 1.500 eurokoa; eta oso larria izanez gero, 3.000.



Joan den eguazten arratsaldean ere zabalik egon zen KZgunea. M.B.

**INFORMATIKA** > KZGUNEA

# Interneteko ikastaro asko daude gertu datozen hilabeteotarako

Ikastaroetako tutorea irailaren 16an eta 30ean egongo da KZgunean, 16:30etik 20:00etara

**M.B.** > ESKORIATZA

Udako oporren ostean, normaltasunera itzultzen hasi dira asteon herriko zerbitzuak; tartean, KZgunea. Hango tutore Aitor Madridek azaldu digu irailaren 16ko eta 30eko arratsaldetan KZgunean egongo dela; 16:30etik 20.00etara, hain zuzen. Esandako egunotan hainbat ikastaro eskainiko dira: sare sozialak, *Skype*, *Google* tresnak, *Blogger, Youtube, Wikipedia, Google Maps* eta *Earth*, zuhaitz genealogikoa egitea, *Megaupload, Softonic, Gmail* eta *Flickr* zerbitzuak. Bi ordukoak dira ikastaro horiek.

Esandakoetaz gain, beste lau kurtso ere egin daitezke. Batetik, Interneteko oinarrizko ikastaroa (10 ordu) eta edozein administraziorekin administrazioko kudeaketak egiten ikasteko eskolak (10 ordu) daude. Bestetik, Interneten munduan sakonago sartzeko 20 orduko bi ikastaro eskainiko dira: *Internet KZgunea kurtsoa* eta *Emaweb-KZgunea*. Azken hori emakumeei zuzenduta dago. Azkenik, *Nagusiweb* izenekoa dago. Pertsona nagusiei zuzendutako Interneteko oinarrizko hamar orduko kurtsoa da azken hori.

**LANAK** > ESPAINIAKO ESTATUKO DIRULAGUNTZEKIN EGINDAKO OBRAK

# Dagoeneko hasi dira Olaetako frontoia estaltzeko lanekin

Zarimuzko Mendibe eta Urubil-Buruntzano baserrien arteko bidea berritzeko lanak hastear daude; Diputazioaren baimenaren zain daude

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Espainiako Gobernuak eman dituen Tokiko Inbertsiotarako Estatuko Fondoen kontura Udalak egiten dihardUen proiektuak martxa onean doaz. Egitasmo batean izan ezik, gainontzeko bederatzietan dagoeneko hasita daude lanak; eta horietako sei egitasmotan, baita bukatuta ere.

Joan den astean, Olaeta auzoko pilotalekua estaltzen hasi ziren. Garabia jarri ostean, dagoeneko kirol instalazioa estaliko duen egurrezko egituraren zati handia jarri dute langileek. Esandako proiektuak 125.861 euroko aurrekontua du eta obrek bi hilabete irautea espero dute; hau da, urriaren bukaerarako amaituta egotea da asmoa.

Bestalde, uztailean Aranburuzabala-Arana kaleetako zoladura eta azaleko drainadura hobetzen ibili ziren astetan langileak; Aranburuzabalako 32. zenbakira arteko zatian, hain zuzen ere. Pedro Lasagabaster alkateak azaldu digu lanak bukatzear daudela: "Errepide zati bat falta da asfaltatzeko eta marrak ere margotzeko daude oraindik". Egitasmo horretarako 140.717 euro bideratuko dituzte.

**SAN JUAN**

Uda partean, gainera, San Pedro auzoko hainbat zati berriz urbanizatzeari ekin zioten. Aurrekontu potoloena duen proiektua da San Pedrokoa: 227.708 euro da. Ingurune horretan urtarriletik Udalak egindako obren jarraipena da hori. Kiroldegiko atzealdean zerbitzu sareak berritu ostean, zoladura berritu eta aparkalekuak margotuko dituzte. Auzoaren eta kiroldegiko plazaren arteko irisgarritasuna hobetzeko arrapala ere jarriko dute.

**ZARIMUZKO BIDEA**

Lasagabasterrek azaldu digu dagoeneko proiektu bakarra dagoela egiteke: Zarimuzko Mendibe eta Urubil-Buruntzano baserrien arteko bidea konpontzeko lanak hastear daudela aipatu digu. Gipuzkoako Diputazioaren baimenaren zain daudela aipatu digu. Esan bezala, Tokiko Inbertsiotarako Estatuko Fondoen kontura doazen gainontzeko beste sei egitasmoak bukatuta daudela gaineratu du.

Alkateak azpimarratu du obra guztiak martxa onean doazela eta, hortaz, eskatu bezala, abendurako proiektu guztiak amaituta egongo direla: "Epeak betetzen gabiltza. Dena den, garrantzitsuena da horien gastuak ere mantentzen ari direla. Aurrekontuetan aurreikusitakoa betetzen gabiltza".

## Abendurako amaituta egongo diren proiektuak

| | |
|---|---|
| San Pedroko hainbat zati berriz urbanizatu | 227.708 € |
| Aranburuzabala-Arana kaleetako zoladura eta azaleko asfaltoa hobetu | 140.717 € |
| Olaeta auzoko pilotalekua estali | 125.861 € |
| Zarimuzko Mendibe eta Urubil-Buruntzano baserrien arteko bidean hormigoia bota | 41.149 € |
| Bolibar, Eraña, Mendiola eta Leten edateko ur-hornidura sarea hobetu | 52.146 € |
| Lete eta Eraña auzoen arteko bidean hormigoia bota | 38.843 € |
| Santa Anako 19. zenbakiko udal etxea birgaitu | 36.184 € |
| Txistulari Arratea plaza birgaitu | 20.556 € |
| Kulunka haurtzaindegia eta Udal Liburutegiko teilatuak konpontu | 14.594 € |
| Luis Ezeizako su-detektagailua hobetu | 2.755 € |



Olaetako frontoia estaliko duen egurrezko egitura zati bat jarri dute egunotan. M.B.



Aranburuzabala-Arana arteko lanak amaitzear daude. M.B.



Makinek lanean dihardute San Juan auzoan zerbitzu sareak berritzeko. M.B.

## oharrak

KUOTA

**> Dagoeneko zabalik dago antena kolektiboa ordaintzeko epea**

2009ko urteari dagokion antena kolektiboaren tasa ordaintzeko epea iritsi da. Tasa-ordainketa helbideratuta daukaten herritarrei urriaren 9an egingo zaie kobrantza eta ordainketa helbideratu gabe duten herritarrek urriaren 9ra arteko epea izango dute borondatezko ordainketa egiteko.

UDALA

**> Udalak erreklamazio orriak jarri ditu eskura herritarren artean**

Udalak, eskoriatzarren eskariak betetzeko eta udal zerbitzuetako erabiltzaile bezala dituzten eskubideak bermatzeko, erreklamazio orriak jarri ditu haien esku, hala iritziz gero horietaz baliatzeko. Erreklamazio orriak honako udal zerbitzuetan eska eta entrega daitezke: udaletxean, liburutegian, kiroldegian, museoan, kultura etxean, ludotekan, gaztelekuan eta Jose Arana ume eskolan.

ELIZA

**> Dorletako Andre Mariaren bederatziurrena, hilaren 8ra arte**

Dorletako Andre Mariaren bederatziurrenean murgilduta daude fededunak egunotan. Hilaren 8an emango diote amaiera. Astegunetan, 19:00etan egiten dute; domekan, berriz, 12:30ean.



INGURUMENA > ERREKA

# Errekan pilatutako zabor mordoa atera dute

Gaztetxekoek antolatutako ekimena izan bazen ere, adin guztietako jendeak hartu zuen parte; guztira 60 lagunek jardun zuten lanean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Opor ostean beharbada herritar askok ez du igarri, baina erreka garbiago dago. Gaztetxekoen ekimenez, abuztuaren hasieran herritar talde batek erreka garbitzen jardun zuen. Gaztetxekoez gain, jende helduak eta umeek ere hartu zuten parte garbiketan; guztira, 60 lagun inguru.

Horretarako, botinak jantzi eta errekara sartzeko ez zuten inolako erreparorik izan antzuolarrek; eta lanerako gogoaz gain, izan zen etxetik erremintak eta traktorea ere eraman zituenik.

**ZABORRA ETA BITXIKERIAK**

Pasa da denbora erreka azken aldiz garbitu zenetik, eta zabor mordoa pilatuta zegoela esan dute.

Jaiak pasa berriak ziren eta jaien ostean ohikoak diren plastikozko edalontziak eta botila hutsak ez ezik, bestelako zikin mordoa agertu zen errekan. Esaterako, zabor poltsak, zaborrontzietara bota beharrean errekara botata. Bestelako bitxikeriarik ere bazen errekan: patinete bat eta hildakoen errautsak gordetzeko kutxaren bat ere.

Udaleko Ingurumen zinegotzi Jose Mari Iturberi ekimen oso ona iruditu zaio: "Batetik, gazteek antolatu eta adin guztietako herritarrek parte hartu dutelako; bestetik, erreka denon ardura dela sentsibilizatzeko balio duelako. Aurrerantzean ez badugu zikintzen ez dugu garbitu beharrik izango, eta horretarako ohiturak aldatu behar ditugu denok".

**BAZKARIA**

Gaztetxekoek eskertu egin nahi dute errekan ibili zirenen laguntza, baita denendako bazkaria gertatu zuten Juanita Zabalorena eta Meltxor Legorbururena.



Botinak jantzi eta errekan sartuta zabor mordoa jaso zuten poltsetan; argazkian, Eguzki auzo atzean. JABI ETXANIZ

bere ustez



Antonio Deogracias

## Lagunak, lagun onak betiko

Nire egoera ekonomikoa ez zebilen oso ondo uda hasiera honetan; auto berria erosi beharra izan nuen eta ezinezko zitzaidan oporretan inora joatea.

Manoli lagunari horixe bera komentatu nion eta berehala berak: "Nork dio hori? Peñiscolan hozkailua beteta daukan etxea daukazue hutsik hamabostaldirako! Zoazte! Gasolina baino ez duzue behar! Zertarako daude bestela lagunak?''. Mahai gainean etxeko giltzak lagata joan zen.

**"Adiskideak zein garrantzitsuak diren ohartu naiz, eta ze gutxi baloratzen ditugun"**

Eta guk, esan eta egin. Hurrengo goizean atera ginen hara.

Ez dugu parrilladarik edo mariskadarik egin; jatekoa supermerkatuan erosi dugu; bizikleta oporraldia izan da; eguzkia eta hondartza eta gauetan udako terrazaren baten dantzaldia, garagardo pare bat hartuz.

Horixe izan da gure udaldia, ohiko oporraldia, alegia. Ondo pasatu dut. Gainera, adiskideak zein garrantzitsuak diren ohartu naiz, eta ze gutxi baloratzen ditugun. Ez gara ohartzen, galdu artean.

Eskerrik asko, guztiarengatik. Jadanik ez dira holako lagunak topatzen. Horregatik, geroz eta gehiago nabari da tristura eta bakardadea munduan.

> TXIRRINDULARITZA

### Banatu dituzte gaztetxoen bizikleta probetako sariak

Herriko gaztetxoen artean txirrindularitzarako zaletasuna bultzatzeko asmoz, Txirrindulari Elkarteak urtero bost proba antolatu ohi ditu auzoetako jaien aitzakian: Iralara, Uzarragara eta San Martzialera igoerak eta jinkana bana Kalebarrenen eta Ondarra plazan. Aurten guztira 30 neska-mutikok hartu dute parte eta, proba guztiak amaituta, banatu dituzte sariak. Txikienen mailan Jon Larrea izan zen sailkapen nagusian lehena; aurre-benjaminetan, Unai Murgiondo; benjaminetan, Unai Larrea; alebin mailan, Haritz Kortabarria; eta nesken mailako saria Jone Jauregik jaso zuen.

ZERBITZUAK > ORDUTEGIA

## Ikasturte hasierarekin batera, hainbat lekutan ordutegi berriak ipini dituzte abian

Udaletxean, eguneko zentroan eta erretiratuen elkartean mantendu egin dute ordutegia

I.A. > ANTZUOLA

Askorendako oporrak amaitu eta ikasturte berria hastearekin batera, ordutegiek ere izaten dute aldaketarik. Udaletxean herritarren arretarako ordutegia bere horretan mantendu eta neguan ere 08:00etatik 14:00etara bitartekoa izango da.

Liburutegian irailaren 14an hasiko dira ordutegi berriarekin, bitartean 11:00etatik 14:15era izango da zabalik eta ordutik aurrera 10:00etatik 12:30era goizez eta 16:45etik 19:30era arratsaldez; ostiraletan 19:00etan itxiko dute. Liburutegian dagoen KZgunera tutorea martitzenetan etorriko da 16:00etatik 20:00etara jendearen zalantzak argitzera.

**ESKOLAK**

Herri Eskolan hilaren 8an hasiko dute ikasturte berria, bi urteko gelakoek izan ezik; haiek irailaren 9an hasiko dira. Lehenengo goizez, 09:00etatik 13:00etara izango dituzte eskolak eta hilaren 14tik aurrera goizez 09:00etatik 12:30era eta arratsaldez 14:30etik 16:30era.

Haurreskolan gaur, egubakoitza hasi dira umeak eta ordutegia gurasoen eskarien arabera moldatuko dutela jakinarazi digute hezitzaileek.

Eguneko zentroan ez da aldaketarik izango eta orain arte bezala 09:00etan zabaldu eta 18:00etara bitartean egongo da irekita.

Erretiratuek Torresoroan duten egoitza abuztuan zabalik izan da eta ikasturte berriarekin berriz eutsiko diote txandakako sistemari. Egunero 15:00etatik 19:00etara izango da zabalik eta kina egunetan 20:00ak arte. Gaztetxekoek ere udako atsedenaren ostean, berriz ekin diote egubakoitzetan batzarrak egiteari eta 22:00ak inguruan elkartuko dira aurrerantzean ere.

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

HEZKUNTZA > IKASTURTE HASIERA

# Bost umek inauguratu dute gaur ikasturtea haurreskola berrian

Herri eskolak hilaren 9an zabalduko ditu ateak 2009-2010 ikasturteari hasiera emateko eta Udaleko Kirol Zerbitzuak urriaren 1ean jarriko dira martxan



Uztailean egin zuten haurreskolaren lekualdatzea Torrealdeko egoitzara. L.Z.

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Hasi da ikasturtea Elgetako haurreskolan. Lehenengo aldiz bere behin betiko egoitzan egongo da zerbitzu hori. Egoitza berriari esker, gainera, orain arte baino 13 plaza gehiago eskainiko ditu, guztira 23 ume har ditzake-eta.

Ikasturte hasiera honetan bost umek inauguratu dute lokal berria, baina gehiago izan daitezke, hil honetan bertan zabalduko dute-eta hurrengo izenematе epea. Kasu horretan, zerbitzua azaroan, abenduan, urtarrilean edo otsailean erabiltzen hasteko-ak diren umeei zuzendua.

Haurreskola berriak hiru gune ezberdin dituela esan daiteke: bat, 0-1 urte bitarteko umeendako; beste bat, 1-2 urte bitartekoendako; eta azkena, kanpoko aldeko jolasgunea edo patioa. Horretaz gain, lokalaren beste aldean ludoteka eta gaztelekua egokituko dituzte.

**JOLASGUNE ESTALIA**

Ikasturte hasiera honetan, bestalde, albiste ona jaso du Elgetako Udalak: hain zuzen ere, eskola zaharretan Udal Gobernuak egitea aurreikusten duen jolasgune estalirako 43.238,32 euroko dirulaguntza onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailak.

Udalak esku artean duen aurrekontua, baina, 124.805,92 euro da. Horren harira, bestelako dirulaguntza poltsetatik finantzazioa lortzeko ahaleginetan dihardu orain.

**UDALEKO KIROL ZERBITZUA**

Hamar jarduera ipini nahi ditu martxan ikasturte honetan Kirol Zerbitzuak: psikomotrizitatea (20 euro hilean), eskola kirola, GAP/stretching (25 euro), yoga (30 euro), tai txia (30 euro), gazte gimnasia (25 euro), hirugarren adinerako gimnasia (7 euro), spinninga (30 euro), sasoian egoteko gimnasia (25 euro) eta oinarrizko heziketa fisikoa (50 euro).

Behar beste jende batzen bada spinningeko bi talde egitea da hasierako asmoa. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 26ra bitartean eta Udalak ikastaroon ordutegiak ere finkatu ditu. Interesatuek udaletxera jo behar dute. Urriko lehenengo bi asteetan, gainera, ate irekiak egingo dituzte, proba egiteko, doan.

## oharrak

JAIAK
**> Baserritarren azoka eta Lambretta motorren topaketa**

Herriko baserritarrek hilaren 19an egingo dute urteroko azoka eta biharamunean, Vespa eta Lambretta motorren V. topaketa izango dugu herrian.

Azokan saltokia ipini nahi duten baserritarrek udaletxera jo behar dute. Vespa eta Lambretta motor topaketako bazkarian izena eman nahi dutenek, berriz, Iñaki jatetxera deitu behar dute.

BASERRITARRAK
**> Mendi nekazaritzaren proiektuak aurkezteko epea ixtear**

Udalak aurten ere hainbat proiektu aurkeztuko ditu Mendi Nekazaritzara bertatik landa guneko hainbat proiektu egiteko dirulaguntzak lortzeko. Baserritarrek astelehenera arteko epea dute, hilak 7, udaletxean euren proposamenak aurkezteko.

ERRETIRATUAK
**> Egun pasa Oiartzunen eta Hondarribin hilaren 11n**

Oiartzungo sagardotegi batean egingo dute hamaiketakoa eta Hondarribiko Ardora jatetxean, berriz, bazkaria. Egitarau polita prestatu dute Elgetako Xalbadorpe elkarteko erretiratuek hilaren 11rako.

Interesatuek Pedro Mari Uberarengana jo behar dute hilaren 6a baino lehen. Prezioa 30 eurokoa da elkarteko bazkideendako eta 40 euroa, berriz, elkarteko bazkide ez direnendako.

> TURISMOA

### Krisia dela-eta turista kopuru jaitsiera sumatu dute aurten Elgetako bi landetxeetan udan

Langileekin bete du aurten landetxea Eguzkitzako ugazabak, eta hasiera baten uste baino jende gehiago ibili bada ere, iaz baino turista gutxiago etorri dela adierazi digute Barrenenguan. "Azken orduko erreserbak izan dira, bost bat eguneko egonaldiak". Kataluniatik, Valentziatik, Galiziatik eta Andaluziatik etorri dira.

> MENDI LASTERKETA

### Oihana Kortazarrek laugarren egin du Espainiako Kopako azken aurreko proban

"Txorkatilan arazoak ditut eta ahulaldia izan nuen", adierazi du elgetarrak. Kortazarrek 04:06:13:46 denbora egin zuen abuztuaren 23an Ourensen jokatutako Kopako lasterketan. Lehenengo jarraitzen du sailkapen orokorrean eta irailaren 27an Sabiñanigon jokatuko den azken proban Espainiako Kopa eskura dezake.

> LANGABEZIA

### Abuztuan 46 elgetar zeuden Enplegu Bulegoko langabeen zerrendan izena emanda

Aurreko urtearekin alderatuta gora egin du langabezia tasak Elgetan. 2008ko abuztuan 23 herritar zeuden Enplegu Bulegoko langabeen zerrendan izena emanda. Bikoiztu egin da, beraz, kopurua azken 12 hilabeteotan. Langabezia tasa %9,35 da uneotan; Leintz Gatzagak eta Oñatik dute txikiagoa Debagoienean.

LANAK > ASENTZIO

## Negura bitartean lanak Asentzion



Apar gorria zegoen Asentzioko putzuan aurreko aste bukaeran. L.Z.

L.Z. > ELGETA
Aparkalekuak eta komunak egingo dituzte Asentzion. Txitxiburruntzia egiteko erretegiak berritu egingo dituzte, eta mahai gehiago ipini. Laster hasiko ditu lanok Mendilankor kooperatibak. Eusko Jaurlaritzak ipiniko du aurrekontuaren zati handiena: 185.543,61 euro. Gainerakoa, berriz, BEZari dagozkion 29.686,98 euroak, Elgetako Udalak ordainduko du.

"Agintaldirako geneukan erronketako bat zen", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Egindako gestioei esker bideragarri egin dugu, eta herriari diru zama handia ekarri barik". Naturguneari erabilpen egokiagoa ematea da lanon helburua.

**KARRAMARROAK**

Putzuaren itxurak, bestalde, eman du zeresana azken egunotan. Karramarro amerikarrak akabatzeko Foru Aldundiak botatako produktuaren eraginez apar kapa gorri batek estaltzen du putzua. Jakin dugu Aldundiko basa animalien eta landareen zerbitzuak produktu horren eraginaren jarraipena egiten diharduela. "Argiaren eta eguzkiaren eraginarekin desagertu beharko luke apar horrek", adierazi du zerbitzuburu Iñigo Mendiolak. Biologoak jakinarazi du basozainak putzuaren jarraipena egiten ari direla.

Gogoratu behar da Aldundiak inbaditzaileak diren karramarro gorriak akabatzeko produktu bat esperimentatu duela udan Asentzioko putzuan.




Irudian agertzen den moduko galdara bat erabiliko litzateke energia sortzeko. GOIENKARIA

**AZPIEGITURAK** > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

# Egurra erreta Ibarra osoa berotzeko aukera legoke

Udalak Ibarrako etxebizitza guztiak energia garbiekin berotzeko aurreproiektua landu du

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak energia berriztagarrien aldeko apustuarekin jarraitzen du eta aurreproiektu garrantzitsua landu du horren ildora. Udalaren asmoa da egurra erreta Ibarrako etxebizitza eta eraikin guztietara ur beroa eroango duen sarea egitea. Ura berotzeko energia egurra erreta lortuko litzateke, eta horretarako galdara eskola inguruan ipiniko litzateke. Modu horretan, Ibarrako etxebizitza guztiak (400) berotzea lortuko litzateke, eta baita udal eraikinak ere: Sastiña, udaletxea, hiltegi zaharra, anbulatorioa, haur eskola, eskola, kultura etxea, kiroldegia eta hilabete batzuk barru eraikitzen hasiko diren eguneko zentroa eta musika etxea.

Udalak sarearen azpiegitura egingo luke herri guztirako. Baina partikularrek gero, eurek ordaindu beharko dituzte sare horretara konektatzeko egin beharreko lanak.

Proiektuaren aurrekontua 2.800.000 euro da, baina aurreproiektua besterik ez da. Udala aurreproiektua aurrera eraman ahal izateko dirulaguntza bila dabil orain. Eusko Jaurlaritzaren Erein proiektuaren bitartez aurrekontuaren %40 ordaintzeko dirulaguntza jasotzea espero dute, baina erantzunaren zain daude oraindik ere.

Alkateak azaldu du asmo handiko proiektua dela: "Energia berriztagarriak erabiltzeaz gain, energia hori lortzeko erregaia bertan lortuko genuke eta lehenengo sektoreari bultzada emateko modua izan daiteke".

**GERTAERAK** > IRUZURRA

## Kanpotar batzuk iruzurra egiten ari dira asfaltoarekin

**A.B.** > ARAMAIO

Udalak abisua eman du esanez Aramaioko zenbait baserritan iruzurra egiten dabiltzala kanpotar batzuk. Ekainaren amaieran bi baserritan egin zuten iruzurra eta Udalak azaldu du berriro ere herrian dabiltzala. Erresuma Batukoak ei dira eta eraikuntza enpresa batekoak direla esanez joaten dira baserrietara. Beste lan batzuetatik asfaltoa sobratu zaiela-eta prezio merkean saltzea proposatzen diete baserritarrei, eta baserri ingurua txukuntzea asfalto horrekin. Kontua da, baina, asfaltoa pisatzeko gailua manipulatuta daukatela. Horrez gain, lanak bukatu ostean alde egiten dute inolako bermerik eman gabe. Ekainean Udalari lan batzuk egin zizkioten, baina Udalak iruzurra zela ohartzean ez zizkien ordaindu hitzartutako 4.000 euroak. Herritarrei kontuz ibiltzeko eskatu die Udalak.

> INGURUMENA

### Material bereziak birziklatzera botatzeko Puntu Berde Mugikorra Aramaion izango da bihar

Birziklatzeko ohiko edukiontzietara bota ezin diren etxeko hondakinak batzen ditu Puntu Berde Mugikorrak: motor olioa, bonbillak, fluoreszenteak, herbizidak, gurpilak, pilak, aerosolak eta pinturak, besteak beste.

Puntu Berde Mugikorra Ibarran egongo da 13:00etatik 16:00etara eta Azkoagan 16:00etatik 17:00etara.

> MENDI MARTXA

### Abiadura Handiko Trenaren kontrako udako martxa domekan iritsiko da Aramaiora, 14:00etan

Gasteiz eta Bilbo arteko Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea zeharkatuz egingo duten martxa Aramaiora iritsiko da irailaren 6an, domeka. 14:00etan iritsiko da herrira, baina ordubete lehenago trikipoteoa egingo dute herriko kaleetan zehar. 15:00etan herriko elkarte batean bazkalduko dute eta 18:00etan antzerkia egongo da *AHTren izenean amen* izenburupean.

> KZGUNEA

### Irailaren 7an eta 21ean ateak irekiko ditu KZguneak eta kurtso berriak eskainiko dituzte

Irailean ere kurtso berriak eskainiko dira KZgunean; hilaren 7an eta 21ean irekiko ditu ateak, 16:00ak eta 20:00ak bitartean. Tutorea bertan izango da ordu horietan eta, besteak beste, honako ikastaroak eskainiko dira: *Sare sozialak, Skype, Google tresnak, Youtube, Flickr* eta *Softonic*.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95











*"Leintz Gatzagako Udalak
Andramaixa zoriontsuak
opa dizkizue gatzagar guztioi"*

GOIENKARIA
2009ko irailaren 4a



agurra

Eusebio Villar > Alkatea

## Baztertu ardurak eta gozatu jaiak

Igarotzen ari garen kinka dela-eta urte latzak izango diren arren, Jaietako batzordeak gatzagarren laguntza eta ahaleginari esker, aurtengo jai egitaraua prestatu du.

Jakina baita partaidetza handiagoarekin jaiak ere hobeak izango direla.

Oroitzapen berezi bat gaixo edo bestelako arrazoiengatik jai hauetan gure artean egoterik izango ez duten guztientzat.

Antolatutako jaiak adin guztientzako gogokoak izango diren desioan, jaiak gozatzeko ez baitago adinik.

**Gora, Gatzagako jaiak!**

MUSIKA EMANALDIAK ANDRAMAIXETAN

# Punk-oi! doinuak eta perkusioa nagusi jaietan

Gaur, inguruko herrietako bost talde gaztek joko dute, 22:00etan hasita

Bihar, zapatua, Zo Zomgo perkusio taldeak girotuko ditu herriko kaleak



Arrasateko Dirty Acoustic Brothers taldeak punk-oi! musikaren ereserkiak modu akustikoan eskainiko ditu. J.B.

**JOKIN BEREZIARTUA** > LEINTZ GATZAGA

Aurreko urteetan baino aurrekontu murritzagoarekin, jai egitarau berbera antolatzen saiatu dira gatzagarrak. Eta musika eskaintzari erreparatuz, helburua lortu egin dutela esan beharra dago.

Izan ere, musika ezinbesteko osagaia da edozein herritako jaietan, parrandarako gogoekin eta egunero ardurak ahazteko nahiarekin batera. Bada, musikak protagonismo berezia izango du gaur hasi eta martitzenera arte iraungo duten Gatzagako Andramaixetan.

**PUNK-OI! MUSIKA GAUR...**

Ohitura bihurtzen ari da Gatzagako jaietako lehen egunean rock jaialdia egitea. Aurten, gainera, inoiz baino talde gehiagok joko dute plazan, bost taldek guztira. Hauexek dira agertoki gainera igoko diren taldeak: Arrasateko Dirty Acoustic Brothers eta Aggressive Combat, Aretxabaletako The Crackers eta Krisis eta Goierri aldeko The Last Strength.

Bost talde, beraz; gazteak guztiak eta, ingelesezko izenak baditutze ere, Debagoienekoak dira, The Last Strength taldea izan ezik. Jorratzen duten musika estiloari dagokionez, punk-oi! doinuak izango dira nagusi gaur gauean. Hori bai, talde bakoitzak bere erara egindako rock oldarkorra eskainiko du. Hau da, batzuek modu akustikoan landuko dituzte punk-oi! musikaren ereserkiak eta besteek punkaren formarik gordinena taularatuko dute. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira, eta gonbita egina dago.

**...ETA PERKUSIOA BIHAR ETA ETZI**

Gazteei zuzendutako rock jaialdiaz gain, izango da bestelako musika eskaintzarik. Bihar, adibidez, Zo Zomgo perkusio taldeak girotuko ditu herriko kaleak, 20:00etan hasita. Gatzagako Udalak berritasun nagusi moduan aurkeztu du emanaldi hori.

Bestalde, domeka eguerdian musika eta dantza uztartuko dituen emanaldia izango da.







GATZA-GAIN
Jatetxea

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Espezialitateak: Baserriko oilaskoa, etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



Tel.: 943 71 40 05 GATZAGA

Ondo ibili jaixetan!

## JAI EGITARAUA

**4, egubakoitza**
**18:00** Jai hasiera etxafuego eta bonba japoniarrekin.
**19:00** Ama Birjinaren bederatziurrena Dorletako santutegian.
**19:00** Zezen mekanikoa herriko plazan.
**22:00** Rock kontzertua.
**03:00** Zezen mekanikoa.

**5, zapatua**
**11:00** Kenpo erakustaldia.
**12:30** Herri kirolak plazan. Ondoren triki-poteoa.
**16:00** Umeendako jolas parkea.
**19:00**, Ama Birjinaren bederatziurrena.
**20:00** Zo Zomgo perkusio taldearen emanaldia.
**21:30** Herri afaria.
**24:00** Trikizio taldearekin dantzaldia eta bolo txapelketa.

**6, domeka**
**09:00** Mendi bizikleta zeharkaldia.
**12:30** Meza, Dorletako santutegian. Eguerdian: *Lapulga* eta konpania, Javier Antoñana gitarra, *El Penique* kantea, *Giliyo* perkusioa eta *Askoa* dantza.
**17:00** Pilota partiduak: herriko pilotariak eta Debarroko finaleko errebantxa.
**18:00** Deiadar txaranga.

**7, astelehena**
**16:30** Umeendako jolasparkea.
**19:30** Bederatziurrena Dorletan Eskoriatzako abesbatzarekin. Ondoren, gazta eta ogia.

**8, martitzena**
**11:00** Otxandiokoei ongietorria.
**12:00** Meza nagusia Eskoriatzako abesbatzarekin.


Musikak tarte handia izango du; hemen, iazko kontzertua. GOIENKARIA


Gatz museoan erakustaldia egiten. GOIENKARIA

**GATZ MUSEOA ANDRAMAIXETAN**

# Gatzarekin egindako jakiak domekan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Eugenio Otsoa gatz museoak ere parte hartu gura izan du Andramaixa jaietan. Hala, Sorginak emakume taldeare eta Soran Etxea hotelaren laguntzarekin aparteko ekimena izango da domekan.

Gatza zelan ateratzen zuten sasoi baten erakutsiko dute museoan eta gatz komertzial ezberdinak jarriko dituzte ikusgai. Gainera, Jakionek ekoizten dituen produktuak egongo dira salgai.

**GATZEZKO BONBOIAK ETA PINTXOAK**

Gatzaren gaineko kontuak erakutsi bakarrik ez, dastatzeko aukera ere izango da. Izan ere, Soran Etxea hotelak gatzezko bonboiak egin ditu egun horretarako. Era berean, Sorginak emakume elkarteak pintxo gaziak gertatuko ditu, bertako tomateekin eta piperminekin eginda. Goizean izango ditu zabalik ateak museoak (11:00-14:00) eta 3 euroren truke sarrera, pintxoa eta edaria eskainiko dituzte.

**KIROLA ANDRAMAIXETAN**

# Herriko pilotariak domekan

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Urtero legez hainbat kirol ekitaldi izango dira jaietan. Erakustaldi bi egingo dituzte bihar, zapatua. Batetik, Eskoriatzako kenpo taldeko kideek egingo dutena pilotalekuan (11:00). Rafa Carriet irakaslearen agindueta kenpoa zer den erakutsiko dute.

Bestetik, herri kirolen erakustaldia izango da (12:30). Aizkoran, harria jasotzen, trontzan eta beste hainbat eratan jardungo dute; baita motozerrarekin irudiak egin ere.

**DEBARROKO ERREBANTXA**

Domekan beste bi ekitaldi izango dira. Goizean VII. mendi bizikleta zeharkaldia egingo dute Gatzagako parajeetan –izenemateak bertan (08:00-09:30)–. Eta arratsaldean, pilota partiduak eskainiko dituzte (17:00). Lehenengo herriko pilotari gazteen arteko norgehiagokak – 18 gaztetxo– eta gero Debarro pilota txapelketako finaleko errebantxa: Arabaolaza-Etxagibel, Rezusta-Urtzelai I.ren aurka eta Mendizabal-Bolinaga, Mugurutza I.-Agirianoren aurka.

Soran
etxea
Hotela • Jatetxea

ondo
ibili
jaixetan!



10 logela zabal eta erosoak
•
Menu bereziak
•
30 pertsonendako aretoa

Santiago kalea 3 • 20530 LEINTZ GATZAGA • Tel.: 943 71 53 98 • info@soranetxea.com • www.soranetxea.com

**Agustin Arantzabal eta Mikel Gonzalez** > Realeko iragana eta oraina, batera

# "Urteurrenak balio izan du zaleak gertuago sentiarazteko"



Mikel Gonzalez *Gontxa* eta Agustin Arantzabal *Gaztelu* Bergarako Bodegoian, atzo. Futbolaz eta

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Mikel Gonzalez (Arrasate, 1985) eta Agustin Arantzabal (Bergara, 1946) batu ditu GOIENKARIAk, Realaren iragana eta oraina. Talde txuri-urdinak 100 urte beteko ditu astelehenean, eta urteurrenaren eta hasi berri den ligaren gainean egin dugu berba Reala barruan daramaten bi debagoiendarrekin.**

**Zelan ari zarete bizi izaten Realaren 100. urteurrena?**

**Mikel Gonzalez:** Jokalariondako urte berezia da, ospakizunen barruan hainbat ekintza izan ditugulako. Gipuzkoako hainbat herritan egin ditugu entrenamendu saioak, abuztuan Real Madrilen kontrako lagunartekoa izan genuen, orain museoa inauguratuko dugu... Baina jokalariok, neurri batean, ospakizun giro hori alde batera utzi eta ligan zentratuta egon behar dugu, badakigulako guk non egin behar dugun lan.

**Agustin Arantzabal:** Duda barik, ilusio handiarekin. Efemeride oso garrantzitsua da Realarendako, ondo ospatzea merezi duena. Urte asko dira horiek.

**Akaso, balio izan du zaleak gertuago izateko?**

**M.G.:** Bai, seguru, gertu daudela sentitzeko. Herrietara joan garenean banderak eman dizkiegu peñei eta gaztetxo mordoa egon da entrenamendu saio bakoitza jarraitzen. Hor konturatzen zara jendeak zelan jarraitzen duen Reala.

Bestalde, urteurrenarekin batera nik uste dut zuzendaritza aldaketak ere egonkortasuna eman diola klubari, lasaitasun handiagoa dago gure inguruan, eta horrek mesede egin dio taldeari.

**Agustin, zuen sasoian gaur egun baino gehiago ala gutxiago jarraitzen zen Reala?**

**A.A.:** Taldea ondo dabilen ala txarto dabilen, jarraipena ez da berdina izaten. Baina nik uste dut lehen jendeak gehiago jarraitzen zuela Reala. Jendeak 1981ean irabazitako liga du gogoan, baina nik uste dut 1967an Reala lehenengo mailara igo zeneko urtea sekulakoa izan zela, Gipuzkoan askok jarraitzen zuten orduan talde txuri-urdina.

**Pena da urteurrena ospatzeko ez dela talde txuri-urdinaren sasoirik onena, baina handia litzateke urteurrenaz baliatzea igoera lortzeko.**

**M.G.:** Urteurrena biribiltzeko modurik onena izango litzateke, bai, baina Realak 99 urte egin zituenean ere urte ona zen kategoriaz igotzeko.

**Zein da Realean egindako urteetako oroitzapenik onena? Eta taldearen historian?**

**M.G.:** Une bat baino gehiago, urteotan ezagututako jendea da azpimarratuko nukeena. Ona baino gehiago, oso une txar bat dut buruan grabatuta: Mendizorrotzako azken bi minutuak. Oraindik ere kosta egiten zait orduan gertatu zena sinistea, sekula pasatu izan ez balitz bezala.

Taldearen historian, berriz, jendeari entzun diot irabazitako ligen gainean berbetan, baina nik orain dela urte gutxi ligan txapeldunorde geratu ziren urtea dut gogoan. Dena dela, Realeko

## REALZALEAK URTEURRENAREN GAINEAN BERBETAN

Realak 100 urte beteko ditu astelehenean, eta efemeride esanguratsu horren gainean galdetu diegu Realeko zale, jokalari ohi, kazetari eta zuzendaritzako kideei

### Juanjo Arrieta
Realeko zuzendaritzako kidea

**"Antolaketan laguntza handia izan dugu"**

"Ehungarren urteurreneko ekintzak burutzeko klubak laguntza handia izan du, Iñigo Olaizola eta beste hainbat lagunez osatutako taldeak lan galanta egin duelako. Normaltasunera itzultzeko gogoa ere badugu, indarrak helburu nagusietan zentratzeko; hau da, kategoriaz igotzea eta konkurtso legetik irtetea".

### Aitor Lopez Rekarte
Realeko jokalari ohia

**"Klub gutxi daude urteurren hori beteta"**

"Ehungarren urteurrena zenbaki biribila da, klub gutxik egin dituzte horrenbeste urte. Bestalde, klubaren urte historikoen gainean, gogoan ditut anaiak jokatzen zitueneko urteak, ni txikia nintzela. Asteburuan seguruenik beteranoen lagun arteko partiduan izango naiz, eta polita izango da, seguru".

### Salba Rodriguez
Aretxabaletako Ametzueta taldea

**"Aurreikuspenak ez direla bete uste dut"**

"100. urteurreraren dela-eta, beno, Reala klub historiko bat dela erakusten du horrek, baina taldeak zituen aurreikuspenak ez dira bete, bigarren mailan jarraitzen dugu eta alde horretatik ez dut ilusio handirik. Ea aurten zer, printzipioz, kopatik kanpo geratu gara dagoeneko, eta traba bat gutxiago dugula esan beharko dugu...".

### Juan Carlos Davila
Arrasate Txuri Urdin taldekoa

**"Realarekin sentsazio kontrajarriak ditut"**

"Batetik, ilusionatuta gaude, egunero ez direlako 100 urte betetzen, baina bestetik, Realak izan dituen azken bizpahiru urteak ikusita... Aurtengo urteari begira ez naiz oso baikorra, ez dut uste igotzeko taldea dugunik. Bestalde, ez dut uste zuzendaritza astero Anoeta jendez betetzeko ezer egiten ari denik".

### Xabi Etxaniz
Bergarako Realzale taldekoa

**"Urteurrenak bultzatu gaitu taldea sortzera"**

"Bergarako Realzale taldea osatzen gabiltza, eta bai, urteurrenak animatu egin gaitu taldea sortzera. Bestalde, ilusionatuta gaude denboraldi berriaren aurrean, eta ea lehenengo mailara igotzerik lortzen dugun. Realak izan duen momentu historiko nagusia garbi daukat, irabazitako lehenengo liga txapelketa".

### Rafa Mungia
Kazetaria

**"Jendeak lan handia egin du Realaren alde"**

"Poztasunez bizi dut urte hau, kirol elkarte edo beste edozein instituziorendako urteurren garrantzitsua delako. Horrek erakusten du urte mordo baten lan handia egin dutela Realaren alde, eta nahiz eta kirol mailan taldea bigarren mailan egon, urteurrena berdin ospatu behar zen, aparteko gauza bat da-eta".

### Inaxio Kortabarria
Realeko jokalari ohia

**"Irabazitako ligak dira Realeko une onenak"**

"Egia da Reala urte hauetan ez dagoela unerik onenean, baina urteurrena ondo ospatu beharrekoa zen. Bestalde, aurtengoari begira, beti bezala Realaren partetik onena espero dut, baina gainontzeko taldeek ere gauza bera esango dute. Realaren historia errepasatuz, bi ligak irabazi zireneko urteak ditut gogoan".

### Bittor Arriaran
Gontxa taldie

**"Taldeak noiz igo deseatzen gaude"**

"Urteurrena tarteko, urtero moduan gabiltza Reala jarraitzen. Herritik sortu zen ekimen batek 100 urte betetzea gauza garrantzitsua da, baina gauza guztien gainetik zaleok Reala noiz igo deseatzen gaude. Une historikoa, duda barik, Xixonen irabazitako lehen liga izan zen; han izan nintzen, eta sekulakoa izan zen".



lehengo eta gaur egungo Realaz berbetan izan ziren bi lagunak. XABIER URTZELAI

ESANAK

## "Urteurrenarekin batera zuzendaritza aldaketak ere egonkortasuna eman dio taldeari"

## "Realaren historian urte onenak etortzeke daudela uste dut; hori espero dut, behintzat"

**Mikel Gonzalez** > Realeko jokalaria

## "Lehenengo mailara igo ginenean baserri atarietan urdinez margotutako izarak jarri zituzten"

## "Taldeak etxean izan behar du indartsu; Anoetan taldeak birrindu egin behar ditu kontrarioak"

**Agustin Arantzabal** > Jokalari ohia

KONTUAN HARTZEKO

## Realak ekitaldiz betetako asteburua du aurretik

Datozen egunotan Realaren 100. urteurrena dela-eta hainbat ekitaldi egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza (20:00) *Real ehun urte* dokumentalaren aurkezpena egingo dute Kursaalen. Bihar, zapatua, 17:00etan Realeko jokalari beteranoak omenduko dituzte (Anoetan), eta 17:30ean Realeko beteranoek lagunarteko partidua jokatuko dute Bartzelonako beteranoen kontra. 19:45ean, berriz, Donostiako hipodromoan zaldi lasterketa egingo dute.

Domekan, hilak 6, Gipuzkoako oinarrizko futbolari omenaldia egingo dio Realak, 18:45ean. Hain zuzen, Realak eta Murtziak jokatuko duten partiduko atsedenaldian egingo dute omenaldia.

Realak, baina, astelehenean beteko ditu 100 urte. 11:00etan urteurreneko zigilua aurkeztuko dute, 13:00etan Gipuzkoako udaletxeko balkoietan Realeko bandera jarriko dute, 19:00etan Realeko museoa inauguratuko dute eta azkenik 20:00etan hasiko da urteurreneko ekitaldi instituzionala.

historiako une onenak iristear daude; hori espero dut, behintzat.

**A.A.:** Nik bi oroitzapen ditut oso gogoan: batetik, 1967an kategoriaz igo ginenean buruan dut Arantzazutik Donostiara autobusean joan ginenean baserrien atarietan jendeak zelan jarri zituen maindireak zintzilik. Izara zuriak kolore urdinarekin margotu zituzten, eta baserriko lanak alde batera utzi eta gu agurtzera etortzen ziren.

Bestetik, Atotxan omenaldia egin zidaten eguna ere oso gogoan dut, hunkitu egin nintzelako. Athleticen kontrako derbia izan zen (5-0), eta Iribar eta Kortabarria orduan legez kanpokoa zen ikurrina eskuan zutela irten ziren zelaira. Semea nirekin zen, 3 urte izango zituen orduan, eta niretako oso momentu berezia izan zen.

**Agustin, kanpotik, eta Mikel, barrutik: zelan ikusten duzue taldea liga hasiera honetan?**

**M.G.:** Nik ondo ikusten dut. Lehenengo partidua berdindu egin dugu, eta ez zen partidu erraza. Entrenatzaile berria dugu, eta kanpotik etorri diren jokalariak ondo moldatu dira taldera. Gainera, Sansetik ere gazte asko igo dira, lana ondo egiten dabiltzanak, eta Reala bezalako talde batendako oso garrantzitsua da hori. Batez ere, taldeak lana ondo egiteko duen gogoa eta ilusioa azpimarratuko nituzke.

**A.A.:** Denboraldi-aurrean asko jarraitu dut Reala, eta lan txukuna egin dutela uste dut. Oraindik, baina, goiz da eta zelaian elkar ezagutu behar dute oraindik, talde moduan jokatu.

Dena dela, hor gauza bat dago argi: etxeko partiduak irabazi egin behar dituzte. Nik gogoan dut kategoriaz igo ginenean, ligako bigarren itzulian partidu bakarra baino ez genuela galdu etxean, eta Realak hor izan behar du indartsu. Partiduak irabazi bakarrik ez, Realak etxean birrindu egin behar ditu kontrarioak.

**Denboraldi-aurrean ze jokalarik harritu zaituzte gehien?**

**M.G.:** Gure taldean jokalari bat dago teknikoki besteon gainetik dagoena, eta hori Xabi Prieto da. Baina Prietok ez nau harritzen, urteak daramatzadalako harekin jokatzen.

Bestalde, Emilio Nsue eta Alberto de la Bella ezagutzen nituen, euren kontra jokatu izan dudalako. Carlos Bueno Uruguain izen handiko jokalaria da, eta berehala antzematen zaio gola duen jokalaria dela, atearen aurrean oso ona. Eta Jonathan Estrada oso jokalari teknikoa da. Dena dela, jokalari guztien artean Prieto nabarmentzen da.

**A.A.:** Nik Nsueri futbolean egiteko baldintza onak ikusi dizkiot, eta jokalari gazte frantziarra, Griezmann, ere gustatu zait. Duen adina baino nagusiagoa dela ematen du, ate aurrean duen patxadarengatik.

**Entrenatzailea ere berria duzu taldeak, Martin Lasarte.**

**M.G.:** Bai. Hasieratik esan zigun bere helburuetako bat taldeak lehen zuen izaera berreskuratzea dela. Hark kontatzen digu Atotxan Realaren kontra jokatu behar zutenean errespetu handiarekin etortzen zirela, Reala talde indartsua zelako. Eta nortasun hori itzuli gura dio taldeari.

**A.A.:** Dena dela, nik badut galdera bat entrenatzaile berriaren gainean: derrigorrezkoa da entrenatzaile bat fitxatzeko horren urrun joan behar izatea? Hemengoek ez dute balio?

**Mikel, datorren urteko ekainean Realarekin duzun kontratua amaitzen zaizula-eta albiste zara egunotan.**

**M.G.:** Bai, tamalez halaxe da. Baina ni lasai nago, badakidalako Realean jarraitu gura dudala eta kluba ere asmo berekoa dela. Espero dudana da lehenbailehen kontratua berritzea, Realean urte asko egitea eta taldea hartu nuen lekuan uztea.

**Kontua da jendea urduri dabilela, zure taldekide izandako bi Athleticera joan direlako udan.**

**M.G.:** Bai, baina nik horren aurrean ezin dut ezer egin. Esan gura dudana da nik nireari begiratzen diodala, eta oso argi daukadala zer gura dudan. Ni bertakoa naiz, Reala bizi dut, Reala sentitzen dut eta nahiz eta inoiz ezin duzun esan etorkizunean non amaituko duzun, Realean geratu nahi dudala esaten badut horixe gura dudalako da.

**A.A.:** Niri pena ematen didana da Mikel bezalako jokalari bat egoera horretan ikustea, presio handia izango duelako inguruan. Egoera horrek konponduta behar luke aspaldi.

Zorionak Reala!
real100 1909 2009
OGIZUN koop. elk. okindegia Bergara / Oñati
BASATI TABERNA Pintxuak, bokatak eta traguak Tel. 943 71 17 68 Arrasate
IparProject Bergara
ETXEBERRIA BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA Bergara
ONENA Tindategia Bergara
ZABALA Optika Bergara
Zumelaga JATETXEA Bergara
BILTOKI ASPIZA S.L. Bergara

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

# UDAk Leioaren bisita izango du domekan

## Azpeititik puntu baliotsua ekarrita, UDAk etxeko lehen partidua jokatuko du domekan, 16:30ean, liga oso indartsu hasi duen Leioaren kontra

**X.U.** > ARETXABALETA

Domekan partidu amaieran Garmendipe futbol zelaian lasaitua hartu zuten Aretxabaletako mutilek. Lasaitua, denboraldiaurrea luzea egin zaielako, liga hasteko irrikan zeudelako eta ligako kontrario gogorrenetako baten zelaian itxuroso jardute-ko gauza izan zirelako. Bada, hurrengo azterketa etxeko ikusleen aurrean izango dute, domekan, Leioaren kontra. Talde bizkaitarrak bikain hasi du liga, Aguraini 3-0 irabazita; iaz Mondran izan zen Julen Zaitegik egin zuen Leioarendako lehenengo gola, eta aurrelari arrasatearra Ibarran izango da domekan.

**"KONTRARIO GOGORRA"**

Azpeitiaren kontrako partidua amaitu eta gero Igor Gorbilek Leioaren gainean egin zuen berba GOITBrendako, oraindik talde bizkaitarrak zer egin zuen jakinean egon barik: "Bizkai aldeko talde gogor horietakoa da Leioa, eta gure etxean gogor egin beharko dugu lan. Dena dela, taldeak gaur erakutsi duen jarrera positiboarekin geratzen naiz".

Liga hasita, taldeko azken gorabeheren gainean ere egin zuen berba Gordobilek: "Azken egunotako gertaera txarrena izan da fitxa kopuruagatik Eriko taldetik kanpora geratu izana, federazioak 16 fitxa baimentzen dituelako eta 17 jokalari genituelako. Urte hauetan guztietan sekulako lana egin du klubean eta taldeak gaur lortutako puntua Erikori eskaini gura izan dio".



UDAk puntu baliotsua ekarri zuen domekan Azpeititik. GOIATZ ARANA



GOIENKARIA

## Mendiko bizikleta irteera Gatzagan

Urtero moduan, Leintz Gatzagako mendiko bizikleta irteerak hasiko du, domekan, Debagoienean egiten diren martxen *denboraldia*, eta datozen bi hilabeteetan etorriko dira Oñatiko, Eskoriatzako, Arrasateko eta Bergarako irteerak. Etziko (09:30), antolatzaileek 33 kilometroko ibilbidea prestatu dute eta umeendako beste ibilbide bat egingo dute.

> PILOTA

## Aitor Mendizabal nagusitan eta Ibai Bolinaga gazte mailan, Antiguo txapelketako irabazleak

Joan den domekan jokatu zituzten Antiguo txapelketako finalak, Donostian, eta txapeldunen artean bi debagoiendar izan ziren: gazte mailan Sukiak eta Arrasateko Ibai Bolinagak 22-19 irabazi zieten Urbieta eta Aretxabaletari eta nagusien mailan Antzuolako Aitor Mendizabalek eta Iruretak 22-9 hartu zituzten mendean Onsalo eta Galarraga.

Finalean txapela janztearekin batera, Aitor Mendizabal izendatu zuten txapelketako pilotaririk onena.




ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



BERMEA 2 URTE
1000 b/min
5 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA A 3TS-50100
295 € Balay



BERMEA 2 URTE
1000 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2810
445 € FAGOR



BERMEA 2 URTE
1200 b/min
8 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
470 € FAGOR



BERMEA 2 URTE
185 x 60 x 60 mm
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA DRAMG-185
490 € edesa



BERMEA 2 URTE
185 x 60 x 60 mm
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA 3FC67NFX (NO FROST)
649 € FAGOR

pirolisis labea HP-7660 X + 3 fokoko indukzioa VI-3 TS
lehen: 1.099 €
Orain bakarrik:
933 €



eta gainera ontziteria hau opari

Eskaintza bereziak babes ofizialeko etxeetarako!



Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



> OIHULARI
'eZINEMAn' antzezlana eskainiko dute gaur gauean Bergarako Zabalotegi aretoan > 40



> LEINTZ BAILARA
Leintz Bailararen historiari buruzko liburua aurkeztuko dute hurrengo zapatuan > 43



> TELEBISTA
'Harmailatik' saioa txuri-urdin jantziko da astelehenean taldearen 100. urteurrenean > 43

New Guass aretoa zabalduko dute hilaren 12an Bergaran

Diskoteka saioak eta kontzertuak tartekatzea da arduradunen asmoa

# Jam eta Guass, biak baten

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Argiketariak, arotzak, soinu teknikariak... mugimendu handia dago egunotan Jam aretoan. Uda osoan lanean eman dute Amillagako aretoari itxura berria emateko. Izan ere, jabe berriak ditu Bergarako areto ezagunak: Eduardo Feijoo elgoibartarra eta Urtzi bilbotarrak gidatuko dute Jam aurrerantzean. Feijook Elgoibarko Guass aretoa eraman du azken 20 urteotan. Hori dela eta, badira nobedadeak aretoaren izenari dagokionez: diskoteka saioetarako New Guass izena erabiliko dute eta kontzertuetarako, aldiz, Jam *markari* eutsiko diote.

Eduardo Feijoo ilusionatuta dago etapa berri honen aurrean: "Ordenazio arrazoiengatik hilabete honetan bertan Guass ixtera behartu gaituzte eta, Bergarako aretoa eskuratzeko aukera sortu zenez, aukera ona iruditu zitzaigun. Apustu handia egin dugu Urtzik eta biok, baina ez genuen bitan pentsatu. Uztailean egin genuen tratua lehengo jabeekin, eta ilusioz beterik gatoz Bergarara... Eibar-Gasteiz autobideari esker, ondo komunikatuta dagoen aretoa da eta ez da hutsetik hastea bezala. Izan ere, gure partetik esperientzia luzea dugu eta, bestetik, Jam aretoa ere ezaguna da, erreferentzia bat jende askorendako. Kontzertuak eta diskoteka saioak tartekatuko ditugu".

**HAINBAT NOBEDADE**

Dekorazioa, soinua edota argiztapenari dagokionez, nobedadeak izango dira. Eszenatokian DJarendako kabina jarriko dute eta horrela aukera izango dute beheko aretoan eta lehengo Go Jamen bi giro, bi musika mota bereizteko. Diskoteka saioak egubakoitz eta zapatuetan egingo dituzte. Tabernak, berriz, orain arte bezala jarraituko du funtzionatzen.

**KONTZERTUEI TARTEA**

Hala ere, Feijook azpimarratzen duenez, kontzertuek ere protagonismoa izango dute: "Ez da guk menperatzen dugun esparrua, baina horretan esperientzia duten promotoreekin harremanak izan ditugu eta gure asmoa ahal dugun kontzertu guztiak antolatzea da, aretoa primeran gertatuta dago-eta".




Eduardo Feijoo elgoibartarra eta haren lankide Richard Alonso diseinatzailea Jam aretoaren aurrean, joan den eguaztenean. E.M.

## Inaugurazioa, hurrengo zapatuan

New Guass aretoaren inaugurazioa datorren zapatuan, irailaren 12an, egingo dute. Gauerdi aldera hasiko den festan DJ ezagunek hartuko dute parte, eta horrez gain Eivissatik datozen *performanceak* iragarri dituzte egun horretarako. Laser izpiak, *confettia* edota piroteknia ez dira faltako inaugurazioa jaian.

Dagoeneko areto berrituaren programazioa ondoko webgunean kontsulta daiteke: *www.newguass.com*.

Techno musikaren alorrean munduko izarretako bat iragarri dute irailaren 19rako: Ben Sims britainiarra. Harekin batera beste hainbat DJ arituko dira. Sarrerak 15 eurotan jarriko dituzte salgai.



Anduriña Zurututza eta Amaia Arriaren dira antzezlaneko protagonistak. GOIENKARIA

**ANTZERKIA** > OIHULARI KLOWN

# 'eZINEMAn', Oihulariren azken lana Zabalotegin

'De película' antzezlanaren euskarazko bertsioa aurkeztuko dute gaur, 22:30ean; Amaia Arriaran bergararra da protagonistetako bat

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Maiatzean Andorrako Nazioarteko Pailazo Jaialdian aurkeztu zuten *De película* antzezlanaren euskarazko bertsioa aurkeztuko du Oihulari Klownek gaur Bergaran.

Virginia Imazek idatzi eta zuzendutako lana da eta Ainhoa Agirreazaldegi eta Xabi Aizpurua arduratu dira euskaratzeaz. Amaia Arriaran bergararra eta Anduriña Zurututza dira antzezlaneko protagonistak. Puxika ( Zurututza) eta Katiuska (Arriaran) bi mediku dira eta ikusleei *eZINEMAn* izeneko terapia proposatuko diete. Kalabazak eman dizkizute? Gaur ez dago modurik ilea ondo geldi dagizun? Amodio disfuntzional bat bizi duzu? Neska gaizto bat izatearren errudun sentitzen zara? Haserre eraile bat sentitzen duzu? Horrelako galderei erantzuna topatzen saiatuko dira aktoreak eta ikusleak.

*Cabaret*, *Gone with the wind*, Grease edo *Catwoman* filmetako pertsonaiek gure irrikak (batzutan politikoki zuzenak ez direnak) kontatzen lagunduko digute, eta baita gure beldurrak kanporatzera ere. Imazen hitzetan, "beti bezala, Oihulariren asmoa zera da: arazoengandik distantzia apur bat hartu eta hortik arazoetaz barre egin. Noski, gurekin batera ikusleek ere barre egin dezatela bilatzen dugu. Barrearen potentzial didaktikoa erabilita, autoestimua, genero roll-en eraikitzea… bezalako gaiak landu nahi izan ditugu zinemako hainbat arketipo femenino erreferentzia erabilita. Azken baten guztiok nahi dugu gure bizitzaren filmeko protagonista izatea".

**SARRERAK 5 EUROTAN**

Emanaldia 22:30ean izango da Zabalotegiko aretoan eta sarrerak bertan eskuratu ahal izango dira, 5 eurotan. Leihatila ordu erdi lehenago zabalduko dute.

**HISTORIA** > LIBURU AURKEZPENA

## 'La historia del Valle de Leniz' liburua aurkeztuko dute hilaren 12an Aretxabaletan

**E.M.** > BERGARA

*La historia del Valle de Leniz 1260-1750* liburuaren aurkezpena egingo dute hurrengo zapatuan, hilaren 12an, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean, 12:00etan. Rosa Aierbe liburuaren egilearekin batera Aretxabaletako alkatea eta Diputazioko ordezkariak izango dira, besteak beste.

Rosa Aierbe historialaria Hernanin jaiotakoa da 1954. urtean eta Donostian eta Leioan historiako eskolak ematen ditu. Bartzelonan egin zituen historiako ikasketak eta honako hau ez da Leintz bailarari buruz idazten duen lehen aldia: "Ikasketak bukatzeko Leintz bailararen eta Oñatiko kondearen eta gebaratarren inguruko tesinak egin nituen". Juridikoki garrantzia handia duten dokumentu ugari jaso ditu hurrengo zapatuan aurkeztuko duten liburuan; XIII-XVIII. mende bitarteko erroldendatuak, esaterako. Era berean, Valladolideko artxiboan aurkitutako Leintz bailarako 1495eko ordenantzak interes berezikoak direla dio egileak. Sasoi hartan 17 elizatek osatzen zuten Leintz bailara.



Rosa Aierbe. GOIENKARIA

Liburuak 440 orrialde ditu eta 25 eurotan salduko dute (20 euro aurkezpenean). Txartyn de Bazterbero kultur taldekoek bultzatu du argitalpena, Aretxabaletako Udala, Diputazioa, Kutxa eta Bidegiren laguntzaz.

**MUSIKA** > LAU EMANALDI IRAILEAN

## Emanaldi akustikoak Kulturaten, hilaren 11tik

Elurretan bikotea hurrengo egubakoitzean eta Garret Wall Band irailaren 12an, 20:00etan

**E.M.** > BERGARA

Elurretan bikoteak emango dio hasiera Kulturateko kontzertu akustikoei, hurrengo egubakoitzean, hilaren 11n, 20:00etan. Elurretan taldea 2003an sortu zen. Ritxar Gomez (baxua eta koroak) eta Mikel Aizpuruak (gitarrak eta ahotsa) osatzen dute. Euren azken diskoa, *Momo eta beste izaki batzu*, 2008.urtekoa da. Jonathan Richman edo Oskorrirekin konparatu izan dituzte.

Zapatuan, hilaren 12an, Garrett Wall Band taldearen txanda izango da. Lau musikarik osatzen dute taldea eta *Sky Pointing* izenburuko diskoa daukate kalean.

**DOANEKO EMANALDIAK**

Saioa eta Mursego (hilaren 18an) eta, Anni B. Sweet (hilaren 19an) izango dira iraileko beste bi hitzorduak. Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira, doan.



Garret Wall Bandekoak hilaren 12an izango dira Kulturaten. GOIENKARIA

**MUSIKA** > DISKO AURKEZPENA

## Disko berriarekin etorriko da Berri Txarrak Eskoriatzara

Nafarrekin batera, Deabruak Teilatuetan eta Sinbiose taldeek joko dute, hilaren 19an

**E.M.** > BERGARA

Aitzorrotz Kultur Elkarteak antolatuta, Berri Txarrak, Deabruak Teilatuetan eta Portugalgo Sinbiose taldeen kontzertua izango da irailaren 19an Eskoriatzako kiroldegian. Berri Txarrak talde nafarrak orain arte bost disko argitaratu ditu, guztiak ere euskarazko kantuekin.

*Payola* da Lekunberriko taldearen azken lana, seigarrena. Hain zuzen ere, Eskoriatzako kontzertuaren aurretik, hilaren 14an, jarriko dute salgai, Roadrunner Records zigiluaren eskutik. Diskoa Steve Albinik ekoitzia izan da eta Rise Against-eko Tim McIllrath-en kolaborazioa izango du.

**SARRERAK SALGAI**

Hilaren 19ko kontzerturako sarrerak salgai daude 16 eurotan Debagoieneko ohiko tokietan eta *www.ticketmaster.es* webgunean.



Berri Txarrak taldeak diskoa aurkeztuko du Eskoriatzan. GOIENKARIA

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Boluko Koldo Eleizalde kalean. Argitsua. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta terraza. Berogailuarekin. Jantzita utziko genuke. Prezio ona. 655 73 16 61.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Prezio ekonomikoa. 665 70 75 80 edo 943 76 59 93.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Seber Altube plazan. Hiru logela, bi komun, jangela-egongela handia eta sukalde jantzia. 5. solairua, igogailuarekin. Berokuntza zentrala. Terraza eta trastelekua. Prezio negoziagarria. 635 75 50 36 edo 609 40 33 79.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Guztiz hornitua. Berogailuarekin. 669 66 54 99.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. 617 78 85 38 edo 943 79 31 47.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik 200 metrora. Lau edo bost pertsonarentzat. Berokuntza zentrala dauka. 659 44 86 79.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik bi minutura. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Lau edo bost ikaslerentzat. Deitu 625 28 72 06 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela, egongela eta sukaldea guztiz hornitua. Berogailuarekin. 610 01 31 80 edo 943 03 78 20.

**Arrasate.** Ikasleentzako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 666 45 87 42.

**Arrasate.** Unibertsitate ondoan hiru logelako etxebizitza ematen da errentan ikasleentzako. 649 31 95 41.

**Donostia.** 2009-2010 ikasturterako atikoa ematen da errentan alde zaharrean. Bikote batentzat aproposa. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 616 01 40 17.

**Donostia.** Guztiz jantzitako etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Ikasleentzat, 2009-2010 ikasturterako. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailuarekin. 626 00 68 37 edo 943 21 97 50

**Eskoriatza.** Berriztutako baserria ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 21:00ak artean. 693 80 40 47.

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49.

**Oñati.** Eraiki berria den duplex atikoa ematen da errentan. 130 metro koadro. Jantzia. Aire girotua. Domotika. Lau logela eta bi bainugela. 610 73 34 88.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate** edo Debagoienean, familia serioak etxebizitza behar du errentan. Presazkoa da. 671 35 22 60 edo 657 20 30 71.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Irakasle baten etxean bi gela daude alokagai. Etxe berria. 250 euro, gastuak barne. 616 75 41 30.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan Eguzki dorrean. 620 52 94 98.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan erdigunean. 663 65 78 43.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 270 euro. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

**Aretxabaleta.** Bi logela ematen dira errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 659 65 21 45

**Bergara.** Erdialdean logela ematen da errentan. 170 euro gehi gastuak. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

**Donostia.** Pertsona bat behar da ikasle-etxe bat osatzeko. Lau logela, egongela, sukaldea, bi komun eta berogailua. Deitu 618 01 57 07 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara** 17,5 metro koadroko garaje itxia salgai Arane Erreka kalean (Bolu). Deitu 679 31 45 75 edo 943 76 51 29 telefono zenbakietara.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**ARRASATE**

**Taberna salgai txikiteo zonan. 666 40 65 19**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Pertsona nagusi bat** zaintzeko pertsona bat behar da arratsaldeetan, lau ordurako. Deitu 636 07 13 45 telefonora.

**LAN ESKAINTZA**

AED Euskara Elkarteak teknikaria behar du KULTURA ETA AUZOETAKO EGITASMOAK aurrera eramateko.

**ESKATZEN DA**
- Gestio lanetan esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Euskara ahoz eta idatziz menperatzea.

**BALORATUKO DA**
- Arrasatekoa izatea.
- Euskalgintza ezagutzea.
- Informatika programak erabiltzen eta webguneak kudeatzen jakitea.

**ESKAINTZEN DA**
- Sei orduko lanaldia, hasiera batean hiru hilabeterako eta berritzeko aukerarekin.

*Interesatuok curriculuma bidali irailaren 11rako.*

*AED elkartea*
*Pablo Uranga kalea 6 - behea*
*20.500 Arrasate*
*Tel.: 943 77 12 28*
*aed@aedelkartea.com*

aed arrasate euskaldun dezagun

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasaten** lan egingo nuke garbitasun lanetan edo nagusiak zaintzen. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 626 78 22 95 telefono zenbakira.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Mari. 943 53 33 92.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska gertu garbiketa edo sukalde lanetarako, eta baita nagusi edo umeak zaintzeko ere. 608 34 36 11.

**Arrasate edo Bergara.** Neska gertu arratsaldetan nagusiak zaindu edo paseoan ateratzeko. 696 84 19 51.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako edo nagusi zein umeak zaintzeko. Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbakietara.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu sukaldean lan egiteko, edozein ordutegitan. Deitu 648 19 10 38 edo 610 97 82 88 zenbakietara.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Deitu 659 82 75 18 zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Deitu 649 30 13 60 telefonora eta Marirengatik galdetu.

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko gertu arratsaldeetan; esperientziaduna. 618 41 24 79.

**Debagoiena.** 40 urteko emakume ukrainar esperientziaduna lanerako gertu. Paperak ditut eta sukaldean ere jarduten dut. Etxean bertan bizi izango nintzateke. Larisa. Deitu 680 77 34 77 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gaztea garbiketa lanak orduka edo pertsona nagusiak gauez zaintzeko gertu. Deitu 609 23 39 52 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 689 50 61 24.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa edo sukalde lanetarako, zein nagusi eta umeak zaintzeko. Deitu 630 20 12 03 edo 637 21 87 20 zenbakietara.

**Debagoiena.** Emakumea gertu gauez nagusiak zaintzeko. Deitu 646 77 85 31 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. Gauez ere bai. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. Deitu 618 00 08 28 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak orduka eta gauez zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 638 54 75 93.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Orduka, egun erdiz edo gauez. 671 18 50 83.

**Debagoiena.** Esperientzia duen mutila gertu etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 650 17 74 87.

**Debagoiena.** Igeltsero edo banatzaile moduan lan egingo nuke. 610 86 75 93.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. 648 33 93 68 edo 943 79 76 39.

**Delineatzaile**, dekoratzaile eta hirugarren ikasturteko arkitektura ikaslea edozein lanerako gertu. Autocad programarekin esperientzia. 676 61 15 47

**Erizain laguntzailea** lan bila. Adinekoak edo umeak goizez zein arratsaldez zaintzen lan egingo nuke. 650 58 21 69 edo 943 08 20 79.

**Zinpeko zaintzaile** lanetan diharduen neska naiz eta lanpostu horretako oposizioak prestatzen lagunduko didan norbait behar dut. Interesatuok deitu 685 77 66 21 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, etxean. 669 63 52 25.

**Eskola partikularrak** emateko pertsona bat behar da. Lehen Hezkuntzako 4. maila. 652 75 95 64.

**Eskola partikularrak** emateko pertsona bat behar da. 4. DBH Humanistikoa. 652 76 21 63.

**Psikopedagogia** ikaslea naiz EHUn eta eskola partikularrak jaso nahi nituzke. 686 20 31 35.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago. Deitu 670 71 24 97 telefonora.

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Deitu 635 73 77 21 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Esperientzia handia. Deitu 609 94 90 01 edo 943 77 16 90 telefono zenbakietara.

**KOROSTI**
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m$^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m$^2$. Berritua.
- Zubieta 80 m$^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m$^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- San Antonio, 46 m$^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 m$^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m$^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 84.162 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Behiak eta ardiak.** 6 behi eta 18 ardi saltzen dira. Deitu 697 53 08 40 telefono zenbakira.

**Txakurrak salgai.** Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. Bi ar. Hiru koloretakoak. Ehizarako aproposak. Uztailaren 23an jaioak. 649 84 67 09.

### 703. EMAN

**Katakumea** ondo zainduko duen norbait behar da. Oso otzana eta polita da.Hiru hilabete ditu. Egurtua izan da. Deitu 656 75 87 93 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bergara.** Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Manikiak, beira-arasak, metalezko apalategiak, eta mahai osagarriak. Deitu 627 96 19 22 telefono zenbakira.

**Bi bizikleta tolesgarri** salgai. Eramateko poltsarekin. Egoera onean. Kanpinerako egokiak. 130 euro biak. Deitu 688 65 30 62 telefonora.

**Errepideko bizikleta** salgai. Giant etxekoa, 600 euro. Deitu 656 75 35 86 telefono zenbakira.

**Gurpildun aulki** motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. Deitu 618 62 79 43 edo 943 79 65 72 telefono zenbakietara.

**Karro denda.** Brisa modeloa. Egoera nahiko onean eta merke-merke. Krisiari aurre egiteko, hoberena oporretan joateko. 605 73 75 30.

**Nokia 6124** telefono berria salgai. Vodafonekoa. 50 euro. Deitu 617 13 17 51 telefonora.

**Oilagorretarako** txartel bi salgai Burgosen. 3.900 hektarea, haritz eta pinuz, Pinilla de los Barruecos eta Gete herrietan (Salas de los Infantestik 8 kilometrora). Gehienez 11 eskopeta. Txartel bakoitzak 1.200 euro. 696 92 18 29 edo 665 70 10 31.

**Umeendako karroa.** Silver Cross etxekoa. Oso egoera onean. 250 euro. Ez da aulki egiten. Arrasate. Tamara. Deitu 679 23 27 93 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu zenbaki honetara. Deitu 696 32 63 13 telefono zenbakira.

**Borda** edo antzekoa erosiko nuke. Idatzi mezu bat *tuyo585@hotmail.com* helbidera edo deitu: Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Idatzi mezu bat *tuyo585@hotmail.com* helbidera edo deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Umeendako** aulki-kapazoa ematen da opari. Deitu 605 73 37 39 telefono zenbakira.

### 807. AURKITU

**Erlojua** aurkitu nuen uztailaren 18an, zapatuan, Gorlako Santutxuko iturri aldamenean. Txiflo bat dauka eta Lotus etxekoa da. Deitu 680 33 40 77 telefono zenbakira.

### 808. BESTELAKOAK

**Autorako** umeen aulkia beharko nuke. Deitu 650 96 23 08 telefono zenbakira.

**Berogailu elektriko** bat beharko nuke. Deitu 650 96 23 08 telefonora.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero, deitu. 635 20 33 14.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m$^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m$^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m$^2$, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m$^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m$^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m$^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m$^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m$^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA **V. LEHIAKETA**

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

## ...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

**Argazki guztiak fotoblog honetan: *www.goiena.net/blogak/argazkiak***

**Har ezazu parte!**



ZUHAITZ LARRAÑAGA



IDURRE AMOZARRAIN



OLAIA ZENGOTITABENGOA

## Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da uztailaren 3an eta amaituko da irailaren 18an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta edo Basabe poligonoa E-O-5, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte-hartzaileek, gehienez, 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere emango dira.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 5ean jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaiak argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Horrez gain, GOIENAko beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Onenak aukeratuko ditugu orri batean kabitzen direnak argitaratzeko, egilea aipatuz eta beste komentario labur batekin.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiltzea erabakitzen, badugu egilearen izena ipiniko dugu.

## Sariak



### 1. saria

**Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- Live View AF sistemarekin
- 10 milioi pixel.
- Zuiko digital 14-42 mm-ko objektiboa.
- Flash eta guzti.
- 2,7 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.




**2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n Astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaiak-en eskutik.




**3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea: kutxa

Laguntzaileak: kiñu argazkilariak; OLYMPUS Your Vision, Our Future; GURE AMETSA JATETXEA; Arrasate Bidaiak BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA; marsans

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
asteleheneán, aste bukaera osoa

**Harpidedun egiteko:**
**943 08 10 50**
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

# Harmailatik saioa txuri-urdin jantziko da astelehenean

Gaur egun, Realeko jokalaria den Mikel Gonzalez izango dugu Harmailatik saioan

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Txuri-urdin koloreak nagusituko dira asteleheneko *Harmailatik* saioan; egun horretan beteko ditu talde gipuzkoarrak 100 urte. Besteak beste, Mikel Gonzalez, Realeko jokalaria gonbidatu dute saiora. Harmailatik saioko dekoratua ez ezik, ibarreko udaletxetako balkoietan ere Realeko bandera jarriko dute, eta bertan izango dira GOITBko kamerak.

Atxabaltarrek, domekan, Ibarra futbol zelaian lehenengoz jokatuko dute hirugarren mailan. Denboraldiko bigarren partida izango da eta Leioa izango dute aurkaria. Astelehenean tarte zabala eskainiko diote saioan.

Gatzagan, berriz, mountain-bike martxa ospatuko dute. Betebete dator asteleheneko saioa.

**GOITB, 'Harmailatik'**
> Astelehena, 22:15


Realaren bandera udaletxeetako balkoietan jarriko dute astelehenean. GOITB

## telebegi

**Oihane Agirre**
> oagirre@goiena.com

### Tokikoa noiz digitalean?

Amaginarrebak bere etxean ez du *Disney Channel* ikusten, eta ikusi nahi dute bilobek, baina berak badauka TDTa eta ez du ikusten, Euskaltelez ezin du ikusi eta... Telebista aparailu berria erosi beharko duela esan dio goiko bizilagunak; aldamenekoak berriz, ordaindu egin behar duela esan dio. Baina zer demontre egin behar du berak bere etxean 24 orduz marrazki bizidunak ikusteko?.

Nahasmen ederra sortu da LTDaren kontuarekin. Egindako makina bat kanpainek ere ez dute lagundu horretan.

Telebista kateen eskaintza izugarri biderkatu da telebista digitalarekin. Gaur egun, gehiago dira LTDko ikusleak. Baina oraindik ez dugu lekurik digitalean toki telebistok. Guk etxeko lanak egin ditugu eta emititzeko lizentzia lortu dugu, baina sinatu beharreko paper batzuen zain gaude. Eskerrak kablez emititzen dugun!

# Hainbat sarrera zozkatzeko

**GOIENKARIA** > HERRIA
Zozketako zakua sarreraz bete-bete egin du Arrasate Irratiak udako oporretatik bueltan. Musakolako kanpoko igerilekuetara joateko sarrerak eta Hiru musika aretoak antolatzen dituen kontzertuetarako sarrerak dituzte entzuleen artean zozketatzeko. Parte hartzeko, deitu telefonoz 943 25 05 05 zenbakira edo idatzi mezu bat honako helbidera: *irratia@goiena.com*.

**Arrasate Irratia, 'Uda giroan'**
> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara


JOSETXO ARANTZABAL

## Aretxabaleta eta Gatzagako Andramaixa jaiak

Aretxabaleta eta Gatzagako Andramaixa jaien berri emango du GOITBk. Asteburuan, adibidez, Aretxabaletako jaiak botako ditu. Programa horren barruan, gainera, Loquillok emandako kontzertuaren zati handi bat ikusi eta entzun ahal izango da.

Gatzagan asteburu honetan ospatuko dituzte herriko jaiak eta horien berri astelehenean emango dute *Goiena magazinea*-n.

**GOITB, 'Jaiak'**
> Zapatua, 14:30
> Astelehena, 19:45

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 4**
**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Elkartasunaren bideak.
**15:45** Ur eta lur.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 5**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Kantari.
**14:00** Elkartasun bideak.
**14:30** Aretxabaletako jaiak.
**15:30** Trikitraka trikitron.
**16:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Ikusmira.
**19:30** Ur eta lur .
**20:00** Erreportajea.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi:Loquillo.
**23:30** Wazemank.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 6**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:45** Kantari.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Wazemank.
**21:15** Aretxabaletako jaiak.
**21:45** Musikantoi:Loquillo.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 7**
**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wazemank.
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 8**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Solaskide.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Lamien artean.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 9**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta Lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoa Kultura.
**22:45** Harmailatik.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 10**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Elkartasunaren bidean.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Musikantoi.
**18:00** Gipuzkoa Kultura
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 5**

Eguerdira arte lainoak izango dira nagusi, baina eguerditik aurrera ostarte txikiak zabalduko dira. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da.



**Domeka, 6**

Egun eguzkitsua iragarri dute. Haize aldakorra izango dugu, tenperaturek gora egingo dute eta 30 graduren bueltara iritsiko dira.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuko lehen orduetan hodeitsu egongo den arren, gero ostarteak zabalduko dira eta arratsaldean hodeiak desegiten joango dira. Domekarako eguzkia dago iragarrita hodei gutxi batzuekin.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

| | |
|---|---|
| **MINIMOA** Zapatua, 29 | 10º C |
| **MAXIMOA** Astelehena, 31 | 36º C |
| **ASTEKO EURIA** (l/m²) | 4,2 L |

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 26** | 29 | 11 | - |
| **Eguena, 27** | 32 | 17 | 0,8 |
| **Egubakoitza, 28** | 20 | 15 | 3,4 |
| **Zapatua, 29** | 24 | 10 | - |
| **Domeka, 30** | 28 | 10 | - |
| **Astelehena, 31** | 36 | 16 | - |
| **Martitzena, 1** | 20 | 16 | - |



**Eli** eta **Mikel** oñatiarrak zapatuan, irailaren 5ean, Bidaurretan ezkonduko dira. Bazkaria Zumarragako Etxeberrin egingo dute eta bidaian Zeelanda Berrira joango dira. Ondo pasa, bikote, egun bereziak izango dira-eta. Zorionak, etxekoen partetik.



**Alaia Baseta** eta **Aitzol Arregi** oñatiarrak zapatuan, irailaren 5ean, Arrazolako udaletxean ezkonduko dira eta ospakizuna Makatzeta jatetxean egingo dute. Eguna ondo-ondo pasa eta zoriontsuak izan. Muxu handi bana, lagunen eta familiakoen partetik.



Bergarako **Maite Solozabal** eta Seattle-eko **Jason Richards** irailaren 5ean, zapatuan, ezkonduko dira Trizion, Errioxan, eta eztei-bidaian Grezia bisitatuko dute. Koadrilako lagunen partetik, ondo-ondo pasa eguna, bikote, eta muxu handi bana.



Arrasateko **Maribi Gartziak** eta **Jesus Aliaga** nafarrak 32 urte bete zituzten elkarrekin irailaren 3an. Zorionak eta muxu asko, semeen partetik!





**Bixente Azkarate** arrasatearra eta **Iñaxi Lizarralde** azkoitiarra orain dela 50 urte ezkondu ziren Azkoitiko Santa Maria la Real elizan. 50 urteok ospatzeko, zapatuan meza izango da Loiolan eta gero bazkaria familiakoekin Errezilgo Izarre jatetxean. Zorionak!

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 6 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Astelehena, 7 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 18 65 |
| Martitzena, 8 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 9 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 10 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Egubakoitza, 11 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 6 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 7 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 8 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 9 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 10 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 11 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 6 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 7 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 8 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 9 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 10 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 11 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Domeka, 6 | Agirre | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 7 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 8 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 9 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 10 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 11 | Anitua | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

## bono fotoa



**Maala kaletik igoz, Jasokundeko Andre Mariaren elizara iristen gara. Eskualdeko ze herritan gaude?**

**Argazkia eta galdera** >
Miguel Anjel Elkoroberezibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **Juanita Lasa.**
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Zaldispen.**

Garmendia Ardoak

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008 bi botila. Larchago kriantza 2006 botila bat.

**ERANTZUNA** ........................................
IZEN-DEITURAK ........................................
HERRIA ........................................ TELEFONOA ........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

ESKELA

## Jesus Izarzugaza Eguskiza

Donostian hil zen 2009ko abuztuaren 24an.

*Izar berri bat piztutzera doa*
*Euskal Herriko zeru gainean.*

Olatzen koadrila.
Aretxabaletan, 2009ko irailaren 4an.

---

ESKELA

## Jose Luis Gonzalez Monje

Joselu lankidearen aita

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 2an.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.

Arizmendi ikastola

Leintz bailaran, 2009ko irailaren 4an.

---

URTEURRENA

## Andres Etxebarriarteun Agiriano



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 6an, 12:30ean, Aretxabaletako Aozaraza auzoko Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

URTEURRENA

## Adolfo Diaz Lopez



Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 5ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

URTEURRENA

## Ismael Arrieta Roman



Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 6an, 10:30ean, Bergarako Elorregi auzoko San Prudentzio elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

URTEURRENA

## Pilar Arando Uribe

Victoriano Isasisasmendiren alarguna



Hirugarren urteurreneko meza domekan, irailaren 6an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundearen parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

ESKER ONA

## Amparo Arellano Yoldi

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 1ean, 80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2009ko irailaren 4an.

---

ESKER ONA

## Erritxe Barrenetxea-Arando Azkargorta

Inazio Madinabeitiaren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko abuztuaren 6an, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2009ko irailaren 4an.

---

ESKER ONA

## Angel Lasagabaster Unzurrunzaga

'Kuku'

Arrasaten hil zen 2009ko abuztuaren 29an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2009ko irailaren 4an.

---

ESKER ONA

## Aitor Elorza Beitia

'Rubio'

Oñatin hil zen 2009ko abuztuaren 1ean, 43 urte zituela.



Ondra meza zapatuan, irailaren 5ean, 19:30ean,
Oñatiko Agustinotan ospatuko da.
—
*Beti gure bihotzetan izango zara.*
*Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

ESKER ONA

## Antonio Lezeta Altube

Arrasaten hil zen 2009ko uztailaren 31n, 87 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko haren emazte
eta gainontzeko senideen izenean.
—
*Beti izango zaitugu gogoan.*

Arrasaten, 2009ko irailaren 4an.

---

ESKER ONA

## Luis Aranzabal Gabilondo

2009ko abuztuaren 30ean hil zen, 87 urte zituela.



Banan-banan eskertzea zaila zaigunez,
hitz hauen bidez, eskertu nahi dizuegu hiletara
etorri zineten guztioi eta baita, bihotzez,
jasotako elkartasuna eta bidalitako samin-agurrak.
Mila esker gurekin izateagatik.

Bere anai-arreba, koinatu-koinatak eta ilobak.
Uberan - Bergaran, 2009ko irailaren 4an.

---

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

# Irailak 4-11

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ARRASATE
**> Zea Mays eta Brahman taldeak gaur gauean Arrasateko Hiru aretoan**
Aiora Renteria (ahotsa), Iñaki Imaz *Piti* (gitarrak), Ruben Gonzalez (baxua) eta Asier Basabe (bateria) dira Zea Mays. Japonian izan dira udan eta handik etorritako Braman taldearekin eta Kokeinekin joko dute gaur, 22:00etan.

## Musika



OÑATI
**> Aurora Beltran eta Malenkonia bihar, zapatua, Atzeko kaleko jaietan**
Belladona eta Tahures Zurdos taldeetan ibilitako Aurora Beltran ezaguna Oñatin izango dugu zapatu gauean, 22:30ean, Atzeko kalean. Harekin batera, Malenkonia taldeak diskoa aurkeztuko du etxean, lagunen aurrean.

## Erakusketa



BERGARA
**> Xabier de Zerioren eskultura erakusketa Aroztegi aretoan**
Xabier de Zeriok eskultura erakusketa jarri du ikusgai Barrenkaleko aretoan. Erakusketa irailaren 18ra arte dago ikusgai: martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

ARRASATE
**> Eskulan ikastaroa eta orratz lanena irailean**
Eskulan ikastaroa Bea Arregik emango du, irailaren 15etik abenduaren 23ra, martitzenetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara; orratz lanen ikastaroa Asun Mendizabalen eskutik, irailaren 17tik abenduaren 17ra, eguenero, 15:00etatik 17:30era.
Argibideak Ekin Emakume Elkartean, 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARETXABALETA
**> Hainbat ikastaro Arkupen, irailetik aurrera**
Lerro artera: iritzia ematen; pintura; bainika; eskulanak; eta zeramika.
Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

## Hitzaldiak

ANTZUOLA
**> Gortasunaren prebentzioari buruzko hitzaldia**
Antzuolako erretiratuen elkarteak antolatuta.
Eguenean, hilaren 10ean, Torresoroan, erretiratuen lokalean, 17:30ean.

## Deiak

ARRASATE
**> Goikobalu abesbatzak irailean ekingo dio ikasturte berriari**
Abesteko interesa duen edonorendako ateak zabalik

## Musika

ARRASATE
**> Hard voor Weinig eta Never Surrender**
Denboraldi baterako agurra izango da biharko kontzertua Never Surrender arrasatearrendako. Garagardo jaia eta beste hainbat sorpresa izango dira. Hard Voor Weinig taldea holandarra da.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 18:00etatik aurrera.

ARETXABALETA
**> Camerata de la Luna Argentinako abesbatza bihar**
Besteak beste, *Schöne Fremde* (F. Hensel), *Vere Languores Nostros* (T. L. da Victoria), *Canción Norteña* (C. W. Barraquero), *Chacarera de las Piedras* (A. Yupanqui/moldaketa: G. Felice) eta *Calle Angosta* (Zavala /moldaketa: H. Sosa Pinto) eskainiko dituzte. 2003an sortutako abesbatza da eta Francisco Mensa da taldeko zuzendaria.
Bihar, zapatua, Arkupeko Zaraia aretoan, 20:00etan.

## Antzerkia

BERGARA
**> 'eZINEMAn', Oihulariren azken lana, euskaraz**
*De película* antzezlanaren euskarazko bertsioaren estreinaldia egingo du Oihulari Klown taldeak. Amaia Arriaran eta Anduriña Zurututza aktoreekin. Virginia Imaz da zuzendaria eta gidoigilea.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Sarrera, 5 eurotan.

BERGARA
**> 'Karakolaren gaua: eskale baten istorioa', zapatuan**
Zurrunka taldearen kale-antzerki emanaldia.
Bihar, zapatua, San Martin plazan, 20:00etan.

BERGARA
**> 'Ipuin lapurra', datorren egubakoitzean**
Antzezkizuna taldearen eskutik. Jardun euskara elkarteak antolatuta.
Hurrengo egubakoitzean, hilaren 11n, Domingo Martinez Irala kalean, 18:30ean.

ARETXABALETA
**> 'Kanpanilla eta Peter Panen itzala', domekan**
Txalo taldearen eskutik. Bereziki haurrei zuzendutako ikuskizuna.
Domekan, irailaren 6an, Zaraia aretoan, 17:00etan.

## Erakusketak

ARETXABALETA
**> Pintura ikastaroko ikasleen erakusketa**
Urtean zehar pintura ikastaroan egindako lanen erakusketa jarri dute ikusgai Arkupe kultura etxean.
Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. Igandeetan eta jai egunetan itxita.

## Ikastaroak

ARRASATE
**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**
Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.
Argibide gehiago: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

PROPOSAMENA



ARRASATE
### > 'Filamento farolaria' bihar Arrasaten

Bereziki haurrei zuzendutako *Filamento farolaria* zirku ikuskizuna eskainiko du Xabi Larreak bihar, zapatua, plazan, 19:30ean. *Clown* eta mimoaren artean sortutako pertsonaia da filamento, bere lanbidearen gorabeherei aurre egin behar dien farolari xume eta atsegina. Hain zuzen ere, garai bateko farolarietan oinarrituta dago zirku-antzerkiko ikuskizuna. Udazabal programazioaren barruan kokatzen da biharko emanaldia.
Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:30ean.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM BERRIA**

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
- Irailak 5: 12:00tan euskaraz. Irailak 6: 18:00tan gaztelaniaz
Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
- Irailak 6: 15:30etan frantsesez.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
- Irailak 5: 13:00etan gaztelaniaz. Irailak 6: 17:00etan euskaraz
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
- Irailak 5: 15:30tan frantsesez eta 18:00tan gaztelaniaz. Irailak 6: 13:00etan gaztelaniaz.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa
- Irailak 5: 17:00etam euskaraz.

**ETA GAINERA...**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia
Irailak 5: 12:15 eta 13:45
Irailak 6: 12:45 eta 16:00

**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.
Irailak 5: 13:15, 16:15 eta 17:45
Irailak 6: 12:15 eta 16:45

**Esperimentuak zuzenean:** Irailak 5ean eta 6ean, 18:15ean

Eskulanak haurrentzat: Irailak 5 eta 6ean, 17:00etan

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

dituztela gogoratzen dute. Honako taldeak daude: musika tailerra (4-5 urtekoendako); Goikobalu Txiki (6-12 urte); Goikobalu Gazte (12-18 urte); eta abesbatza nagusia.

Argibide gehiago: 669 83 34 38 (Maialen, musika tailerra) eta 615 76 02 89 (Rakel, Goikobalu Gazte).

# Lehiaketak

ARRASATE

**> Santamas irudi lehiaketa**

Santamas Komisiñuek Santamas irudi lehiaketarako dei egin du. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada: egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako (Santamasetako ekintzarik garrantzitsuenak agertuko diren kartela) proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen. Proiektuaren oinarri izango den irudiak Arrasateko Santamas jaien adierazgarri izan behar du; jaiaren bilakaera, hark herrian duen garrantzia, urtetan erabilitako irudi historikoa, etab. hartu beharko ditu egileak kontuan. Orainaldiko irudi bat proposatu eta etorkizunean adierazgarri izango den marka sortzeko irizpideak markatuko ditu.

*http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com*. Egileek edozein galdera edo zalantza izanez gero, *santamasirudilehiaketa@gmail.com* helbidera idatz dezakete.

DEBAGOIENA

**> Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa**

*Zugaz.com*-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat oparituko dute. Azarora artean Zugazera igotako argazkiak eta bideoak hartuko dira kontua. Argazkiaren tituluak euskaraz egon beharko du.

Argibideak ondoko webgunean: *http://goiena.net/blogak/kantari/*

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Epea irailaren 11ra arte dago zabalik.

Argibideak 94 624 34 82 telefonoan edo *www.bideobilera.com* webgunean.

DEBA

**> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba. Argibideak 943 19 28 40 telefonoan.

# Zinema



## Enemigos públicos ****

**Zuzendaria:** : Michael Mann.
**Aktoreak:** : Johnny Depp, Christian Bale, Marion Cotillard.AEB, 2009. 140 min.

Udako eskaintzen artean *Enemigos públicos* izan dugu. Ikustea merezi duen filma da eta oraindik bada aukera. Michael Mannek thrillerrekin lotura duten lanak egin ditu: *Heat*, *Collateral* eta *El dilema*. Oraingo honetan, zuzenean zinema beltzan sartzen da, John Dillinger gangsterraren istorioa kontatzeko. 1930eko hamarkadan gaude Ameriketako Estatu Batuetan eta 1929. urteko porrot ekonomikoaren ondoren, jendea dirudik gabe dago eta begi onez ikusten du Dillingeren agerraldia. Bankuak lapurtzen ditu, eta erabilitako sistema ausarta eta abenturazalea garai hartako metodo berriekin kontrastatzen du; hau da, gangsterrak administrazio ustelarekin tratuak egiten.

Mannek Dillingerren zurrunbiloan murgiltzen gaitu. Gansterra ez da gizon zuhurra, ekintzako gizona baizik. Ez du gerorako planik egiten, oraina bizi du; bankuak lapurtzea gustuko du, baita komunikabideetako izarra izatea ere. Bizkor bizi da, eta abiadura hori zuzendariaren estiloan ikusten da. Mannek oso ondo daki kamera mugitzen, eta oso muntaia azkarra erabiltzen duenez eta istorioan pertsonaia ugari agertzen direnez, kostatu egiten da proposatutako erritmoan sartzea. Baina hori lortu ondoren, filmaren eszenek etengabe gorantz egiten dute, irudi eta momentu zoragarri ugari eskainiaz: basoko etxean sortzen den tiroketa, Dillinger zineman edo polizien bulegoan sartzen, amodio istorioa, filmaren bukaera...

*Enemigos públicos*-en oso ondo islatzen da garai hartako giroa eta gangsterraren bizi frenetikoa. Eta Johnny Deppen interpretazioa ederra ez da atzean geratzen. Pertsonaiari karisma handia ematen dio. Dillingerren ausardia, zakarkeria eta, aldi berean, horren gizalegetasuna erakusten dizkigu. Mannek eta Deppek ematen dute gangsterraren ikuspegi erromantikoa.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

**MONTERRON**

**Las chicas de la lencería**
Egubakoitza: 22:30.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Gamer**
17:30, 20:00, 22:30.

**American playboy**
17:30, 20:00, 22:30.

**Resacón en Las Vegas**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
17:00, 20:30.

**Asalto al tren Penhalm 123**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30.
Domeka: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Up**
Egubakoitza: 17:00, 19:00.
Zapatutik eguenera: 17:00, 19:00, 22:30.

**Enemigos públicos**
17:00, 19:45, 22:30.

Irailaren 4tik 10era.

**FLORIDA-GURIDI**

**Qué les pasa a los hombres**
17:30, 20:00, 22:30.

**Mapa de los sonidos de Tokio**
17:30, 20:00, 22:30.

**Tres días con la familia**
17:30, 20:00, 22:30.

**La buena nueva**
17:30.

**La vida ante sus ojos**
20:00, 22:30.

**Frozen river**
18:00, 20:15, 22:30.

**La clienta**
18:00, 20:15, 22:30.

**Anticristo**
18:00, 20:15, 22:30.

Irailaren 4tik 10era.

**YELMO-GORBEIA**

**Mapa de los sonidos de Tokio**
15:55 (zapatuan eta domekan), 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.

**Up**
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:30, 19:30, 21:30, 23:30.

**Up**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30.

**Ice Age 3: el origen de los dinosaurios**
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:35.

**Harry Potter y el misterio del príncipe**
16:15 (zapatuan eta domekan), 19:15.

**Resacón en Las Vegas**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**G.I. Joe**
22:30, 00:45.

**Hazme reir**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:30.

**Asalto al tren Penhalm 123**
21:45, 00:00.

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
19:30, 22:05, 00:40.

**Pequeños invasores**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:05, 19:55.

**American playboy**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Qué les pasa a los hombres**
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:15, 22:00, 00:45.

**Expediente**
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.

**La proposición**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:30.

**Enemigos públicos**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:00, 19:30, 20:30, 22:00, 23:00, 00:30.

**Gamer**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**ONG Bak**
22:15, 00:15.

Irailaren 4tik 10era. Egubakoitzetik domekara. Gauerdiko emanaldiak zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Ice Age 3: el origen de los dinosaurios**
16:25, 18:25.

**Asalto al tren Penhalm 123**
20:25, 22:35.

**Una mamá en apuros**
20:25, 22:20.

**Up**
16:20, 18:20.

**Resacón en Las Vegas**
16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:30.

**Gamer**
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Qué les pasa a los hombres**
16:30, 19:30, 22:15, 00:45.

**Año uno**
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

**Agallas**
16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 01:00.

**Exorcismo en Connecticut**
22:10.

**Shorts: la piedra mágica**
16:10, 18:10, 20:10.

**Enemigos públicos**
16:30, 19:15, 22:00, 00:45.

**G.I. Joe**
20:00, 22:25.

**Pequeños invasores**
16:10, 18:10.

**Expediente 39**
16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Hazme reir**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

Irailaren 4tik 10era.



**Up**
AEB, 2009.
Zuzendaria: Pete Docter.
96 minutu.
Canneseko azken zine jaialdiari hasiera eman zion marrazki bizidunetako film honek. Areto gutxi batzutan hiru dimentsiotan gozatzeko aukera dago. 78 urte ditu Carlek, eta bere ametsa beteko du: milaka puxika etxeari lotu eta Hego Amerikara hegan egitea. Baina Russell, 9 urteko esploratzaile gaztea, harekin joango da. Abentura ugari biziko dituzte elkarrekin.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Transformers 2**
AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.
Bi urte pasatu dira Sam Witwickik unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean,. abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

**La última casa a la izquierda**
AEB, 2009. Zuzendaria: Dennis Iliadis.
Wes Cravenek 1972an zuzendutako film baten remake-a da honako hau. Mary eta Phylis kontzertu batera joatekotan dira, Maryren 17. urtebetetzea ospatzeko. Baina hirira iritsi aurretik gaizkile batzuk bortxatu eta hil egingo dituzte. Handik gutxira, Maryren gurasoen mendekua iritsiko da...

**¿Hacemos una porno?**
AEB, 2008. Zuzendaria: Kevin Smith.
Zackek eta Mirik institutuan ezagutu zuten elkar, eta ez dute onartu nahi heldutasunera iritsi direla. Dirua egiteko, porno amateurreko filmak egitea erabakiko dute. Kevin Smith zuzendariaren (*Clerks, Mallrats, Persiguiendo a Amy*) komedia berria.

**Millenium: Los hombres que no amaban a las mujeres**
Suedia-Danimarka, 2009.
Zuzendaria: Niels Arden Oplev.
Enpresari aberats batek kazetari bati aginduko dio duela 40 urte desagertu zen ilobarekin zer gertatu zen ikertzeko. Stieg Larsson kazetari eta idazle suediarraren trilogia arrakastatsuaren pantaila handira iritsi da dagoeneko.

**Ponyo en el acantilado**
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

**Mishima: una vida en cuatro capítulos**
AEB, 1985. Zuzendaria: Paul Schrader.
Paul Schrader-ek 1985eko Canneseko Jaialdian aurkeztutako filmaren bertsio berritua eta definizio altuan iritsi da zinema aretora. Yukio Mishima idazle japoniarraren biografia kontatzen du. Mishimaren azken egunetik abiatzen da, 1970eko azaroaren 25etik, haren haurtzaroraino jauzi eginez.

## nire aukera



**Marije Ugalde**
Bergarako Musika Eskolako zuzendaria

# Hondartzako azken egunak

Musika Eskolan ikasturte berria hastear dira. Hain zuzen, eguaztenean, hilaren 9an, eskolara bueltatuko dira ikasleak. 500 ikasle pasatxo dituzte ikasturte berrirako.

Marije Ugaldek sei urte darama zuzendari lanetan. Horrez gain, kantu, abesbatza eta akordoi eskolak ematen ditu. Capilla Peñaflorida, Conductus Ensemble eta Kea taldeetan dabil abeslari. Uda lasaia igaro dutela diosku, etxetik gertu. Hala ere, bost eguneko ihesalditxoa egin zuten seme-alabekin batera Londresera. Orain, lanean hastea tokatzen da.

**Bainujantzia eta txankletak ez zenituen gordeko, ala?**

Ez, oraindik ez. Ea zer-nolako iraila egiten duen. Hondartzara joatea asko gustatzen zait, eta, itxura denez, domekan eguraldi ona egingo du. Ea Zarautzera joateko aukerarik dugun... Igerilekua? Ez, ez naiz oso zalea. Nahiago dut hondartzara joan, Zarautzera edo Laredora, han etxea daukagu-eta.

**Asteburuan zer egitea gustatzen zaizu?**

Oraingo asteburuko ez daukat plan berezirik. Ahal dudanean kontzerturen batera joatea atsegin dut eta bestela lasai ibili, familiarekin. Orain, udan, ahal diren aukera guztiak aprobetxatuko ditugu hondartzara joateko.

**Musikaz aparte beste zaletasunik?**

Irakurtzea... Udan asko irakurri dut, Stieg Larssonen trilogia famatua tartean. Kirola? Ez asko, umeekin bizikletan bueltatxo bat ez bada...

**Hiru taldetan zabiltza. Hurrengo emanaldia noiz?**

Urriaren 20an, Donostian, Capilla Peñafloridarekin. Taldeak 25. urteurrena betetzen du eta ospakizunen barruan kokatzen da Kursaaleko emanaldia. Musika barrokoa egiten dugu eta 19 urte daramat haiekin.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-09-04

# Realaren zaporeko pintxoak

**MONTE** Realaren mendeurrenerako pintxo morunoa gertatu dute Arrasateko Monte tabernakoek

**IAMAI** Asteburu honetan hasiko dira Iamaikoak onddoekin eta Idiazabalgo gaztarekin egindako pintxoak eskaintzen

**KARTELTXOAK** Mendeurreneko pintxoak zein diren adierazteko kartel txuri-urdinak erabiliko dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Realaren mendeurrena Gipuzkoako taberna eta jatetxeetan ere ospatuko dute. Gipuzkoako Ostalarien Elkartearen ekimenez, tabernariek euren sentimendu txuri-urdina azalduz pintxoak gertatu dituzte. Gurean, Arrasateko Monte eta Iamai tabernetan probatu ahal izango dira pintxo berezi horiek.

Monten txitxi-burruntzia gertatu dute urdaiazpikoz betetako txanpinoiekin, piper gorriekin eta berdeekin eta hirugiharrez bildutako ganbekin. Monte tabernako Juan Carlos Davilaren esanetan: "Saiatu ginen pintxoren bat egiten kolore txuri-urdinak erabiliz, baina oso zaila zen eta horregatik egin dugu beste pintxo hori osagarri ohikoagoak erabiliz".

Iamaikoek onddoak eta Idiazabal gazta uztartzen dituen pintxoa egin dute. "Hemengo produktuak erabili nahi genituen eta hainbat proba egin ondoren atsegin eta erakargarriena hori iruditu zitzaigun", dio Iamai tabernako Albertok.

**ERANTZUN ONA ESPERO**

Montekoak pintxo hori eskaintzen hasi zirela badira egun batzuk, eta, barrara gerturatu direnen esanetan, goxoa dago. "Kasualitatez, Realaren mendeurreneko pintxoa gure tabernan lehenengo jan zuen bezeroa Athleticzalea da", esan digu Juan Carlos Davilak.

Iamaikoak gaur goizean hasi dira ekimenarekin, eta bezeroen aldetik erantzun ona espero dute. Tabernakoen esanetan, "horrelako eskaintza bereziek jendea erakartzen dute".

Mendeurreneko pintxoa zein den jakiteko karteltxoak ipini dituzte pintxoen platereetan, bezeroek zalantzarik izan ez dezaten.

Iamaikoek otsailera arte izango dute eskaintza, orduan ospatuko baitute tabernaren hamargarren urteurrena: "Orduan aprobetxatuko dugu jokalariek sinatutako Realeko bi kamiseta zozketatzeko ere", dio Albertok.

Realaren zaporekoak agian ez, baina Realaren aldeko sentimenduz eginak izango dira pintxoak.



**PINTXO BEREZIAK** Monteko Juan Carlos Davila, Realaren mendeurrenerako gertatutako pintxo morunoarekin. JULEN IRIONDO

## ahobero

### "Telebistako nekeaz hitz egiten duten horiek meategira bidali beharko lirateke"

**Risto Mejide** >
Telebista aurkezlea

Ikusleak dira nekatzen direnak horrelako pertsonaiak telebistan ikusteaz eta meatzariak euren lanean jarduteaz, baina gizon honek ba ote daki zer den meategian lan egitea? Bere programa berriarekin laster nekatuko da ala famatuak nekatuko ote ditu?

## iturri onetik

### Donostiako La Perla kafetegiko terrazan kontzertua egingo du Mahaster Riverrek

Elhuyar fundazioak eta EHUk antolatutako kongresuko ongi etorri jaian Bergarako Mahaster River taldeak kontzertu instrumentala eskainiko du Donostian. Irailaren 6an izango da Kontxako La Perla kafetegiko terrazan. Kontzertu horrekin hasiko du taldeak bosgarren urteurreneko emanaldi sorta. Hurrengoa Azpeitiko Orkatz tabernan egingo dute irailaren 25ean 23:00etan.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

### Inter nos

Duela 20 urte luze argitaratu nuen nire lehen zutabea *Arrasate Press* jaio berrian. Aurrez lan solteak emana nintzen han-hemenka, baina orduan hartu nuen astero idazteko konpromisoa. Hemen bertan, GOIENKARIAn, izango dira bost bat urte lehen *Piperrautsa* haizatu nuenetik.

Ikasturte berria hastean gogoratu dut nola musikaz idazten nuen hartan lagun bat etorri zitzaidan etxera kritika/aholku batekin. Lankidetza eskaini nion eta handik aurrera zutabe batzuk bere izenarekin atera ziren. Hori eskaini nahi dizut, irakurle. Helarazi egizkidazu kritikak nahiz proposamenak, iritziak bezala gaiak, eta jarraituko dizut soka. Gogoratu zutabe hau digitala ere badela eta han duzu atea. Elkarrekin egiten dugun hori hobea izango da, ziur.

## ai, ene!



### Argazki automatikoak ateratzeko luzagailua

Zeini ez zaio inoiz egokitu bikote argazkia ateratzeko gogoa izan eta inguruan inor ez topatzea. Bada, hortxe irtenbidea.

http://jaranablog.blogspot.com


*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51